

# goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2011-02-21  
ASTELEHENA  
310. ZENBAKIA  
7. URTEA  
1,10 EURO  
GOIENA.NET  
TOKIKOM

## Pilotaleku berritua, inauguratuta



Agintariak inaugurazioan. | JA.

Leintz Gatzagako ur hornikuntza proiektuaren lehen harria ere jarri zuten ekitaldi berean | 4



Prozesionaria, bailarako pinuak jaten dituen izurritea | 2



Markel Irizarrek ehunen gutxigatik ez du Andaluziako Itzulian irabazi | 26



Zazpi alditan munduko txapeldun izan den Benito Ros domekan, Aretxabaletako zirkuituko beheko zatian.

## Lokatzarekin, zailago

Aretxabaletan egindako trialsin probak puntako pilotuak batu zituen, baina lokatzak zaildu egin zuen egin beharreko lana | 25

## Aizkorri-Aratz parkearen gaineko kezka argitzeke geratu dira

Parkeko zuzendariaren azalpenak entzuteko bete egin zen Eskoriatzako kultura etxea | 19

### Arrasaten, Gelmako zubia zabalik baina Garibai etorbidea itxita

Hilaren 28an irekiko dute, errepidea konpondu ostean | 15

### Giro euritsuan saldu behar izan zituzten baserriko produktuak

Arrasaten eta Oñatin azoka egin zuten zapatuan | 12

goienakluba<sup>™</sup>  
Abantailaz betetako kluba!

## HOME CINEMA

ETA ZURETAKO BADA?

► Zoaz 9. orrialdera

# Prozesionaria, bailarako pinuak jaten dituen izurritea

- ▶ Zuhaitzetan habiak egiten dituen tximeleta bat da
- ▶ Ez dira habiak edo harrak ukitu behar

LEIRE KORTABARRIA | BERGARA

Saihesbidetik, errepideetatik, autobidetik... barrena autoz edo herrian bertan pinuen edo izeien inguruan oinez dabilzanek igarriko zuten aurten zuhaitz horien adarretan eta adaburuetan itsatsita halako zaku txurixka batzuk. Betidanik izan dira Debagoienero pinudietako paisaietako zati bat. Izurrite bat da: prozesionari edo pinu-beldar izurritea.

Aurten, horren hazitegi bihurtu da Debagoiena. Oñatiko Natur Eskolako Imanol Biainek hauxe esaten digu: "Azken bi urteotan asko ugartu dira prozesionari-habiak. Negu leuna izaten gabiltza eta prozesionariak ez dute hemen etsai naturalik. Hemengo insignis pinua kanpotik ekarritako espeziea da, Mexiko iparraldetik, eta han baditu etsai naturalak, baina hemen, ez. Badaude txori mota batzuk, hemen ere, haren harrak jaten dituztenak, baina ez dira nahikoak".

Hala, indarrez zabaldu da pinu-beldarra aurten bailara osoan.

## Eguzki-begietan gusturen

Habiak dituen pinu, izei edo zedro horrendako zeharo kaltegarria da izurritea: pinuaren hostoak jan egiten dituzte, erabat biluziki utzi arte. Are gehiago, zuhaitz

batzuen buruak zeharo erreta eta sikatuta daude. Arrasate Irratian elkarrizketatutako Fermin Lezeta basozainaren esanetan, izurriteak ez du zuhaitza hiltzen, berez, "baina galtzen joan daiteke, eta bestelako har edo zomorro batzuk joaten direnerako beharbada ezin izango da bere onera etorri". Bere esanetan, uda sikua baldin bada, "pinua ez da ondo osatzen". Izan ere, pinu-beldarrari eguzki-begiak eta epeltasuna gustatzen zaizkio. "Horregatik daude hainbeste errepide ertzetan, leku epelak direlako", esaten du Lezetak.

## "Umeek uki ditzakete"

Gizakiondako, prozesionaria ez da bereziki arriskutsua. Hala ere, kaltegarria izan daiteke: "Gorputzean arantza antzeko batzuk dituzte, eta erresumina, hazkura handia sortzen duen sustantzia bat botatzen dute", esaten du Imanol Biainek. Animalien ere oso mingarriak dira. Beraz, ez dira ukitu behar, baina kontuz, inguruan ibiliz gero, batzuetan gainera jausten direlako harrak.

Bereziki adi ibili beharko dira paseatzen dabilzanak. Aretxabaletan, esaterako, Santa Kurtz kaleko atzeko partean dagoen bidegorri alboko zuhaitzak hartuta dituen harrak.

Angel Loidi aretxabaletarra oso naturazalea da betidanik, eta kezkatuta dauka izurriteak: "Santa Kurtzeko izeiak etxebizitzaren inguruan daude. Orain dela hiruzpalau urte jo zituen lehenengo aldiz izurriteak. Saihesbidetik beste aldeko zuhaitzek badute, eta handik ailegatu zaie", esaten du. "Herrian barrena badaude beste zuhaitz batzuk oraindik ondo daudenak, baina haietara ere zabalduko da, ez bada ezer egiten".

Bereziki kezkatuta dago Eskoriatzako Luis Ezeiza ikastetxe ondo-ondoan dagoelako zuhaitza zeharo gaixorik: "Umeak hasi daitezke harrekin jolasten eta haiek ukitu ditzakete", ohartarazten du. Bere iritziz, jendeak oraindik ez daki ze kalte egin dezaketen, eta horregatik ez dira neurriak hartu.

## Fumigatzearen polemika

Aretxabaletan, Udalak dagoeneko esan du neurriak hartuko dituztela, Joxe Anjel Antxia Ingurumen zinegotziaren hitzetan: "Bidegorri ondoan dauden sei izeiei adarburuak moztuko dizkiegu". Gaineratzen du laster egingo dutela hori.

Foru Aldundiak zuhaitziak fumigatzen zituen urtero, hegazkin txikiekin. Bergaran dagoen



Angel Loidi aretxabaletarra, pinu-beldar habia erakusten. | LEIRE KORTABARRIA

Eskualdeko Nekazaritza Bulegoiko Mikel Azkaratek hauxe dio: "Iaz ez zuten fumigatu, aurrekontu murrizketagatik, baina aurten dagoeneko markatu ditugu fumigatu beharreko gunek".

Normalean, abuztu bukaeran izaten dira fumigazio-hegaldiak, eta bi produktu mota erabiltzen dira: bat, diflubenzuroia (*Dimilin*, izen komertziala) eta bestea, *Bacillus thuringiensis* delako zomorroaren toxinan oinarritutako produktu ekologikoa. Harrek horiek jaterakoan, produktuak haztea galarazten die. Mikel Azkarateren esanetan, gaur egun erabiltzen diren produktuak ez dira ekosistemarendako kaltegarriak.

Fumigazioak denetariko iritziak pizten ditu. Imanol Biainek hauxe dio: "Dimilin-ak akabatzen ditu espezie asko, tartean erleak, eta iturburuak kutsatu egiten ditu". Bere iritzia ere azaldu digu: "Hemen hainbeste pinu dagoen bitartean, prozesionaria izurriteak egongo dira. Pinudiak monolaborantzak izaten dira, eta hobe izango litzateke pinuak hemengo espezieekin tartekatzea".

Fermin Lezetak, aldiz, dio fumigatzeko produktuak "nahiko selektiboak" direla, baina onartzen du "beti" egongo direla beste lepidoptero edo tximeleta "batzuk", fumigatzeko produktua jaten dutenak eta kaltea izango dutenak.

## ESANAK

"Izurritea sano dauden zuhaitz batzuetara zabalduko da, neurriak hartu ezean"

ANGEL LOIDI  
HERRITARRA

"Udalarenak diren zuhaitzetan neurriak hartuko ditugu: adar-buruak moztu"

JOXE ANJEL ANTIXIA  
INGURUMEN ZINEGOTZIA

"Pinu-beldarrari eguzkia gustatzen zaio, horregatik dago hainbeste saihasbide bazterretan"

FERMIN LEZETA  
BASOZAINA

"Abuztu bukaeran fumigatzen du Aldundiak, eta markatu dugu non fumigatu"

MIKEL AZKARATE  
ESKUALDEKO NEKAZARITZA BULEGOKOA

"Hainbeste pinu monolaborantza dauden bitartean, pinu-beldar izurriteak egongo dira"

IMANOL BIAIN  
NATUR ESKOLAKOIA



Eskoriatzako Luis Ezeiza ikastetxe ondoko zuhaitzak hainbat habia ditu. | LEIRE KORTABARRIA

## DATUA

2

## PRODUKTU MOTA

Fumigatzeko, bi produktu mota dira erabilienak: bat Dimilin izenekoa (diflubenzuroia), eta bestea, *Bacillus thuringiensis* harraren toxinan oinarritutakoa.

**Gipuzkoa**  
elkarlanaren emaitza



## Ilaratan mugitzen dira harrak

Pinu-beldarra edo prozesionaria delakoa (*Thaumetopoea pityocampa*) tximeleta mota bat da, eta oso izurrite hedatua da Europa hego eta erdialdean. Pinuak, izeiak eta zedroak ditu gustuko bere habiak egin eta arrautzak erruteko.

Udan dute estalaldia. Emeak zuhaitz-buruetan erruten ditu arrautzak, eta 30-40 egunen buruan (irailean edo urrian) jaiotzen dira beldarrak. Beldarrek zuhaitzetan egiten dituzte habiak, eta negua hantxe ematen dute.

Otsail eta apiril artean, habitik irteten eta lurreraino jaisten dira bere ezaugarri diren ilara edo prozesio antzeko horiek osatuz. Horrela ibiltzen dira gustuko leku bat topatzen duten arte. Hor, lur azpira sartzen dira eta krisalida fasera pasatzen dira. Udan, tximeletak irteten dira eta zikloa berriz ere hasten da.



Harrak, bata bestearen atzetik. | ANGEL TORRES

2011 | Krisiaren aurkako Plana

100 milioi euro

2010ean, honetarako neurriak bultzatu ditugu:

- 5.000 enplegu baino gehiagori eutsi.
- 200dik gora enpresa-proiekturi.
- 181 gazte gaitu kontratatu.

2011rako, plan berri bat daukagu:

- Enplegua sortzea.
- Lan-munduratzeari bultzatzea.
- Mikroenpresak sortzea.
- Autonomoei laguntzea.
- Nazioartekotzea eta berrikuntza sustatzea.

**GIPUZKOA**  
zurekin, aurrera

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA  
DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

[www.2011krisiarenaurkakoplana.net](http://www.2011krisiarenaurkakoplana.net)



Rafael Uribarren Landa Garapeneko Diputatuak, Eusebio Villar alkatea eta Florentino Ugalde Etorlurreko gerentea, frontoiaren inaugurazio ekitaldian. | w

## Ur hornikuntzaren lehen harria jarri eta frontoi eraberritua inauguratu dute Leintz Gatzagan

- ▶ Gipuzkoako Foru Aldundiaren 'Landagipuzkoa32' proiektuaren baitakoak dira proiektu biak
- ▶ Zapatuan inauguratu zuten frontoi eraberritua eta ur hornikuntzaren lanak bihar hasiko dituzte

MIREN ARREGI | LEINTZ GATZAGA

*Landagipuzkoa 32* Gipuzkoako Foru Aldundiak 1000 biztanletik beherako herriak indarberritzeko helburuaz sortutako egitasmoa da. Proiektu horren baitan, Gipuzkoako 1000 biztanletik beherako 32 herritan, 39 proiektu gauzatzeko dihardu Foru Aldundia; hain justu, horietako bi dira Leintz Gatzagan zapatuan aurkeztu zituztenak.

Batetik inauguratu zuten Gatzagako pilotaleku zaharberritua. Hain justu, lehendik zegoen markesinaren estalkia egokitu, birgaitu eta hobetu dute,

lehenago kobrezko estalkiaren ordez zeramikazko teila gorria ipiniz; markesina bera lurreraino ere jaitsi dute pilotalekuaren aurrealdean eta azkenik, pilotalekua guztiz itxi dute. "Gatzaga herri hotza da eta pilotalekuari egin diogun itxiturarekin, frontoiaren erabilera hirukoiztu egingo da" esan zuen inaugurazio ekitaldian Eusebio Villar alkatea. Hain zuzen ere, dagoneko igarri dute frontoi berrian erabilera asko igo dela: "Agian orain eskaera handiegia izango da. Hori horrela bada, udaletxeak



Lanei hasiera. | JOSETXO ARANTZABAL

erabaki du, ordu beteko txandak egitea, herritar guztiek izan dezaten pilotalekua erabiltzeko aukera".

### Ur deposituaren lehen harria

Frontoi berriaren inaugurazio ekitaldia aprobetxatu zuten Arlaban gaineko ur hornikuntza eta saneamenduaren lanei hasiera emateko; izan ere, proiektu hau ere, *Landagipuzkoa 32* egitasmoaren baitakoa da. Hain justu, eta lehorte garaian herria ur gabe gelditzeko arriskua zegoela ikusirik erabaki dute lan hauek

### ESANAK

**"Herri txikiak behar duten laguntza bermatzea dugu helburu"**

RAFAEL URIBARREN | DIPUTATUA

**"Bost hilabete iraungo dituzte Gatzagaineko ur horniduraren lanek"**

FLORENTINO UGALDE | ETORLUR

egitea. Hala, eta Gatzagainen ura badagoela ikusirik, bertan ur depositu bat egingo dute. Hura herrian dagoenarekin lotu eta goitik behera, hodi sistema baten bitartez, herrira ura ekarriko dute. Lan horiek aprobetxatuko dira, gainera, ur zikinak batuko dituen beste sare bat egiteko. "Sistema honekin, gainera, orain herrira ura ekartzeko dugun sistema merkatuko dugu" adierazi zuen alkate Eusebio Villarrek.

### Instituzioen ordezkaritza

Zapatuko ekitaldi bikoitzean izan ziren, Landa Ingurunearen Garapeneko Diputatu Rafael Uribarren, Florentino Ugalde, frontoiaren eraberritze lanak egin dituen eta ur hornikuntzaren lanak egingo dituen Etorlur enpresako gerentea, Eusebio Villar Leintz Gatzagako alkatea, zinegotziak eta hainbat herritar. Rafael Uribarren diputatuak azpimarratu zuen, egun pozgarria zela gatzagarrendako eta baita Foru Aldundiarendako ere, herri txikien eta handien arteko zerbitzu oreka bermatzea, diputazioaren ardura ere badelako

## Zubietako erraustegiarendako alternatibak aldarrikatu zituzten zapatuan, Oñatin

La Caixa eta Banesto bankuak Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoarekin errauste plantaren finantziazioa negoziatzen dabiltzala salatu zuten



Hasieran, La Caixa parean egin zuten elkarretaratzea; jarraian, Herriko Plazan izan ziren. | MIRIAN BITERI

MIRIAN BITERI | OÑATI

Sortu berri den Oñati Zero Zabor Plataformak elkarretaratzea egin zuen zapatu eguerdian, La Caixa banku parean. Modu horretan, esandako banku eta Banestoren aurka Gipuzkoako Erraustetaren aurkako Plataformen koordinadorak antolatutako duen salaketa kanpaina salatzen deialdiarekin bat egin zuen. Banku horiek Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoarekin Zubietako erraustegia eraikitzeko finantziazioa negoziatzen dabiltza; hain justu ere, 60 milioi inguru.

Taldearen izenean, Haizea Agirrek hondakinen kudeaketarako alternatibak eskatu zituen. Haren esanetan, "birziklapen tasa igotze aldera, atez atekoa ikusten dugu alternatiba moduan. Gainera, tasa hori igota erraustegiaren beharra saihestuko litzateke".

Alternatibak aldarrikatzeaz eta egubakoitzean errauste planta eraikitzeko onartutako esle-

pena salatzeaz gain, La Caixa eta Banestoren jarrerarekin duten desadostasuna azaldu nahi izan zuten elkarretaratzean parte hartu zuten 20 lagunetik gorakoek. *Erraustetarik ez, ez Zubietan ez inon, Gure osasuna eta planetarena ez daude salgai eta Alternatiba martxan orain, atez ateko bilketa Gipuzkoa osoan bezalako leloak zituzten horietako hainbatek esku artean.*

### Etekin ekonomikoak aurretik

Oñati Zero Zabor Plataformaren arabera, "Banestok eta La Caixak lehentasun osoa ematen diete etekin ekonomikoari, nahiz eta garbi egon erraustegiak inguru zabal bateko biztanleen osasunaren gainean eragin negatiboa izan dezakeela, besteak beste". Haren esanetan, "hau da honelako gizarte kapitalistaren funtzionatzeko modua, eredu gorena Banesto bezalako bankuak eta enpresa handiak direlarik".

# Gurean izandako gripe gaixoen %99ak A motako gripea izan du

laz baino %4 txerto gehiago ipini arren ez da alarma egoerarik sortu

IMANOL GALLEGU | ARRASATE

Ospitaleak jakitera emandako datuen arabaera, gurean, gripearen birusa jasan duten gaixoen % 99ak AH1N1 gripe motakoa jasan du. Aurreko urteko alarma egoeraren ostean, aurten normaltasuna izan da nagusi.

Aurten, infekzio datuak jeitsi egin dira eta hurrengo astean, osasun adituak bukatutzat emango dute gripe sasoi. Datuek hoberantz egin duten arren, urtarriaren bigarren astean izan zuen gripeak eraginik handiena. Dena den, jendeak erantzun ona izan du Mertxe Gabarik, Debagoiengo Ospitaleko Medizina Prebentzioko medikuak adierazi duenez "iaz ikusi zen birus honen portaera gripe arruntaren antzekoa da, baita hilkortasun-tasari dagokionez ere", normaltasun egoera honek gainera, medikuen lana asko erraztu du.

Gripearen birusak izan duen eragin eskasa kontuan eduki behar den arren, sei lagun ospitaleratu dituzte aurtengo gripearen kanpaina osoan.



Emakumezkoa txertoa jasotzen Oñatin. | ARANTZAZU EZKIBEL

42 eta 72 urte bitartekoak izan dira arrisku faktoreak zituzten guztiak, eta horien artean, pertsona barkarraren egoera larriarengatik Gasteizera lekualdatu izan behar dute.

Adin tarteei dagokionez, birusaren aurrean, 0 eta 42 urte bitartekoak oso erantzun ona izan dute, izan ere, ospitalean ez dute adin tarte honetako gaixo larririk izan.

**laz baino %4 txerto gehiago.**

Txerto kontuei dagokionez, gutxira medikuek 11.950 txerto ipini dituzte aurten, "iaz baino %4 txerto gehiago". Ezaugarriari begiratuta, erabiltzaileen %80 izan dira 65 urtetik gorakoak; %64,8 bronkitis kronikoa dutenak; %60,1 diabetikoak eta egoitzetan edo bestelako erakundeetan ingratuta dauden artean %95ak jaso du txertoa.

## Zazpi elkarteren babesak lortu du Aretxabaletan Gernikako Akordioak

MIREN ARREGI | ARETXABALETA

Babes bila, hainbat ate jo dituzte Gernikako Akordioaren sinatzaileek Aretxabaletan; horrela, herritarren 200 sinadura eta zazpi elkarte edo talderen babesak lortu dute. "Ez da lan erraza izan. Elkarte eta herritar askongana zuzendu bagara ere, atxikimendu gutxi lortu ditugu" adierazi digu Aralarko zinegotzi Felis Beltran de Herediak.

**Jende gutxi aurkezpenean**

Egubakoitzean aurkeztu zituzten herriko hainbat eragilek Gernikako akordioaren zortzi puntuak

Aretxabaletako Arkupen. Bertan izan ziren, nola ez, EAko, Ezker Abertzaleko, Alternatibako eta Aralarko ordezkariak eta baita Akordioari babesak eman dioten herriko beste zazpi elkartetako ordezkariak ere; horiek dira, Aretxabaletako Emakume Taldea, Arlutz Xake taldea, Urbaltz Elkar-tea, Gazte Ekimena, Gazte Independentistak, Zaraia Mendizale Elkar-tea eta Okila Elkar-tea.

Aurkezpen apala baino dotorea egin zuten Arkupe Kultur Etxean. Espero baino herritar gutxiago bertaratu bazen ere, ekitaldi polita egin zuten. Besteak



Orreaga Zubizarreta. | JOSETXO ARANTZABAL

beste, Gernikako Akordioa osatzen duten zortzi puntuak irakurri zituzten ekitaldian zehar.

## Ezker abertzaleak Asier Agirre babestu du

Aramaioko alkate Asier Agirre absolutu ostean Ezker Abertzaleak, berau babesteko prentsaurrekoa deitu du Gasteizen. Bertan, galdeketa egin izana goirapatu dute eta AHTaren gainera herri kontsultak ugaritu egin beharko lirakeela azpimarratu dute, herriaren partehartzea ezinbestekotzat joaz.



GOIENA

Ainhoa Larrañaga | Huhezin Jabetza Intelektualeko irakasle

## "Egileen atzetik daudenen interes ekonomikoek gidatu dute 'Sinde' legea"

Huheziko irakasleak Espainiako Kongresuan onartu duten neurriaz egin digu berba

MIRIAN BITERI | ARRASATE

Joan den martitzenean, *Sinde* legea moduan ezagutzen dena onartu zuen Espainiako Kongresuak. Eztabaida handia da, eta gai horren gainera azalpenak jasotzeko eta zalantzak argitzeko Huheziko Jabetza Intelektualeko irakasle Ainhoa Larrañagarekin egon gara.

**Zer deritzozu *Sinde* legeaz?**

Orain jabetza intelektuala arautzen duen lege bat dago, egileen eskubideak arautzen dituena. Lege horrek daukan filosofiaren barruan eztabaida dago gizar-tean, egileen eskubideen eta jabetza modu librean hedatzearen alde daudenen artean. Legeak konpondu gabeko arazoak ditu, eta bihar onartuko dena adabaki bat izango da. Horren harira, gogoratzekoa da *Sinde* legea ez dela lege berria, ekonomia sozialari buruz dagoen lege baten egiten den aldaketa da. Ez diote ikuspuntu orokorretik heldu behar zaion moduan heldu.

**Zer da neurri horrekin bilatzen dena?**

Badaude egile eskubideak babesten dituzten hainbat produktu (musika edo bideoak, esaterako) eta horien defentsaren ikur moduan hartu nahi izan dute. Legearen arrazoibidea hori izan da; egile eskubide horiek Interneten urratuak dira eta horiek babesteko egin dute neurria. **Prozesua epaile batek beharrean batzorde batek gidatuko du. Epaileak soilik baimena emango du webgune horien jabeen datuak emateko eta amaieran batzordean erabakitakoa berretsi ala atzera botako du. Askok diote ez dagoela berme juridikorik...**

Hala da. Lehenengo erabakia batzorde batetik etorriko da. Ematen du adituak osatuko dutela batzorde hori, baina zertan adituak? Gainera, batzorde horrek baloratu egin beharko du operazio horrek irabazteko asmorik duen eta ondarea kalteztzeko asmorik duen. Batzorde



Ainhoa Larrañaga. | MIRIAN BITERI

horrek izango dituen irizpideak oso arbitrarioak izan daitezke. Botere judiziala bigarren mailan dagoela iruditzen zait.

**Batzorde hori oso eskubide garrantzitsuekin dabil jokoan: adierazpen askatasuna, intimitaterako eskubidea...**

Hori da benetako auzia. Egileen eskubide interesak babestu nahi dituzte; erabat zilegi dena. Baina, aldi berean, ikusteko dago obra horrek duen dinamikarekin eta egileen eskubideak dauden SGAE bezalako egiturekin zer portzentaje geratzen zaion egileari eta baita bitartekariari ere.

Horrelako neurriekin hasten garen besteak beste eskubideak urratzen hasten gara. Entzun izan dut iritzi kritikoen aldetik benetako zentsura neurri bat dela; gizarte demokratiko baten, Interneten esparruan kultura doan zabaltzeak badauka zilegitasun guztia.

**Internet kontrolatzeko asmoa ere badagoela diote batzuek...**

Internetek oso modu samurrean obren hedapena ahalbideratzen du eta jende askorengana iristen da. Hau izan daiteke modu bat interesatzen ez zaizkien mezu edo produktuak ixteko.

Jabetza intelektuala babestea ondo dago, baina ez modu honetan. Atzetik dauden hainbat egituraren interes ekonomikoek gidatutako neurria da.

## Martxoan berriro egingo dituzte Gerra Zibilaren inguruko bisita gidatuak

IMANOL GALLEGU | ELGETA

Ibilbidean, Gerra Zibila Euskal Herrian oinarri hartuta, Elgetako Intxorta mendia magalean izandako frontearen hainbat xehetasun ezagutzeko aukera egongo da. Ibilbidea Espaloia Kafe Antzokitik abiatuko da; eta Interpretazio Gunea bisitatuz ondoren 5 km-tako ibilbide bati ekingo zaio.

**Euskaraz eta ele bitan**

Martxoaren 6ko bisita euskaraz izango da eta 27koa, berriz, elebiduna izango da. Bisita gidatua egin gura izanez gero, alde aurretik izena eman beharko da eta bisita gidatuak bi euroko prezioa dauka. Hala, bisita egin nahi duenak 943 79 64 63 telefono zenbakira deitu beharko du.

# Eroskiko bazkideek %5 gehiago lan egin eta soldata izoztu egingo dute

- ▶ Aukeran dute %5 gehiago lan egin edo %5 gutxiago kobratu
- ▶ Bezeroengandik gertuagoko dendak lortzea dute erronka berrizat

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Eroskiko bazkide kooperatibistek erabaki dute aurten 2009an baino %5 gehiago lan egitea, orduko soldatari eusteko; edo, aukeran, orain arte adina ordu egin ahal izango dituzte, baina %5 gutxiago kobratuta. Horrela jakinarazi zuen joan den egunean Agustin Markaide arrasatearrak, Eroski Taldeko presidente berriak, kazetariekin izan zuen batzar baten.

Iaz, Eroskiko bazkideek erabaki zuten %10 lan gehiago egitea, aurreko ekitaldiko soldata berberak eduki ahal izateko.

Agustin Markaide egunean izan zuen kazetariekin lehenengo topaketa kargua hartu zuenetik. Esan zien Eroskik "egonkortu" egin duela bere finantza egoera, eta "nabarmen" hobetu duela bere eragingarritasuna.

## "Gertuagoko denda"

Aro berri honetan, Eroskik bezeroarengan arreta handiagoa jarri nahi duela esan zuen Markaidek. Bere esanetan, "gertuagoko" denda bat lortu nahi da, prezio "erakargarrietan" oinarrituta, baina kontsumitzaileen aukera kopurua txikitu barik. Gaineratu zuenez, Eroski taldeak prezioak txikitu

ditu, eta hori lotuta dago bere eragingarritasun handiagoarekin. Eroskiren dendek eskaintza hobea egiten ahaleginduko dira, eta tokian tokiko produktu gehiago eskainiko dituzte, dendak euren erreferentzia-lekuan hobeto integratzeko. Horretarako, tokian tokiko ekoizleekin akordioak egiten ahaleginduko dira.

Horrez gain, Eroskiren marka indartu nahi du taldeak. Gaur egun, 3.000 erreferentziatik gora batzen ditu Eroskiren markak, eta bere salmenten %35 dira.

## Finantza aldetik, "egonkor"

Eroskiren beste erronka bat da taldea guztiz kooperatibo bihurtzea. "Lehenengo kooperatiba berriak datorren urtean ikusiko ditugula uste dut", esan zuen Markaidek.

Eroskiren finantza egoera "egonkorra" da, Agustin Markaideren hitzetan. Azaldu zuenez, taldearen zor egoera hitzartutakoa baino hobea da, izan ere, banketxeekin adostu zituen bere zorraren zati bat amortizatzeke epe berri batzuk. Kredituak aurrekusi baino lehenago bueltatzen dabilzala esan zuen Agustin Markaidek.

**DATUA**

**%10**

GEHIAGO

laz hartu zuten Eroskiko bazkideek horrelako erabaki bat: %10 gehiago lan egitea, aurreko ekitaldiko soldatari eusteko.

**ESANAK**

**"Egonkortu egin ditugu finantzak, eta eragingarriagoak ere bagara"**

AGUSTIN MARKAIDE | EROSKI  
TALDEKO PRESIDENTEA

# STEE-EILAS izan da bozkatuena Debagoiengan, Euskadin bezala

- ▶ Gainerakoak hauek izan dira, hurrenez hurren: LAB, ELA, CCOO eta UGT
- ▶ Ordezkariak Euskadi osorako aukeratzen ziren, eta ez bailaraka

L.K. | BERGARA

Eguaztenean egin zituzten Hezkuntza sektoreko hauteskunde sindikaletan, STEE-EILASek lortu zituen boto gehien bailaran: 148. Hurrenez hurren, hauek izan ziren gainerako sindikatu bozkatuenak: LAB (108 boto),

ELA (60), CCOO (31) eta UGT (5). Hiru boto baliorik gabe geratu ziren, eta boto zuri bat jaso zen.

Debagoieneko 671 langile zeuden botoa ematera deituta, Bergarako Ipintza institutuan. Egurdi partera arte 100 bat boto eman-

da zeuden, baina gero jende gehiago animatu zen eta, azkenean, erroldako erdiek baino zertxobait gehiagok eman zuten bozka: 671 langiletik 355ek (%52,9).

## Gehiengoa

Ordezkariak ez dira bailaraka edo lurraldeka aukeratzen, baizik eta Euskadi osorako. Eta oro har, euskal sindikatuek jarraituko dute gehiengoa izaten Hezkuntzako irakasle funtzionarioen ordezkarietan, orain arte bezala: STEE-EILAS eta LAB izan dira, hurrenez hurren, sindikatu bozkatuenak eta ordezkari sindikal gehien lortu dituztenak, eta ELAk 19 ordezkari lortu ditu, laugarren geratuz.

## CCOOK, porrot

Nabarmena da CCOOren porrota, hamar ordezkari galdu baititu. Orain arte bera zen sindikatu nagusia, 2007an botoen %31,3 eta 31 ordezkari lortuta, eta orain STEE-EILAS da, botoen %30,3 eta 30 ordezkari lortuta. Kontuan hartu behar da 2007an eta orain ordezkari kopuru berbera aukeratu dutela: 99.

Hauek izan dira emaitzak irakasle funtzionarioendako: STEE-EILAS (botoen %30,3 eta 30 ordezkari), LAB (%24,2 eta 24), CCOO (%21,2 eta 21), ELA (%19,2 eta 19) eta UGT (%5,1 eta 5). 2007ko emaitzak hauek izan ziren: CCOO (botoen %31,3 eta 31 ordezkari), STEE-EILAS (%25,3 eta 25), LAB (%20,2 eta 20), ELA, (%18,2 eta 18) eta UGT (%5,1 eta 5).

Hezkuntza Saileko bestelako langileek gehien bozkatuak: lan-legepeko irakasleak (heziketara berezia): LAB (botoen %38,3 eta 18 ordezkari); zerbitzuetako langileak: LAB (%42,9 eta 15 ordezkari); erlijio irakasleak: CCOO eta ELA berdinduta (%42,9 eta hiruna ordezkari); eta EHUko irakasleak: LAB (botoen %26,7 eta 23 ordezkari).



Langileak bozkatzen eguaztenean, Bergaran. | AMAIA TXINTXURRETA

**DATUA**

**148**

BOTO

STEE-EILASek 148 boto lortu ditu Debagoiengan. Bera izan da bozkatuena.

**DATUA**

**%52**

LANGILE

Bailarako 671 langile zeuden deituta, eta %52,5ek bozkatu zuten.

# Hasieratik, 400 euroak jasotzeko eskaera asko

L.K. | ARRASATE

Espainiako Gobernuak langabeendako emango duen 400 euroko laguntza eska daiteke INEMen egoitzan, Arrasaten, eta dagoeneko hala egin du jende askok, hango arduradunek diotenez. Euren esanetan, neurria hasi zen egunean bertan –otsailak 15, joan den martitzena– informazio eske eta galdezka jende asko joan zen haraino.

400 euroak langabearen formazioa diruz laguntzeko dira; horregatik, jaso nahi dituenak ezinbestean formazio plan bat egin beharko du. Hor ikusten du zailtasunetako bat Lanbideko Elena Mondragonek: "Debagoiengan ez dago ikastaroetan plazarik; dena bete-beteta dago".

## Ez da 426 euroen ordezkia

Helburua da "enplegu deuseztapenak kaltetutakoak" bereziki laguntzea: gazteak, luzaroan lanik gabe egon diren 45 urtetik gorakoak, eraikuntza sektoretik datozen langabeak eta kualifikazio maila txikia duten "krisiak kaltetutako beste batzuk". Kobratzeko baldintzak hauek dira: langabezia prestazioa bukatuta izatea otsailaren 16tik aurrera; langabearen familia-unitatearen errentak ezingo dira izan 481,05 euro baino gehiagokoak; eta PRODI programaren 426 euroak jaso zituztenek ezingo dituzte laguntza hauek jaso.

# Tavexen bulegoak bakarrik geratu dira Bergaran

L.K. | BERGARA

Bukatu da Tavexen desegitea Bergaran. Enpresako zuzendaritzak eta langileek akordioa egin zuten eta urtarrila bukatzearekin bat itxi da lantegia. Gabiria dorretzeko bulegoak dira Tavexen jardura bakarra orain. 27 lagunek dihardute hor.

Tavexeko arduradunek jakinarazi digutenez, langileak eta zuzendaritza ados jarri ziren baldintza batzuetan. Jarduera eteteko EREa onartu zuen Lan Ordezkariak, eta horrekin batera Asaisa taldeak zeraman jardura industrial (lantegia) bertan behera geratu zen. Denetara, 64 langile izan ziren Tavexeko lan harremana eten zutenak. Urtarrilean barrena egin zen hori guztia.

# AIZKORRI-ARATZ PARKE NATURALA

NATUR BALIABIDEAK  
ANTOLATZEKO PLANA

ESKORIATZA



Aizkorri-Aratz parke naturaleko zuzendari Iraitz Zubeldiak hitzaldia egin zuen egunean Eskoriatzan; baserritarren eta gainerako erabiltzaileen kezka argitzen saiatu zen. | MIRIAN BITERI

Iraitz Zubeldia | Aizkorri-Aratz parke naturaleko zuzendaria

## "Baimena duten erabiltzaileek lehengo moduan jarraituko dute"

- ▶ Erabiltzaileen zalantzak argitzen saiatu zen egunean Iraitz Zubeldia
- ▶ Parkea arautzeko araudiak sortutako kezka "laster" uxatuko dela dio

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Aizkorri-Aratz parkeak kezka sortu du erabiltzaileen artean, hori arautzeko araudiaren eraginagatik. Eskoriatzako Mendioia eta Bolibar elizateetako eta Lete auzoko alkateek "informazio falta" salatu zuten joan den astean. Horren gainera azalpenak emateko hitzaldia egin zuen egunean, Eskoriatzan, parkeko zuzendari Iraitz Zubeldiak. Goiena ere harekin egon da.

**Dagoeneko indarrean dago Aizkorri-Aratz parke naturalaren Erabiltzaile eta Kudeaketa Arautzeko Plana?**

Joan den urteko abuztutik urrira bitartean egin zen publiko plana, tarte hartan alegazio epea irekita. Orain, alegazio horiek aztertu eta beharrezko aldaketak egin ondoren, parkeko patronatura eramango da dokumentua, bertan lehen onarpena eman diezaioeten.

**Zein da zehazki plan horren asmoa?**

Hitz gutxitan, naturagunea kudeatzeko arau eta irizpide orokorrak zehaztea da plan horren asmoa. Horretarako, lurraldean gauzatu diren ekonomia eta aisialdi-jarduerak antolatze arauak zehaztuko dira.

**Aldaketa asko ekarriko ditu araudi berriak?**

Aizkorri-Aratz aldean egiten diren ekintza gehienetan ez da aldaketa handirik izango. Jarduera ekonomiko gehienei dagokienez, ohiko lanak egiteko garaian zenbait muga jarriko dira, baina ez ekintza horiek asko aldatuko dituztenak. Berezi, ekintza horiek egiteko modua aldatuko da eta, natura baliabideen kudeaketa egokiari begira, neurriak hartu, baina ez jarduera guztiak debekatu edo bere horretan utzi. Izan ere, garrantzi handia duena gauza edo ekintza hauek egiteko modua da.

Aldaketarik nabarmenenak aisialdiko hainbat erabilpenetan izango dira, araudiaren esanetan ezin delako naturagune babestuen barruan ibilgailu motordunekin ibili, libre deklaratu ez diren bideetan edo baimena duten erabiltzaileek izan ezik. Baimen hori bertan jarduera ekonomikoak egiten dituztenek eta lurjabeek izango dute. Beraz, azken horiek lehengo moduan segituko dute; hori bai, beharrezko baimena edukita.

**Eskoriatzan horren gainera dagoen informazio falta salatu dute...**

Ez da erraza erabiltzaile edo jabe guztiengana heltzea. Orain dela 3

urte Aizkorri-Aratz aldea parke natural izendatu zenetik araudia eta informazioa kalean dago eta, neurri handi baten, normala da denengana iritsi ez izana. Dena dela, hasierako kezka edo beldurra laster uxatuko delakoan nago.

**Nola eragingo die lurren jabeek?**

Lehen esan bezala, ez dute aldaketa handirik sumatuko. Lehen egiten zituzten aktibitateekin aurrera jarraitu ahalko dute. Hori bai, kasu batzuetan, aktibitate horiek ingurunean duten eragina neurtu egin beharko da eta beste kasu gehienetan, ekintzak egiteko baimenak eskatu beharko dituzte. Baina, orokorrean, bideak erabiltzeko baimenak izango dituzte, eta baita abereak mendian larratu edo egurra mozteko ere.

**Eta ehiztariek?**

Ehiztariek araudi orokorra jarraitu beharko dute, eta momentuan indarrean dauden neurriak bete. Babesgunea errespetatu egin beharko da eta ehizarako plan tekniko egingo da, naturagune babestuko ehiza-egoera zehatz biltzeko.

**Mendizaleek mugaren bat izango dute?**

Ez. Mendizaleengan ez du inongo eraginik izango araudi berriak.

**Eta motorrean edo bizikletan ibiltzen direnek?**

Bai. Motordun ibilgailuei mugak jarriko zaizkie. Bizikletan eta motorrean, bideetan ibili beharko dute; eta motorren kasuan, gainera, ibiltzeko baimena beharko da.

**Bestalde, ingurune horretan jende asko dabil perretxikotan... Haiek zerbait igarriko dute?**

Hori ere kontrolatuta egongo da. Perretxikoak biltzeko Gipuzkoako Foru Aldundiak laster onartuko du naturagune babestuetan perretxikoak batzea erregulatuko duen dekretua, baina ez du eragin handirik izango ohiko

biltzaileengan. Gehiegizko abusuak eragozteko izango da dekretu horren helburua.

**Kezkatuta daudenek diote urbaniten interesak gainerakoengainetik daudela. Horrela izango da?**

Kezka eta beldurra bultzatutako iritzia da hori, baina, berez, bertakoak izango dira ingurune horretan eskubide gehien izango dituztenak. Parke natural bat ez da izendatzen bertako kalterako, balio bereziak dituen ingurune bat izanik bertako balio naturalak mantentzeko eta lurralde hori modu egokian kudeatzeko baizik.

Aldi berean, ordea, esandako balio horiek bultzatuta, bisitari kopurua gehitu egin daiteke eta baliabideak neurritz erabilia etekina atera.

**Aisialdiari begira, nolako ustiatuko da Aizkorri-Aratz?**

Orokorrean, lehen bezalako erabilpena izatea da helburua, betiere modu ordenatuan. Aurten jarriko da martxan Aizkorri-Aratz parke naturaleko ibiltari-erantz eskaintza interesgarria. Bestalde, Parketxea inauguratu berri da eta bertatik bideratuko da ingurune hau ezagutu nahi duten bisitari kopuru handi bat.

**"Garrantzi handia duena gauza edo ekintzak egiteko modua da"**

**"Naturagune babestuan ezingo da ibilgailu motordunez ibili"**

**"Ez da erraza erabiltzaile edo jabe guztiengana heltzea"**

**"Bertakoak izango dira ingurunean eskubide gehien izango dituztenak"**

## ZABALIK

LARRAITZ UGARTE  
'http://goiena.net/iritzia/'



## Sorturen legalizazioaz

Hasi da martxan Sortu legeztatze makineria. Hasi da ere, ia Sorturen sustatzaileak ezertan hasi baino lehen, Sortu legez kanpo uzteko makineria. Biak aldi berean norabide aurkakoan martxan. Sortu izango da Alderdien Legean ezarritakoak eta Espainiako Auzitegi Gorenaren epaiek galdatzen duten guztia betetzen duen lehen alderdia; egundaino bakarria. Alderdien Legea guztiz legez kontrakoa, intenzionalitate politikokoa, antidemokratikoa, zuzendua eta propagandistikoa dela kontsideratu arren, bere enbutuaren zulo estuan sartzea erabaki du ezker abertzaleak. Ataka honetatik atera eta Euskal Herriko sektore zabal bati ahotsa eta bozka emateko itxaropenez aurkeztu dira estatutuak.

Ez daude bakarrik. Urteotan apartheid politikoen kontura etekina ateratzea erabaki zuten askok ere alderdi berriaren legalizazioaren aldeko jarrera aktiboa hartu dute. Euskal Herrian gauzak beti izan dira Espainian izan ez diren bezala. Kultura demokratikoa ez dago hain galdua, injustiziaren aurrean kritiko izaten dakien masa handia baitago. Masa horri dagokio maiatzeko hauteskundetan aukera guztiak bozkarri izateko ahalegina egitea. Kontrako norabidean egiten ari direnaren tamainakoa gutxienez.

Nonahi ageri dira eta ageriko etorkizunean txosten polizialak, abertzaletasunaren frogak... Sortu Batasunaren jarraipena dela eta ETaren estratategia, beraz, esanik, errefusak egon arren. Bagenekien kondenarekin ez zela nahikoa. Ez digute argitu zer den nahikoa. Ezer ez da nahikoa; euskaldunok sumatzen genuenez, batzuentzat gatazka politikorekin amaitzea ez da komenigarria, helburua, kontrara, independentistekin amaitzea da, gu eszenatoki politikotik eta kaleetatik ateratzea, España uniformearen mesedetan.

Alde batek eman dituen pausoen aurrean "gehiago, gehiago" baino esaten ez dakiten horiek, inoiz, motu propio "nahiko, orain bai" esango ez duten horiek mugitzera behartuko dituen indarrak metatzearen beharra dugu, beraz, guztion artean, maiatzean denok karta berdinekin jokatzeko lortzeko.

**"Injustiziaren aurrean kritiko izaten dakien masa handia dago"**

## USTEAK USTE

USOA AGIRRE | 'uagirre@goiena.com'

## Interneteko arrastoa

Aitortzen dut: Tuentin kontua daukat. Lankideei esan nienean harriritu geratu ziren. Lagun batek bidali zidan gonbidapena eta nik kontua sortu! Ez dut erabiltzen; zelakoa zen ikusteko bakarrik sortu nuen. "Bai, guztiek esaten dute gauza bera", izan zen lankideen erantzuna.

Dena dela, pentsakor jarri ninduen kontu honek. Ez adinak, noski, badakit zaharregia naizela Tuentirako, ia *thirty* ditudalako, besteak beste. Baina Interneten zenbat lekutan eman ote dut izena probatzeko bakarrik eta gero ez erabili, arrakastarik izan ez dutelako edo niretako egokiak ez zirelako? Horien guztien zerrrenda nonbait ikusterik banu...

## KALE INKESTA

Herrigunean abiadura 30 km ordura murriztu nahi dute. Herri barruan bizkorregi gidatzen dugu?



NEREA ERDABIDE  
ARRASATE

Orokorrean bai. Egia da jende nagusiak polikiago gidatzen duela, baina gazteak berriz, nahiko bizkor ibili ohi dira herri barruan nahiz kanpoan.



FELIX ALONSO  
ARRASATE

Banatzailea naiz eta orain kontrol handiago dagoela uste dut. Gainera oinezkoentzat egindako bideetan ezin da oso abiadura handian gidatu.



ONINTZA BELATEGI  
ARRASATE

Danetik dago. Orokorrean jendeak nahiko ondo gidatzen du, baina noizean behin astakilo bat edo beste ikusten da erripedeetan.



JUAN JOSE ITURBE  
ARRASATE

Batzutan bai, baina orokorrean ez dugu bizkor gidatzen. Herri barruan bestez ere, abiadura mugak errespetatu egiten dira.

## HANDIK ETA HEMENDIK

## Sozialdemokraziaren nazioarteratzerik eza

Luis Aranberri 'Amatiño'  
<http://eibar.org/blogak/amatiño/>

Ba al da beste aukerarik? Tony Judt-ek uste du baietz. Zer izango eta... hautabide bi baino ez omen daude: edo sozialdemokraziak ikasten du bere burua nazioartean kokatzen, edo Estatu-erakundeek berreskuratzen dute galdutako buruzagitza. "Desde finales del siglo XIX hasta la década de 1979, las sociedades avanzadas de Occidente se volvieron cada vez menos desiguales. Gracias a la tributación progresiva, los subsidios del gobierno para los necesitados, la provisión de servicios sociales y garantías contra las situaciones de crisis, las democracias modernas se estaban desprendiendo de sus extremos de riqueza y pobreza... En los últimos treinta años hemos arrojado todo esto por la borda".

[...] *Algo va mal (Ill fares the land,* 2010) saiakera Tony Judt idazlearen atzenengo emaitza da.

[...] Letra-molde handi

samarrez ozta-ozta berrehun orrialde baino ez dituen saiakera da, asteburu batean hasi eta amaitzeko modukoa. [...] Nolabaiteko tesia zera da: II. Mundu Gerra osteko demokraziaren arrakasta aberastasun-ekoizpena eta banaketaren artean Estatuak araututako orekan datza, Estatuak egin baitezake beste inork ezin duena egin. Mundialtzeak oreka hau hautsi du, hiritarrak babestu beharra oraindik ere Estatuei dagokien arren, behar besteko aberastasun hori Estatuaren esparrutik kanpo eragiten baita aspaldion. [...] Alegia, osasun eta garraio publikoak, doako hezkuntza, gizartekintza, babes-laguntzak eta kontrol fiskala indarrean jarri daitezkeela Estatu-erakundearen ardurapean, ez ordea nazioarteko merkatuan. Ekonomia mundialdu egin da baina politikak nazionala izaten jarraitzen du. Ba al da beste aukerarik? Tony Judt-ek uste du baietz. Zer izango eta... laburtu beharrez, eta nik ondo ulertu baldin badut behintzat, hautabide bi baino ez daude, hots: edo sozialdemokraziak ikasten du nazioartean ibiltzen eta

agintzen, edo Estatuek nolabait berreskuratzen dute galdutako buruzagitza.

## Erosi, bota, erosi!

Leire Narbaiza Arizmendi  
<http://eibar.org/blogak/leire/>

La 2 katean oso dokumental interesgarria eman zuten duela aste batzuk. Sarean ere bueltaka ibili da, eta zatika ikusi ondoren, nik ere jartzea pentsatu dut, ikaragarria delako eta merezi duelako ikustea.

Dokumentalaren izena *Comprar, llençar, comprar* da (eros, bota, erosi) eta obsoleszentzia programatuaz dihardu; hau da, erosten ditugun produktuak sortzen direnetik ez irauteko eginak direla. Asmatuta daude luzaroan irauten duten bonbillak, galtzak, elektratresnak... baina fabrikatzaileei interesatzen ez zaienez, askoz denbora laburragoa irauten dutenak produzitzen dituzte.

[...] Eta zabor hori nora doa? Birziklatzera? Askotan ez, hirugarren mundura, herrialde pobretara. Zabortegi bihurtu ditugunak.

Merezi du, zatika ere ondo jarraitzen da. Kontsumoari beste begirada bat.

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea  
E05 Basabe Poligonoa,  
20550 ARETXABALETA  
**Lehendakaria** Estepan Plazaola  
**Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate  
**Erredaktore burua** Monika Belastegi  
**Sailetako arduradunak** Kabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diselina), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Asteburuko edizio arduraduna** Xabier Urtzelai  
**Maketazioa** Kepa Martelo, Imanol Soriano.  
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amalia Mundinano, Zioritza Martin, Itxaso Berezibar, Imanol Elortza.  
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate  
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia  
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA**  
BERGARA 20570: Ibarra, 6  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 12  
[papera@goiena.com](mailto:papera@goiena.com)

**ORDEZKARITZAK**  
ARRASATE 20500:  
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00  
[arrasate@goiena.com](mailto:arrasate@goiena.com)  
**ARETXABALETA 20550:** Durana 11  
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54  
[aretxabaleta@goiena.com](mailto:aretxabaleta@goiena.com)

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05  
Faxa: 943 25 05 09 | [publi@goiena.com](mailto:publi@goiena.com)  
**Harpidetza** Aretxabaleta 20550  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50  
[harpidetza@goiena.com](mailto:harpidetza@goiena.com)  
**Lege Gordailua:** SS-0088/04  
**ISSN:** 1697-3542  
**Tirada:** 5.000 ale.  
**Difusioa:** 4.383 ale.

©J.D. erakundeak ikuskatutako astekaria.



**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**



**EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

FIDELTASUN SARIA  
**HOME CINEMA**

IRABAZLEA  
**AGURTZANE IRIARTE**  
BEÑAT, NAIA ETA OIER  
SEME-ALABAK SARIA JASOTZEN  
**ZORIONAK!**



**MARTXOKO SARIAK**

**Parte hartzeko**

Telefonoz: 945 25 05 05  
e-postaz: [kluba@goiena.com](mailto:kluba@goiena.com)  
SMS bidez.

Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.  
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: [kluba@goiena.com](mailto:kluba@goiena.com)

**SKUN-FUNKEKO KAMISETA ETA POLTSA**

Bidali KLUBA KAMISETA  
[Bazkidearen zenbakia]  
215800 zenbakira.

skunkfunk



**LIBURU SORTA UMEENTZAT**

Bidali KLUBA LIBURUAK  
[Bazkidearen zenbakia]  
215800 zenbakira.

PAMELA



**EUSKAL RIP-EN DVD-A**

Bidali KLUBA DVD  
[Bazkidearen zenbakia]  
215800 zenbakira.

goiena



**ARGAZKI KAMARA**

Bidali KLUBA KAMARA  
[Bazkidearen zenbakia]  
215800 zenbakira.

EROSKI



**2011n atera etekina txartelari**

AQUARIUM

**AQUARIUM**

Donostia, 943 44 00 99  
■ Bi erosi eta bat ordaindu  
(sarrera garestiena ordainduko da)

AVIA

**AVIA MECA GASOLINDEGIA**

Arrasate, 943 79 13 39  
■ %2 gasolindegian erregeia erosita.  
■ %2 dendako produktuetan

AZKOAGA

**AZKOAGA ENEA HOTELA-JATETXEA**

Eskoriatza, 943 71 45 66  
■ %8 deskontua asteburuko egonaldietan.  
Ohe bikoitz eta egongeladuna hartuz gero, botila bat txakolin opari (Mendraga).  
■ %10 deskontua jatetxeko kartan.

Barceló

**BARCELÓ BIDAIAK**

Arrasate, 943 79 70 11/ Bergara, 943 76 08 43  
■ 1.000 eurotik gorako erosketekin  
"B Plana" OPARI  
(kontratatuaren arabera: asteburuko egonaldiak, irteera gastronomikoak, ongizate txartelak...)

BEGIONDO

**BEGIONDO OPTIKA**

Aretxabaleta, 943 79 98 21  
■ -%15 produktu guztietan. Kontsulta doan.

GAHIR

**GAHIR FISIOTERAPIA-OSTEOPATIA**

Eskoriatza, 943 71 43 41  
■ %50 deskontua lehenengo kontsultan.

ESKO Sport

**ESKO SPORT KIROL DENDA**

Eskoriatza, 943 71 52 96  
■ -%10 produktu eta zerbitzu guztietan

GAES

**GAES ENTZUMEN ZENTROA**

Arrasate, 943 71 27 93 / Bergara, 943 76 94 55  
■ %10 deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin)

CLINICA DENTAL BERGARA

**CLÍNICA DENTAL BERGARA**

Bergara, 943 76 05 77  
■ -%10 zerbitzu guztietan  
■ -%15 inplanteetan  
■ Aho-garbigeta doan,  
■ 120 eurotik gorako tratamenduetan  
Bazkidearentzat eta familiako batentzat

IKER SUKALDEAK

**IKER SUKALDEAK**

Arrasate, 943 79 00 43 / Oñati, 943 53 35 48  
■ Sukalde osoa erosita, mikrouhin-labea opari.

LILURA

**LILURA EDERTZE INSTITUTUA**

Bergara, 943 76 31 71  
■ -%15 laser depilazioan: hanka osoa + izterrondoa (besapekoak opari).  
■ -%20 elikagai-intolerantzia proban.  
■ -%10 mikropigmentazioan: begiak, ezpainak edo bekainak.  
■ -%10 fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.  
Bazkidearentzat eta lagunarentzat

MULTIOPTICAS

**MULTIOPTICAS**

Arrasate, 943 79 29 95 / Bergara, 943 76 15 75  
■ %15 deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin)

NAREN

**NAREN FISIOTERAPIA ZENTROA**

Aretxabaleta, 943 08 21 89  
■ -%15 zerbitzu guztietan.

RENAULT AUTOBERRI

**RENAULT AUTOBERRI**

Arrasate, 943 71 24 72  
■ -%5 konponketetan, ez bada prezio itxia edo promozioa.  
■ -%25 saltzen ditugun pneumatikoetan, urte osoan.  
■ Ordezkapeneko autoa, 20 euro.  
Erosketaren momentuan goian aipatutako deskontua baino handiagoa badugu, bazkideari deskontu handiena eskainiko diogu.

TXIKI ZOO

**TXIKI ZOO**

Aretxabaleta, 943 79 51 15  
■ Sei ile apaindegi zerbitzuengatik, zazpigarrena doan.  
■ %50erainoko deskontuak txakur-txamarratan (izakinak agortu arte)

TXURI URDIN

**TXURI URDIN IZOTZ JAUREGIA**

Donostia, 943 46 44 00  
■ Bi erosi eta bat ordaindu ostiraletan (ez bada jaiegun, jaiegun bezpera, zubia edo oporraldia)  
■ -%20 zapatu eta domeketan (ez bada zubia edo oporraldia)  
■ -%10 zubi eta oporraldietan.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

**ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA**

Donostia, 943 01 24 78  
■ %10 deskontua.

## UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

**Francisco Javier Zendoia** | PSE-EEko zinegotzia Bergaran (1983-1995)

- ▶ 80ko hamarkadan gizarte zerbitzuen iraultza bultzatu zuen
- ▶ Garai hartan hasi ziren Bergararen mapa ordenatzen
- ▶ Errege Mintegia Bergarari bueltatzeko lanetan ibili zen

## "Kolore politikoa osoko bilkuretan uzten dugu; hortik kanpo, politikan lagun handiak egin ditut"

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Eibartar horrek duela 40 urte herria utzi eta Bergarara joan zen etorkizun hobe baten bila. Labegarietan sindikalista gisa ibili ostean herri politikara pasa zen. Harekin mintzatu gara zinegotzi gisa bizi izandako 12 urte haien inguruan.

### Nola sartu zinen politikan?

Ez zen inoiz nire asmoa izan, baina behin Bergarara iritsi ostean, Labegarietan UGTn lanean hasi nintzen eta lankideek hauteskondeetara aurkeztera bultzatu ninduten. UGTn egon ostean PSE aukeratzea zerbait logikoa zen arren, ez zen erabaki erraza izan. Aita EAJko kidea zen eta gure familiak ez zuen oso era onean hartu nire erabakia.

### Nolako Bergara aurkitu zenuen?

Momentu hartan, Bergarak indar handia zuen, industriak jende asko erakarri zuen hona, baina udal ikuspuntutik dena egiteke zegoen. 80ko hamarkadan gizarte zerbitzuek iraultza handia bizi izan zuten, anbulatorioa, zaharren egoitza, Labegarietako kiroldegia... Horrelako arloetan lan handia egin genuen, trantsizioa oso gertu zegoen eta udalek ez zuten herritarrek behar zuten zerbitzu asko eskaintzen.

### Zein harreman daukazu zinegotzi izan zinen urteetan izandako alkateekin?

Oso ona. Argi eta garbi diot, nire alderdikoak ez diren arren euren lana ondo egin badago, estimatu egiten dut. Nire ustez, Imanol Bolinaga Bergarak izan duen alkaterik onena izan da. Jose Luis Elkororen lagun-mintzat daukat, biok askotan eztabaidatu dugun arren estimu handia diogu elkarri.



Francisco Javier Zendoia, Mizpirualde zaharren egoitzaren aurrean. | IMANOL GALLEGO

Gallastegirekin ez dut harreman handirik, baina osoko bilkuretatik atera bezain laster kolore politikoa ahaztu egiten dugu eta oso giro ona izan dugu.

### Jose Luis Elkororen egoera ez da erraza izan.

Ba ez, egia esan. Jende askok bere alde egin du, eta neronek ere, alderdiaren iritzia alde bate-

ra utzita, gestio bat edo beste egin dut. Horregatik ez dut titular handirik nahi, hura nire laguna da eta beste edozein lagunengatik egingo nuen gauza bera



Zendoia eta Javier Espartza, Angiozarren. | BERGARAKO UDALA ARTXIBOA BKE FONDOA

besterik ez dut egin. Nire ustez, lagun batengatik bakoitzaren esku dagoena egin behar da.

### Zinegotzi zinela aurrera ateratako zein proiektuekin sentitzen zara harroen?

Uf... ze galdera zaila... Ni 12 urtez izan nintzen zinegotzi eta denbora hartan gauza on asko egin genituen. Baina bi proiektu aipatuko ditut: batetik, Labegarietako kiroldegia. Bergara oso herri luzea da eta kiroldegi horrek mesede handia egin zien Labegarieta inguruan zeuden herritar eta langileei; bestetik, Mizpirualde zaharren egoitza sortzea. Bertako mojekin akordioa egin genuen Udalak bere kudeaketan parte hartzeko; gainera, ni bertako sortzailea naiz.

### Zein izan zen egin ez zenuen zure begietako proiektua?

Errege Mintegia, duda barik. Askotan ibili ginen eraikin horren atzetik. ETAK erail zuen PSOeko Juan Mari Jauregik lan asko egin zuen Errege Mintegia eskuratu ahal izateko, eta erregearekin hitz egitera iritsi zen. Negoziazio askoren ostean guztia prest zegoen eta Koroak pezeta baten truke saltzeko eskaintza egin zigun, baina EAJk ez zuen Madrilera joan nahi eta aukera paregabe hori galdu genuen.

### Nola ikusten duzu orain Bergara?

Egia esateko, erdi lo. Bergarak lehen izandako grina galdu du. Oso herri ausarta zen, baina azken urte hauetan herriak industria asko galdu du eta krisi honek, langabezia tasa igotzeaz gainera, Bergararen ahultasuna areagotu du. Baina, hala ere, ziur nago bideko zulo honetatik aterako gara.

**"Errege Mintegia pezeta baten truke eskuratzeko aukera galdu genuen"**

**"Bergarak bere indarra galdu duen arren, laster berreskuratuko du"**

# POLITIKA

GOIENA TELEBISTA | TERTULIA | POLITIKA KONTUAK HIZPIDE

OTSAILAK 23, 20:45 | JULEN IRIONDOK AURKEZTUA

BABESLEA: LILURA EDERTZE INSTITUTUA



# HERRIAK

ARETXABALETAKO

## Kirola eta jolasak uztartu gura dituzte kiroldegi pareko zelaietan

Udalak zirriborroa aurkeztu die 'Kudeatuz' programan parte hartu dutenei

MIRIAN BITERI | ARETXABALETAKO

Dagoeneko gertu dago Aretxabaleko kiroldegi berriaren aurrean dagoen berdegunerako proposamena, eta hilaren 12an, ingurune horretan zer egin erabakitzeko egindako parte-hartze prozesuko kideei ezagutarazi zien Udalak.

Kirol teknikari Asier Muxikak azaldu du zelaia bost multzotan egongo dela banatuta. Batetik, kirol arautuaren instalazioak egitea aurreikusita dago, hala nola, futbol zarpiko zelaia eta padelera jokatzeko pista bi. Bigarrenik, modu arautuan ez dauden kirol jolasak egongo lirake; esaterako, saskibaloiko kanastak, ping-pongeko mahaiak edo frontoi txikiak. Hirugarrenik, aisialdirako jolas parkea dago; hain justu ere, ziburu bereziak. Horren harira, Muxikak azaldu du naturarekin lotutako egurrezko eta sokekin egindako ziburuak jartzea pentsatu izan dela.

### Errekan presa bat

Laugarrenik, urarekin kontaktua duen gunea egongo litzakete. Azken horretan, umeendako hainbat ur-elementu eta berdegunea jartzea pentsatu dute; etorkizunera begira, erreka ere aprobetxatzeko asmoa dago, presa bat eginez. Azkenik, futbol zarpiko zelai azpian lur azpiko aparkalekua eraikitzea aurreikusi dute; 60 ibilgailuen tokia izango luke horrek.

Proposamena egiteaz gain, ingurune horretako urbanizazio eta ekipamenduen kostuaren



Kiroldegi parean dagoen berdegunean hainbat instalazio egin nahi dituzte. | MIRIAN BITERI

balorazioa ere egin du Udalak. Muxikak jakinarazi du hori guztia egin ahal izateko, 2.350.000 euro beharko direla. Horren harira, gaineratu du lur azpiko aparkalekua egiteak bakarrik milioi bateko kostua izango duela.

Besteak beste, futbol zarpiko zelaia egiteak 287.000 euro balio lukeela estimatu dute; padel kantxek, 50.000; jolas gunek,

100.000; berdeguneek, 60.000; eta etorkizuneari Deba errekan jartzeko presak, 12.000 euro.

### 30 partaideko saloak

Kiroldegi pareko berdegunearen etorkizunaz eztabaidatzen urtebete daramate Aretxabaletan. *Kudeatuz* izeneko programaren parte-hartze prozesua urtarrian hasi zen, 30 herriko elkarteetako

ordezkari eta herritar soilen partaidetzarekin. Martxora bitartean, hiru saio egin zituzten ingurune horren erabilpenaren gaineko ekarpenak jasotzeko.

Kirol teknikariaren esanetan, "horren ondotik adostu genuen saiatuko ginela eskaera guzti horiek jasoko litzuzkeen proposamena diseinatzen, eta, aldi berean, horren kostuaren estimazio bat egiten. Asmoa izan da denon artean adostea ingurune horretan zer egin nahi den".

### Kiroldegia amaitzean

Proiektuaren exekuzioaren harira, Muxikak aipatu du gaur egun kiroldegia amaitzea dela lehen-tasuna daukana, eta berdegunea horren ondotik etorriko litzatekeela. Horren harira, Aretxabaleko alkate Inaxio Garrok adierazi du kiroldegi berriaren lanak amaitzean hasi beharko lirakekeela horien obrak: "Larregi itxaron barik egiten hasi beharko lirakeke instalazioak". Horren harira, gaineratu du, lehenik eta behin, jolas gunea egiten hastea dela asmoa, gutxien balio duena delako. Dena dela, gogorarazi beharra dago maiatzaren 22an udal hauteskundeak izango direla, eta horiek markatuko dituztela proiektu horren ibilbidea.



ANA NOGUEIRAS  
PROZESUKO KIDE

"Nahiko ondo geratuko bada ere, gabeziak ditu. Esaterako, padel kantxa bi egitearekin ez nago ados; larregi da. Bestalde, pilotan ibiltzen diren hiru seme ditut, eta pilotaleku gehiago jarriko nituzke. Osasun parke bat ere jarriko nuke".



IMANOL ARANTZABAL  
PROZESUKO KIDE

"Ingurugiroa alde batera uzten du. Berdeguneak galtzen goaz; gero eta porlan gehiago ari dira sartzen eta berdegunea ez dira behar bezala zaintzen. Errekari bizitza gehiago ere emango nioke. Bestalde, aparkalekua ondo dago".



AINHOA ARANBURU  
PROZESUKO KIDE

"Ur jolasak planteatzen dituzte baina ez bainatzeko tokia, ez behintzat hurrengo urteotan. Kanpoko bainatzeko tokia ez omen da errentagarria, baina horren ordez milioi bat euro gastatzea aurreikusi dute aparkalekuan".



IGOR ARENAZA  
PROZESUKO KIDE

"Balorazioa positiboa da, Udala saiatu delako aretxabaletarren sentsibilitate guztiak ukitzen. Guk beste futbol zelai baten beharra ikusten genuen eta proiektuan aurreikusita dago".



Aretxabaleko Udalak egin duen proposamena. | ARETXABALETAKO UDALA

ONATI

# Belar usaintsuez, fruta-arbolez eta sasoiko lorez bete zen zapatuan Herriko Plaza

Natur Eskolak antolatutako zuhaitz azokako sei postuetan eskaintza zabala izan zen



Nartiso eta azaleak erosteko aukera egon zen, besteak beste, Oñatin. | MIRIAN BITERI

MIRIAN BITERI | OÑATI

Giro ona zegoen zapatu eguerdian Oñatiko Herriko Plazan, Natur Eskolak antolatutako Ingurumen Astearen barruan egindako zuhaitz azoka dela-eta. Goiza gris samar esnatu bazen ere, eguerdi partean, euria egiteari utzi eta oñatiarrak nahiz Debagoieneko bestelako herrietako lagunak Euskal Herri-tik eta Errioxatik iritsitako sei enpresen eskaintza zabala ikusteri eta bide batez erostera animatu ziren.

Fruta-arbolez ikusmina sortu zuten; sagarrondo, laranjaondo eta limoiendo bezalakoak eskuratu ahal izan ziren, besteak bes-

te. Belar usaintsuek ere harrera ona izan zuten eta erosle bat baino gehiago topatu genuen etxerako bidean erromero, mendafin, izpiliku, mendarekin.

**Pentsamenduak euro batean**

Horretaz gainera, etxe barrurako zein kanporako sasoiko lore eta landare mota erosteko aukera ere egon zen. Askotariko koloreetako pentsamendu, azalea, nartiso, kamelia edo kaktus deigarriak eskaintzen ziren han. Eskaintza bereziak ere bazeuden; esaterako, kolore bateko pentsamenduak euro baten truke topatu genituen Aranbururen postuan salgai.



**SOPHIE MALLET**  
OÑATI

"Oso gauza politak daude azokan; bereziki, nekazaritza ekologikoa dut nik gustuko. Zuhaitz bat erosi nahi dut, hagin edo zedro baten bila nabil, baina oraingo, behintzat, ez dut horrelakorik topatu".



**AMELIA IBARGUREN**  
OÑATI

"Erromero eta izpiliku landareak erosi ditut zuhaitz azokan. Oso gustuko ditut loreak eta hortaz, urtero etortzen naiz ekimen honetara; loreak eta landareak erosten ditut, ez dut-eta zuhaitzetarako tokirik".



**ANTON INDA**  
ARRASATE

"Oso gustuko dut zuhaitz azoka, urtero etortzen gara Oñatira. Zerbait erosteko asmoarekin geroz, gero ikusi beharko da zer dagoen. Lore eta erromero bezalako belar usaintsuak erosteko ohitura daukat".



**IMANOL ARANBURU**  
AGINAGA

"Oñatin azoka egiten hasi zirenetik etortzen naiz saltzera; dagoeneko hamabi urte izango dira urtero gatozela. Aurten poliki doaz salmentak; goizeko lehen orduan euria egin du, baina, gero, atertu egin du eta jendea hasi da poliki-poliki plazara etortzen. Denetarik saltzen dugu, baina garai honetan, zuhaixkak dira gehien eskatzen direnak. Horiekin batera, sasoiko pentsamenduak, krabelinak eta udaberri-loreak daude orain".

ARRASATE

## Giro euritsuan saldu behar izan zituzten baserriko produktuak

Herriko baserriek Serber Altube plaza etxeko produktuez bete dute

IMANOL GALLEGO | ARRASATE

Hilabeteko hirugarren zapatu honetan, baserriko produktuen azoka izan zen Seber Altuben. Baserriarrek ez zuten zorterik izan eta azokak zirimiria izan zuen lagun. Lehen orduan euriak gogor egin bazuen, egunak aurrera egin ahala euria gutxitzen joan zen eta jende dezente hurbildu zen Seberera.

Goizean zehar bertara gerturatu zirenek letxugak, buzkantzak, baserriko ogia... erosteko aukera izan zuten.

Hilero egiten den zozketan Rufina Olasagasti arrasatearrari egokitu zitzaion Bedoña Auzoko Bidasoro baserrikoek prestatutako produktu sorta.

**Tolosa eta Bergara**

Arrasateko produktuez gainera zapatuan, Tolosa eta Bergarako



Jendea azokan baserriko produktuk erosten. | JOSETXO ARANTZABAL

bi baserriarren produktuak egon ziren salgai.

Tolosarrak, ohiko produktuez gainera, etxean ekoizten duen

sagardoa ekarri zuen. Bergararrak berriz, bere baso-mintegian hazten dituen basalandareak ekarri zituen Seber Altubera.

EMETERIO ELKOROBEREZIBAR | BASERRITARRA

## "Merkatal-guneetan denetik saltzen denez jendeak horietara jotzen du"

Emeteriok betidanik izan du baso-mintegia baserrian, eta erretiratu aurretik azoka ugari joaten bazen ere, oraindik ere basalandareak toki askotan saltzen ditu.

**Ze iruditzen zaizkizu honelako azokak?**

Ondo, garai bateko ferien antzerakoak dira eta lehen egiten ziren gauza onak mantendu egin behar dira.

**Zein abantaila dituzte azokako produktuek?**

Hurbiltasuna. Hemen saltzen den guztia inguruan ekoiztuta dago, eta ez da apal batean bi astetan ahaztua egon de produktu bat. Dena den, gaur egun, merkatal-guneetan denetik saltzen denez, jendea bertara joaten da, baina askotan gure produktuak hobekia dira.

**Zure produktuak ezberdinak dira.**

Beno, akaso gaur egun azokatan txorizoa, ogia... eta tankera horretako produktuak besterik ez dira saltzen, baina lehen basalandare



Elkorberezibar. | IMANOL GALLEGO

ugari saltzen ziren.

**Orain ez da hori gertatzen?**

Ez, landareek lan asko ematen dute, gainera inguruko baserriarrek zuzenean etortzen dira nire baserrira produktura erostera.

**Denak bertako produktuak ezta?**

Hemen bai, baina etxean baditut Zeelanda Berritik ekarritako pinu haziak. Ikaragarriak! Izugarriko kalitate onekoak.

## BERGARA

## Plisti-plasta egiten ibili dira 100 neska-mutikotik gora Agorrosinen

Ur jolas eta puzgarri batez goatzeko aukera izan zuten umeez, zapatu arratsaldean

MIRIAN BITERI | BERGARA

Gustuko dute haurrek uretan jolasean ibiltzea. Hori horrela dela baieztatzeko zapatu arratsaldean Bergarako Agorrosinera joatea besterik ez zegoen. 100 ume baino gehiago gora eta behera ibili ziren bi orduz igerilekuetan jarritako puzgarrian eta bestelako jolas materialarekin jolasean.

Udal kirol zerbitzuak antolatutako dinamizazio ekintza hori 17:00etan hasi zen; orduko ume zein guraso asko zeuden kiroldegiko aldageletan bainujantzia jartzen. Ordu erdi beranduago, 120 neska-mutiko inguru zeuden igerileku handian zein txikian; partaidetza handia izateaz gain, oihuek eta plisti

-plastek eragindako zarata ere ikaragarria zen.

Igerileku txikia bi zatitan banatu zuten: alde batean, 8 urtetik gorak zeuden koltxonekin eta bestelako elementuekin; eta bestean, txikiagoak gurasoez lagunduta, flotagaiarekin jolasean.

### Puzgarria, izarra

Dena dela, ikusmin handiena piztu zuena igerileku handian jarritako puzgarri erraldoia izan zen. Batzuek arratsalde osoa eman zuten horretan, inongo beldurrik ez dutela erakutsiz. Horretaz gain, koltxonetak, porteriak eta baloiak ere eskura zituzten, eta jolasak ere gertatu zituzten.



Umeez gozatu egin zuten zapatuan igerilekuan jolasean. | JOSETXO ARANTZABAL



Espaloian bildu ziren zenbait bikote dantzan. | JOSETXO ARANTZABAL

## ELGETA

## Doinu klasikoek elgetarrak dantzan jarri zituzten

Gardoki taldearen musika ezagunak bikote ugari animatu zituen

IMANOL GALLEGU | ELGETA

Pasodoblea, tangoa, salsa... ez ziren inoiz horren bizirik egon. Zapatu arratsaldean horrelako doinuek Elgetako Espaloian zeudenak animatzea lortu zuten.

Hasiera batean dantza egitera ateratzea kosta egin bazitzairen

ere, gero oso gustura agertu ziren dantzari trebeak. "Gure garaiko musika da", "lehenengo dantzaldi baten antza dauka", zioten herriarrek irribarrea ezabatu ezin zuten bitartean. Guztiek oso arratsalde atsegina pasa zuten, zenbait kafe eta dantzen artean.

### Gizonak faltan

Lotsagatik, futbolaren kompetentziagatik edo eguraldiagatik akaso, bost gizon ez ziren dantzaldira animatu. Hala ere, ez zen gizonen faltarik sumatu, emakumeek pista bete zuten-eta.



**MARI CARMEN AGIRRE**

"Primeran pasatzen ari naiz, musikak gazte denborak dakarzit burura. Guztioz ezagutzen ditugun abestiak dira eta gainera oso erraz dantzatzeko dira! Ezin dugu gehiago eskatu."



**JOXE ARANBURU**

"Ni ez naiz hemengoa eta Elgetan egiten den ekimen hau ezin hobea dela uste dut. Gainontzeko herrietan ere egin beharko lirateke honelako dantzaldi animatuak".



**MARIA JESUS LETE**

"Emakumeak gehiago animatzen gara honelako gauzetara, baina ziur nago herrian gizon gehiago egongo balira, ez zirela etxean geldituko. Hala ere gu ez gara eserita gelditzen!".

## ARRASATE

## Bertsoak eta txuletak JMAkoen ahotan

Ezin hobeto ibili ziren egubakoitzean Alejandro Altunako langileak, Arrasateko Txondorran egindako bertso afarian. 26 lagun batu zituzten afarian Adur Gorostidi eta Eneritz Zabaleta bertsoari hartu zuten parte. Orain arte Hernani aldeko sagardotegietara joan dira urtero JMAkoak; aurten, plana aldatzea erabaki dute.



JOSETXO ARANTZABAL

# %70, %80 edo %90eko beherapenak eskuratu ahal izango dira zapatuan, kalean

laz baino hamabi saltoki gehiagok parte hartuko du aurtengo Merkemerkaue azokan

UBANE MADERA | ARRASATE

Badator Arrasateko merkealdien azoka, Merkemerkaue, berritasunekin etorri ere. Izan ere, oraingo honetan Uarkapera barik, kalera aterako dituzte euren eskaintzak azokan parte hartuko duten saltokiek.

Oraingo asteko zapatuan egingo dute hori, 10:00etan hasi eta 20:00ak arte, eguerdian etenik egin barik.

## Karpak, Seber Altuben

"Lau puntu indartsu izango dira saltoki moduan: Olarte kalea, Garibai etorbidea, Monterron parea (Otalora kalean) eta Seber Altube plaza", jakinarazi du Angel Alonsok, Ibai Arte merkatarikideak.

Xehetasunen arabera, saltoki gehienek saltoki aurrean ipiniko dituzte produktuak, "baina herriaren erdigunetik urruti daudenek edo erdigunean egonda bakarrik daudenek -inguruan saltoki gehiago ez dituztenak- Seber Altube plazan ipiniko dituzte eskaintzak. Hain justu, zortzi bat metroko bost karpa izango dira Seberren, orotariko eskaintzarekin: loreak salduko dituzte, opariak, oinetakoak, jantziak, umeendako jantziak, lentzeria..."

Seber Altubeko karpa-guneak, gainera, dekorazio berezia izango du, banderatzoeekin.

## Herritarren jarraipen handia

Alonsok uste du aurtengo Merkemerkaue orain arteko edizioek baino jarraipen handiagoa izango duela: "Uarkape oso ondo dago, baina azoka ikusteko bertara joan behar da. Saltokiak kalean ipiniz gero, berriz, jendearengandik gertuago izango gara. Kaletik paseatzearekin nahikoa da azoka ikusteko. Uste dugu orain arteko azokarena baino formatu egokiagoa izango dela aurtengoa".

## Saltokien jarraipen handiagoa

Horren harira azpimarratu gura izan du, formatu berri horri esker saltoki dezente gehiago animatu dela parte hartzera: "iaz baino 12 saltoki gehiago izango da aurtengo". "Errazagoa eta merkeagoa da parte-hartzea. Are gehiago, espero dugu datorren urtean hirukoitzu ere egin daitekeela saltokien partaidetza", adierazi du Ibai Arteko kideak.

Azpimarratzekoa da, baita ere, aurtengo egitura horrekin, Merkemerkaue Arrasateko saltokiek bakarrik parte hartuko dutela.



Saltokiak iazko Merkemerkauean, Uarkape frontoian; akaso, frontoian egiten den azkeneko aldia izan zen hura. | GOIENA

DATUA

30

SALTOKI

30 saltokik parte hartuko du Merkemerkauean: jantziak, oinetakoak, opariak, lentzeria, loreak, kirol materiala... izango da.

## Kale animazioa

Bestalde, Alonsok kontatu du, berezko animazioaz gainera, kaleak animatzeko ekimenak egingo dituztela: umeendako gaztelu puzgarria ipiniko dute, San Frantzisko elizaren pareta ondoan; eta Arrasateko trikitilariak ibiliko dira kaleak musikaz janzten.

## Kontuan hartzeko prezioak

Aurkitu ahal izango den eskaintzari dagokionez, berriz, "saltoki bakoitzak egoki ikusten dituen beherapenak" ezarriko dituela adierazi du, baina azpimarratu gura izan du kontuan hartzeko moduko beherapen eta prezioak aurkitu ahal izango direla: "%70, %80 edo %90eko beherapenak ere izango dira. Pentsa, gure dandadan badaude 140 euro kostatzen diren jantziak 50 eurotan".

## Izena eman daiteke

Eta dagoeneko azokaren antolaketaren azken txanpan sartuta egon arren, Alonsok jakinarazi du oraindik posible dela izena ematea. Horretarako Mankomunitateko GATC zerbitzura deitu beharra dago: 943 79 30 90, eta Aitziberren-gatik galdetu. Azken horrek azpimarratu du "azken unera arte" eman daitekeela izena.

Eta gainera, edozein saltoki motak ditu ateak zabalik. Izan ere, ohituta gaude halakoetan jantzi, oinetako edo zapata-denden parte hartzea ikusten, "baina, adibidez, jaki-dendek ere parte har dezakete. Aurtengo, adibidez, loradenda batek ere parte hartuko du".

## MERKEMERKAUKO GUNEAK

**Olarate kalea** Inguruko saltokien eskaintzak

**Monterron parea** Otalora eta Zarugaldeko saltokiak

**Garibai etorbidea** Bertako saltokien produktuak

**Seber Altube** Bost karpa, erdigunetik kanpokoendako



Ino Galparsoro eta Patxi Arburua gobernu-kideak oinezkoen zubia gurutzatzen, egubakoitzean. | UBANE MADERA

## Gelmatik Zaldibar gunera zuzen joan daitezke oinezkoak, barikuan zubi berria zabaldu ostean

Estreinaldirako asmoa zen zubia kolore zuri-morez argizatzea, baina ez zen halakorik izan

UBANE MADERA | ARRASATE

Zaldibarko parke berrian elkarrekin eta Gelmarainoko joan-etorria eginda "inauguratu" zuten oinezkoendako zubi berria udal agintariek egubakoitzean.

Ino Galparsoro alkateak, Patxi Arburua obra eta Zerbitzuak Saileko buruak eta Aritz Arrieta PSE-EEko zinegotziak parte hartu zuten, besteak beste, ibilaldian.

Zubia gustatu zaien edo ez galdetuta, Ino Galparsorok erantzun zuen "gustu kontua" dela. Garrantzitsuena dela "zubi solidoa" dela, eta "inportanteena alde biak lotzen dituela".

## Bide zuzenagoa

Eta, izan ere, halaxe da. Horri esker, zubi berriak bide ematen

die Musakola, Obenerreka eta Santa Teresako goiko auzoetako bizilagunei ospitalegunera bide atsegino eta zuzenagotik joateko.

## Koloredun argiak eta pergola

Zubiaren ezaugarriak dagokionez, berriz, akaso deigarriena da koloredun argiak izango dituela gaez, aukeran kolorez alda daitezkeenak: urdinak, moreak, gorriak, zuriak... Estreinaldirako, esaterako, herriaren ezaugarri diren kolore zuri-moreak piztu nahi zituzten, baina ez zen halakorik egon. Bestalde, zubia berria izateaz gainera, berria da, baita ere, zubiaren beste aldeko parkea. Kasu horretan, haren ezaugarri nabarmenena duen pergola da.

## Gureak-en eguneko zentrokoen lanak, azokan

Birritan ipiniko dute saltokia: hileko lehenengo eguaztenetan eta hirugarren asteko egubakoitzetan

UBANE MADERA | ARRASATE

Joan den eguaztenean estreinatu zuten saltokia Goienetxe fundazioaren kideek azokan. Eskuz egindako lan koloretsuak aukeratu, eta baserritarren ondoan ipini zuten postua birritan.

Eta aurrerantzean ere hala egingo dute, hilean bi bider, 10:00etatik 12:00ak arte, hileko lehenengo eguazten eta hirugarren asteko egubakoitzetan. "Oso esperientzia polita dabil izaten. Jen-

deari hasieran kostatzen zaio arrimatzea, baina arrimatzeko direnean zer dugun ikusten dute eta erosi ere bai, ze prezio politak ditugu", kontatu du Elena Zaratek, Gureak-en barruan dagoen Goienetxe fundazioaren eguneko zentroko langileak.

### Komunitatean integratzeko

Eta jakina, herritarrak gonbidatu ditu euren saltokira joan daitezela, baina ez bakarrik erosteko,

hori ez da-eta, Goienetxe fundazioaren nahia: "Gure helburua ez da dirua ateratzea, jendea etor dadila, gurekin egon daitezela eta opariren bat egin behar badute, ba prezio onak ditugu".

Horren harira, Elena Zaratek azpimarratu du gizarteko parte aktibo izaten ahalegintzen direla. "Komunitatean integratzeko lortzeko bide bat dela pentsatzen dugu. Eurak oso gustura daude, esku ona dute gauzak egiteko eta hori erakustea ere gura dugu".

### Elkarren eta Tamayon

Tamayon eta Elkarren hasi ziren Goienetxe fundazioaren produktuak saltzen. Orain, saltoki berria dute: "Zaintzen ditugun pertsonak badute gogoia, interesa, desioa... gauza berriak egiteko komunitatean. Hasi ginen liburu-banatzailak



Goienetxe fundazioaren saltzaileak azokan, egubakoitzetan. | UBANE MADERA

egiten eta Elkarren eta Tamayon saltzen. Harrena ona izan zuten eta gustura gaudenez, pauso bat aurrera egin, proiektu hau sortu zen, eta hemen gaude".

### 5-6 urte Arrasaten

Gureak-en (Zigorrola) hirugarren pisuan dago Goienetxe fundazioa. Gipuzkoan bederatzi zentro ditu; Arrasaten 6 urte egitera doaz.

## Garibai etorbidea itxita dago zapatua ezkerre, otsailaren 28ra arte

Arrasatetik Aretxabaleta, Eskoriatza edo Gasteizerako bus geltokia lekuz aldatuko dute

UBANE MADERA | ARRASATE

Otalora eta Zarugaldeko errepi-deetako konponketa lanak bukatu ostean, Garibai etorbidea konpontzen hasi dira.

Hain zuzen, Maala eta Biteriko bidegurutzaren arteko erre-pide zatian dauden batxe edo zuloak dira konpondu gura dituztenak.

Otsailaren 28ra arte iraungo dute lanek. Eta lanak egin ahal izateko, etorbide hori zapatuan bertan itxi egin zuten, zirkulazioa. Hori bai, Maala eta Biteri etorbidearen arteko zatia bakarrik.

### Arrasate-Gasteiz bus zerbitzua

Edozelan ere, itxitura horrek eragina izango du automobilien joan-etorrian. Eta, tartean, autobus zerbitzuan.

Udaleko Obra eta Zerbitzu Sailetik jakinarazitakoaren arabera, Arrasatetik Aretxabaletara, Eskoriatzara edo Gasteizerako autobusa hartzeko geltokia zerbitzuz kanpo utziko dute.

Hori horrela, otsailaren 28ra bitartean Nafarroa etorbidean egokituko dute behin-behineko autobus geltokia; hain zuzen ere, Hotel Mondragonen aldamenean kokatuko dute.

### Bergara-Eibar bus zerbitzua

Beste noranzkoan doazen autobusak, berriz, hau da, Bergarara, Eibarrera edo Donostiarako noranzkoan pasatzen diren autobus-zerbitzuek ez dute aldaketarik izango; beraz, geralekuak leku berean segituko du: Laubide aurrean.



Makinak lanean, Garibai etorbideko zorua konpontzen. | UBANE MADERA

### Lur azpiko parkinga

Eta ez dute aldaketarik izango, ezta ere, Biteriko lur azpiko aparkalekua erabiltzen dutenek. "Sartu betiko lekutik sartu ahal izango dira parkingera, eta irten, berriz, Biteritik irteten segitu ahal izango dute, zati horretan ez dute arazorik izango", adiera-

zi du Moises Altunak, Udaleko Obra eta Zerbitzuak Saileko teknikari-buruak.

### la 20.000 euro

Konponketa lan horiek Orsak eta Excavaciones Arrasate enpresak egingo dituzte. Aurrekontua 18.000 euro pasa izango da.

## Autodefentsa ikastaroa, emakumeei zuzenduta

U.M. | ARRASATE

Martxoaren 18an eta 19an autodefentsa ikastaroa egingo dute Emakume Txokoan. Egubakoitzetan 16:00etatik 20:00etara eta zapatuan 10:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 19:30era. "Helburuak dira gure buruarengan konfiantza sendotzea, autoestimua hobetzea, emakumeen arteko elkartasuna bultzatzea eta defentsa pertsonaleko teknikak ikastea".

### Indarkeria fisikotik harago

Emakume Txokotik esanda-koaren arabera, "indarkeria sexista indarkeria fisikoa baino gehiago da. Ikasiko dugu indarkeria matxista guztiei aurre egiteko baliabideez hornitzen".

Izena martxoaren 4a baino lehen eman behar da; telefonoz deituta (943 79 41 39) edo bertara joanda.

## Guraso eta ikasleak batera Orixol bideko aterpetxean

Kurtzetatik Orixolerako ibilbidea egin dute 125 ikasle eta gurasok. Arizmendik ikastolako aisialdia kudeatzen duen Kulturgunea ekimenaren eskutik egin dute mendi irteera. Lehen Hezkuntzako familiendako antolatutako ekimena da. Oraingoan, lau irteera egin dituzte eta ikasturtea amaitu aurretik beste hiruzpalau egingo dituzte.



ARIZMENDI IKASTOLA



Iazko landareen erakusketa eta salmentarako Zuhaitzaren Feria, San Martin plazan. | ARTXIBOA

# Zuhaitz feria egingo da zapatuan; landaketa, berriz, martxoaren 27an

Erakusketa eta salmenta feria, 09:00etatik aurrera San Martin plazan

JOKIN BEREZIARTUA | BERGARA

Urtero moduan, badator Zuhaitz feria. Zapatuan izango da, otsailak 26, eta aurten ere San Martin plazan jarriko dute azoka, 09:00etatik aurrera. Landareen erakusketarako eta salmentarako feria da eta bertan lorategietarako landareak, kontserbazio arazoak

dituzten espezieak eta makinaria ezberdina ikusi eta erosteko aukera izango dute bertaratzen direnek.

**Landaketa egunaren aldaketa** Ekimenaren helburu nagusia da, Naiara Corcuera ingurugiro teknikariaren arabera, lursail publi-

koetan zuhaitz ezberdinak landatzea. Eremu publikoak dira lanerako eremua; honela azaldu du: "Lursail pribatuetan ezer gutxi egin dezakegu, eta horregatik eremu publikoetan jardungo dugu".

Izan ere, orain arte feria egi-teaz gain, egun berean zuhaitzak

landatzera joaten ziren ekimenarekin bat egiten zutenak. Bada, aurten antolatzaileek erabaki dute landaketarako beste egun "aproposago" bat aukeratzea. Hala, zuhaitzak landatzeko eguna martxoaren 27ra arte atzeratu dute. Zergatik? Bada, egun horretan Gorlako igoera egingo delako,

hain zuzen. Eta txirrindularitza proba horrek jende asko erakar-tzen du; beraz, amu paregabea da herritarrak zuhaitzak landatzen joan daitezten proposatzeko. Honela azaldu du Corcuera: "Egun horretan txirrindularitza proban egongo den jendea aprobetxatu nahi dugu gero zuhaitzak landatzera ere etor daitezten".

Turismoa, kirol jarduera eta ingurumena uztartuko dituen ekimen bat moduan planteatu dute eguna. Horregatik antolatzen dute Udaleko Ingurumen eta Kirol zerbitzuek. Bergaratik Gorlara joango dira eta handik Pol-Poleko ur kanalak bisitatuko dituzte. Gero, zuhaitzak landatzen hasiko dira.

## Printzipioz, 100 zuhaitz

Landatuko dituzten zuhaitz kopuruari "printzipioz" ez da aldaketarik izango. Aurten ere 100 zuhaitz landatuko dituzte: "Etor-tzen den jendearen arabera pertsona bakoitzak zuhaitz bat edo gehiago landatu beharko du, baina asmoa da 100 zuhaitzen kopurura heltzea".

Landaketaz gain, azken urteetan ohitura bihurtu den orientazio joko ere egingo dute. Mapa bat hartuta eta bertan aurkitu beharreko zenbait puntu markatuta daudela, herritarrek naturarekin zerikusia duten puntuak identifikatu eta aurkitu beharko dituzte. Esaterako, iturri zehatz bat. Familia edo lagun giroan gozatzeko joko da, lehen esandako moduan, turismoa, natura eta kirola uztartuko dituen.

## Martxoan ere hainbat ikastaro izango dira KZgunean

J.B. | BERGARA

Gertu dago dagoeneko KZgunearen martxoko egitaraua. Hala, datorren hilean ere hamaika ikastaro izango dira; gehienak interneten nabigatzerako orduan erabilgarriak direnak.

Youtube webgunearen xehetasunak ikasi, Ubuntu sistema eragilea ezagutu, Delicious aplikazioa erabili edota sare sozialen munduan murgiltzeko aukera eskainiko du KZguneak.

### 22 ikastaro hil baten

Eskaintza, esandako moduan, zabala da oso. Izan ere, aipatutako lau ikastaro horiez gain, beste 18 ikastaro eskainiko dira. Guztira 22, eta guztiak martxoan. Ez da eskaintza makala, ez horixe. Ikastaro batzuk goizez eman-giro dira eta beste batzuk, berriz, arratsaldean.

Eskaintza zehatzaren berri izateko, izena emateko eta oro har, argibide gehiago jasotzeko

hiru bide izango ditu interesatuak: Errotalde Jauregian dagoen Kultur etxera jo, 943 76 35 10 telefonora deitu edo [tutor.bergara@kzguna.net](mailto:tutor.bergara@kzguna.net) helbide elektronikora idatzi. Ikastaroren baten izena emateko Kultur etxera doanarendako, honakoa da ordutegia: astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Azkenik, [www.kzguna.net](http://www.kzguna.net) webgunean kontsulta daiteke informazio eguneratua.

## Erabiltzaileek oso pozik jarraitzen dute Agorrosingo kirol zerbitzuarekin

J.B. | BERGARA

Agorrosingo kirol zerbitzuarekin oso pozik daude erabiltzaileak. Oraingoan 392 inkesta-egun 973 ikaslea daude; beraz, inkestaren %37a ikaslea da-egin dituzte eta 0tik 10erako eskalan 8,17ko nota jarri diote kirol zerbitzuari, orokorrean. Batz besteko hori lortzeko honako irizpide hauek hartu dituzte kontuan: ikastaro edo

ekintzak, landutako edukiak, jardueraren iraupena eta ordutegia, saioen antolaketa, irakasle edo begiralearen lana eta erabilitako baliabideak.

### Jaitsiera txikia

2010eko urtarrileko datuekin konparatuz, jaitsiera txiki bat-oso txikia- eman da erabiltzaileen poztasun mailaren batz bestekoan: 8,31tik 8,17ra.

Maialen Madariaga | Ain\_1 taldeko kaxa-jolea

## "Asko gozaten dut unean bertan barrutik irteten zaidana jotzen dudanean"

Madariaga gustura dago Arrasateko Ain\_1 taldean, "musika gustuko dut eta harreman ona dago", dio

J.B. | BERGARA

Duela urte eta erdi hasi zen Maialen Madariaga (Bergara, 1986) Arrasateko Ain\_1 taldean jotzen. Parranda baten hasi zen istorioak luzerako emango duela dirudi...

### Nola sartu zinen taldean?

Dena parranda baten hasi zen, Ozaetan, *Sua* filmaren grabaketa egun batean. Deialdi irekia zen eta koadrilako batzuk grabaketan parte hartzera joan ginen.

Azkenean parranda egiteko geratu ginen Ozaetan. Bertan ezagutu genituen Ain\_1eko taldekideak eta gaia ez dakit nola irteten zaidan unean bertan jotzeko proposamena.

### Proiektuak erakarri zintuen, beraz.

Bai. Entsegu batera joan nintzen eta musika aldetik gustatu zitzaidan. Beraz, aurrera. Gainera, oso ondo hartu naute eta oso harreman ona dago taldean.

### Noiz hasi zinen kaxa jotzen?

Emon taldean jotzeko helburuarekin hasi nintzen kaxa jotzen. Emon taldean parte hartzeko nik zer jo nezakeen niri buruari galdetu eta kaxa aukeratu nuen. Gasteizen nengoen garai hartan

eta urtebete inguruko ikastaro bat egin nuen. Han ikasitakoa oinarri hartuta, noski, baina inprobisatzea gustatzen zait. Asko gozaten dut momentuan barrutik irteten zaidana jotzean.

### Musika kaxa deitzen da azken ikus-kizuna. Zertan datza?

Musika kaxa objektu bat moduan erabiltzen dugu. Ikus-entzuleak gura duena idazten du kontzertuan zehar eta gero guk mezu horiek irakurri egiten ditugu.

### Zeintzuk dira lotuta dituzuen hurrengo kontzertuak?

Apirilaren 2an Arrasaten joko dugu berriro eta bost egun beranduago, apirilaren 7an, Aretxabaletan egongo gara, Korrika Kulturalaren barruan. Mundumira jaialdian ere jotzeko aukera izan



Madariaga, Arrasateko gaztetxean.

dezakegu, baina oraindik ez dago erabat lotuta. Bestalde, martxoan diskoa grabatzeko asmoa dugu.

# Gaur jarriko dituzte salgai Pirritx, Porrotx eta Mari Motots ikusteko sarrerak

Udal Pilotalekuko leihatilan salduko dituzte, gaur eta bihar, 18:00etatik 22:00etara

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Aratusteak geroago eta gertuago daude eta egun horietan egongo diren hiru ekitalditarako sarrerak dagoeneko asteon hasiko dira saltzen.

Ohitura bihurtu da Aratusteetan Pirritx, Porrotx eta Mari Motots pailazo ezagunen bisita izango da eta sarrerak gaur, astelehena, eta bihar, martitzena, salduko dituzte, Udal Pilotalekuko leihatilan, 18:00etan hasi eta 22:00ak bitartean.

Aipatzekoa da gehienez sei sarrera hartu ahal izango dituela pertsona bakoitzak. Bestetik, sarrera guztiak egunotan agortuz gero, emanaldi egunean ez da leihatila zabalduko.

Pailazo ezagunak *Ongi etorri... Pupu eta Lore* ikuskizunarekin etorriko dira herrira Aratustezapatuan eta bi emanaldi egingo dituzte: bata, 16:00etan eta bestea,

18:30ean, biak ala biak Udal Pilotalekuan.

## Aratuste-kontzertua

Aratuste-egubakoitzean Udal Musika Bandak eta orkestra sinfonikoak egingo duten kontzerturako sarrerak ere gaur, astelehena, jarriko dituzte salgai. Honako lekuetan eskuratu ahal izango dira, 7 eurotan: kultura etxean eta Lazkano zapata denda.

Aratuste-egubakoitzeko kontzertua 22:30ean izango da, Udal Pilotalekuan eta aurtengo aukeratu duten gaia, *Orain dela 100 urte*. Bestalde, kontzertuan batuko den dirua Magali Muruamendiaren umeari laguntzeko bideratu dute.

## Mozorro afaria

Mozorro afaria ere egongo da Aratusteetan, zapatuan, hain justu ere, eta horretarako txar-



Eskoriatzan dagoeneko aurkeztu ditu Pirritxek bere bi ume txikiak, Pupu eta Lore. | JOSETXO ARANTZABAL

telak ere eskuragarri daude gaur, astelehena, hasi eta hilaren 27ra arte. Depor eta Ariznoa tabernetan eta kultura etxean eros daitezke, 15 eurotan. Norbaitek janari berezia behar izanez gero, horretarako aukera izango du kultura etxean hilaren 27a aurretik jakinaraziz gero.

## Erakusketa eta hitzaldia

Aratusteetako ekitaldi gehienak martxoaren 4tik 8ra bitartean izango diren arren, horren urretik ere badaude bi hitzordu. Alde batetik, otsailaren 25an, egubakoitzak, hasi eta martxoaren 13ra arte, euskal inauterien gaineko erakusketa egongo da ikusgai

Aroztegi aretoan, ohiko ordutegian. Beste aldetik, martxoaren 2an, *Inauteriak Euskal Herrian: tradizioaren forma berriak* delako hitzaldia egingo du Aitzpea Leizaola Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle eta antropologoak. Aroztegin izango da, 19:00etan.

## Agorrosin Ekintza Gunean spinning gelako bizikleta guztiak aldatu eta berriak jarriko dituzte

Aurrekontuetan 20.000 euroko diru partida aurreikusita dago gastu horri aurre egiteko

M.B. | BERGARA

Areto txirrinduko bizikleta guztiak aldatzeko asmoa dute Udal arduradunek Agorrosin Ekintza Gunean. 20.000 euro aurreikusita dituzte zeregin horretarako eta Martin Etxeberria Kirol zinegotziaren esanetan, ikasturte berrirako, hau da, irailerako,

bizikleta berriak Agorrosinen egongo direla ziurtatu duen arren, euren nahia da "txirrinduok ahalik eta azkarren ekartzea, ikasturte hasierari itxaron barik".

Bestetik, martxoaren 5ean, areto txirrinduko *master class* egongo da Agorrosinen. Izene-matea gaur zabalduko dute.

## OHARRAK

### KORRIKA BATZORDEAREN BIGARREN BATZARRA

Hilaren 22an, martitzena, batuko da Korrika Batzordea, kultura etxean, 19:00etan. Interesa duten guztiak daude gonbidatuta.

### INAUTERI-BAZKARIA SAN JOXEPEREKIN

Erretiratuen elkarteak urtero egiten duen moduan, Inauterimartitzenerako bazkaria antolatu dute. Bazkariaren ostean dantzaldia egongo da, egoitzan bertan. Izenez matea atzo ezkerro (eguna)

dago zabalik elkartearen bulegoan; martxoaren 3an itxiko dute.

### BETERANOEN LEHEN IRTEERA HILAREN 27AN

Pol-Pol mendi taldeak eta Gorla Alpino taldeak beteranoen lehen irteera egingo dute hilaren 27an. Goizeko ibilaldia hau da: Itziartik Madarixara. 08:00etan abiatuko dira, Fraisko zuritik. Txartelak dagoeneko salgai daude bulego ordutegian: astelehena, martitzen eta eguaztenetan, 18:45etik 19:45era.

AZOKA TXIKIA KALEAN

otsailak

25  
26



IZUGARRIZKO  
BEHERAPENAK

Musika Eskolako Gazte txarangaren emanaldia Bergarako kaleetan zehar.

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
Hizuntza Politikara

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Viceconsejería de Política Lingüística

# Etxebizitza sozialak errentan hartzeko eskaerak hilaren 28ra arte

- Udal bulegoetan entregatu beharko da dokumentazio guztia
- Bidebarrieta 24ko 2-B, 2-D eta 3-C etxeak emango dituzte

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Udalak Bidebarrieta kalean dituen zazpi etxebizitza sozialatik hiru errentan emango ditu. Interesatuak eskaerak aurkezteko epea zabalik dute hilaren 28ra arte, udal bulegoetan (09:00-14:00). Hain zuzen ere, errentan emango ditu Bidebarrietako 24. zenbakiko 2-B, 2-D eta 3-C etxebizitzak.

## Baldintzak

Etxebizitza sozialen alokairu prozesua arautuko duen baldintza plegua udal bulegoetan ikus daiteke. Dena den, interesatuak bete beharreko baldintzak

dira, besteak beste: azken bost urteotan Oñatin erroldatua egotea eta eskatzaileen eta bizikidetzaren unitatearen urteko sarrerak ezingo dira izan Lan-

DATUA

# 3

ETXEBIZITZA

Horiek dira udal errentan emango dituen etxeak, Bidebarrieta kalean.

bide Arteko Gutxieneko Soldata baino 1,7 aldiz handiagoak. Era berean, etxea galdu ondoren behin-behineko bizitokian egotea, jabetzan etxerik ez edukitzea, errentan bizi izatea, eta familiako beste kide batzuekin edo lagunekin bizi izatea ere hartuko dituzte kontuan.

Eskaerak aurkezteko epea bukatzen denean, eskatzaile bakoitzaren egoera puntuatuko dute, norberak dituen beharren arabera.

Udalak bost urteko kontratua sinatuko du egoera larrien duten hiru herritarrekin, eta errenta kopurua zehaztuko du

eurekin. Dena den, urtez urte, etxean bizi direnen egoera aztertuko dute, etxebizitza sozialetan bizi izaten jarraitzeko baldintzak betetzen dituztela zehazteko.

## Ettxeko gastuak

Bidebarrietako etxeak errentan hartzen dituenak hainbat bete-behar izango ditu bos urtetan; besteak beste, etxean bizi beharko du, ezin izango du obrarik egin etxe barruan Udalaren baimen barik eta etxeak sortutako gastuak –argia, ura, telefonoa eta gasa– berak ordaindu beharko ditu. Aldiz, etxearen mantenua Udalaren kontura joango da.

## Fruta, olioia, ogia, kakaoa, esnea eta ezta gosaltzeko

Bihotz Bizi elkarteak gosari osasungarrien kanpaina egin zuen Errekalde herri eskolan

M.B. | OÑATI

Gosari osasungarrien kanpaina heldu da Oñatira. Egubakoitzean Errekalde herri eskolako bosgarren mailako neska-mutikoei gosari eder eta dastatu zuten. Hain zuzen ere, esnea, kakaoa, ezta, indioilarra, fruta, ogia eta olioia jan zituzten eskolako jangelan. Modu horretan, goizero behar bezala gosaltzeak duen garrantziaz jabetzea lortu gura dute.

Mahaiaren bueltan jarri aurretik, informazio-bideo bat ikusi zuten Txirri, Mirri eta Txirribiton Junior taldeko kideen eskutik. Gosari osasungarri baten garrantzitsuak diren jakiak zeintzuk diren azaldu zieten, eta bakoitzak zertarako balio duen: zerealak gorputzaren gasolina dela, olioak gorputzeko atalak ondo koordinatzeko balio duela,

hobea dela fruta osorik jatea zukua egin ordez... Errekalde herri eskolako ikasleek euren esperientzia kontatu zuten. Gehienek 10 bat minutuan gosaltzen dute. Banaka batzuek ordu erdi inguru behar dute gosaltzeko, baina, euren esanetan, "oso motelak" direlako eta "ez asko jaten" dutelako.

Gosari osasungarrien kanpainak hauen laguntza izan du: Euskadiko Okindegien Federazioa, Eroski, Auzo Lagun, Gipuzkoako Poliklinika, Farmazialarien Euskal Elkarte eta Euskal Herriko Unibertsitatea.

## Elkar Hezin ere bai

Elkar Hezi ikastetxeak ere probatuko dituzte gosari osasungarriak. Hain zuzen ere, martxoaren 2an.



Errekalde herri eskolako ikasleak sagarrak jaten. | M.B.



MIREIA BIKUÑA

## Energia aurrezteko farola berriak

Energia aurrezteko eta kutsadura txikitzeko farola berriak jartzen dihardute Kale Barrian eta Kale Zaharrean. Guztira, 56 led bonbilla dituzten 43 farola berri jarriko dituzte. Orain arte –Foru plazatik Etxaluzeraino eta Kale Zaharrean– 250 wateko lanparak zeuden eta orain 72 watekoak jarriko dituzte. Energia aurrezteko planaren hurrengo pausoa koadro elektrikoak aldatzea izango da.

## Otsaileko eta martxoko antzerkietarako sarrerak salgai

Markeliñe –Uhartea ezezaguna– eta Makiescena –Ecografias– taldeek emanaldi bana egingo dute otsailaren 27an (Santa Ana antzokia, 17:00) eta martxoaren 4an (leku berean, 22:30ean), hurrenez hurren. Dagoeneko salgai dituzte sarrerak kultura etxean 3,5 eta 10 eurotan, egunero, 16:30etik 20:30era.

## Autoenplegu teknikaria kontratatu du Udalak sei hilabeterako

Udalak autoenplegu teknikaria kontratatu du, Enplegu Zerbitzuan dauden enpresa berriendako proiektuetan laguntza emateko. Horiei guztiei aholkuak eman eta bideragarritasun azterlana egiten lagundu die teknikari berriak. Sei hilabetez autoenpleguaren bidez ekimen berriak sortu gura dituzten herritarren zerbitzura egingo da hura.

## OHARRAK

### ERAKUSKETA

Karboniferoak, Euskal Herriko lehen basoak delako erakusketa ikusgai dago kultura etxean hilaren 27ra arte, 18:00etatik 20:00etara.

### HITZALDIA

Ingurumen Astearren barruan Iturrigorriko pagadiari buruz egingo dute berba hainbat herritarrek Natur Eskolan, 19:00etan.

### PLASTIKO BILKETA

Baserrian sortutako plastikoen urteko bigarren bilketa egingo dute bihar. Lau lekutan batuko dituzte plastikoak: Zañartun, Zuazolan; Murgian, Asentzio ermitaren ondoan; Olabarrietan, autobus geltokian; eta ETEO atzealdean.

### HITZALDIA

Natur Eskolako antolatuta baso zaharren garrantziaz egingo du berba Gipuzkoako Aldundiko teknikari Valentin Mugaritzak, 19:00etan, kultura etxean.

### ARETO-BIZIKLETA

Zubikoan egingo duten I. areto-bizikleta maratoirako izenematea zabalik dago hilaren 23ra arte. Bailarako kirol zerbitzuetako bazkideek 12 euro ordaindu beharko dituzte eta gainerakoek, 18 euro. Hiru orduko saioa egingo dute.

### HITZALDI TAILERRA

Elkar Hezik antolatuta, Izar Mendia psikologoak frustrazioaren gainean egingo du berba hilaren 24an, 18:30ean.

### IPIUIN KONTAKETA

Zurumuru taldeak ipuin kontaketa saioa egingo du hilaren 24an haur liburutegian, 18:00etan.

### ZINEKLUBA

Hilaren 24an Louie Psihoyos zuzendariaren *Oceanos* pelikula emango dute zineklubean, 20:00etan, kultura etxean.

### HITZALDIA

Zuhaitzak babesten aitzindari delako solasaldia egingo du Juan Tomas Alcalde biologoak egubakoitzean, 19:00etan, kultura etxean.

## 'Txori metereologoa' musikalerako sarrerak kultura etxean

Ganbara Txikitxoak abesbatzak Josu Elberdinen *Txori metereologoa* delako musika egingo du martxoaren 6an Santa Ana antzokian –iaz *Jostailugilea* musikala egin zuten–. Emanaldi bikoitza egingo dute: 17:00etan eta 19:00etan. Sarrerak kultura etxean eros daitezke bost eurotan.

## ESKORIATZA

# Aizkorri-Aratz parkearen gaineko kezkak argitu barik geratu dira

Parkearen zuzendariaren azalpenak entzun gura zituzten herritarrez gainezka egon zen kultura etxea, baina gehienak ez ziren gustura atera

MIRARI ALTUBE | ESKORIATZA

Aizkorri-Aratz parkeko zuzendari Iraitz Zubeldia izan zen egue-nean, hilak 17, Eskoriatzan, parkearen gaineko kezkak argitzen. Txiki geratu zen kultura etxearetoa eta 20 bat lagunek kanpotik jarraitu zuten.

Auzo-alkateak ere izan ziren azalpenak entzuten; tartean, Mendiolako Iñaki Madinabeitia, Leteko Bernabe Aperribai eta Bolibarko Iñaki Kortazar. Haien esanetan, kontua zelan dagoen jakiteko izan zen batzarra, eta eskaera batzuk bideratzeko: "Mapa egiteko eskatu genuen, zein lur dauden barruan eta zein ez jakiteko". Hori bai, kontu asko daukela oraindik argitzeko diote, eta erantzun garbirik ez zutela jaso batzarrean.

## Zuhaitza mozteko baimena

Parkearen erabileraren kudeaketa arautzeko plana da aztergai dagoena eta gero onartu egingo dute. Auzo-alkateek uste dute xehetasun asko lotu barik daudela eta beste



Aretoa bete-beteta parkeko zuzendariaren hitzak entzuteko zain. | M. BITERI

askok ez dutela zentzurik: "Egurra kasuan, esaterako, norberaren lurretan zuhaitz bakarria botatzeko ere baimena eskatu beharko diogu basozainari. Hark ezetza emanez gero, baimen eskaera erakundetara egin beharko da. Zeinek bideratu hori? Zenbat luzatu?". Basoko bideekin eta ganaduekin sortutako kezkak ere ez zutela behar

bezalako erantzunik jaso uste dute: "Ganadua lur pribatueta bakarrik ibil daitekeela diote, baina publikora badoa, zer? Eta basoko bideak norberak zaindu behar ditu; zeinek zehaztu zein den publiko eta zein pribatu?".

Madinabeitiaren ustetan, baserritarren eta baso-esplotazioen ikuspegi edo filosofia

**ESANAK**

**"Parkearen antolamendua beste filosofia batekin egin beharra dago, ez bakarrik arauak ezarrita"**

IÑAKI MADINABEITIA | AUZO ALKATEA

barik egin dute parkearen kudeaketa arautzeko plana, eta hori da "larriena": "Parkearen antolamendua beste filosofia batekin egin behar da, ez bakarrik arauak eta debekuak ezarrita".

Planak kontu asko dituela garatzeko ikusi zuten batzarrean elkartutakoek, baina, askoren iritziz, "hainbeste antolaketa eta arauarekin ez da ikusten ezer garatzeko biderik".

## ARETXABALETA

## Aurten ez dute egingo koadrilen arteko bazkaririk Aratuste-domekan

Azken urteotan pilotalekuan egin dute, eta han egiten duen hotza da arrazoia

M.A. | ARETXABALETA

Aratusteak gertatzen dabil Kultura Saila, eta dagoeneko hautatu du jaiak iragarriko dituen kartela. Zortzi lan aurkeztu ziren, eta Izaro Sanchez aretxabaletarrarena izan da, epaimahaiaren ustez, politena. Horrek emango die herritarrei Aratusteetako egitarauaren berri.

## Txapel Txin eguna

Lehenago, baina, otsailaren 26an, hain zuzen, Txapel Txin eguna egingo dute koadrilek, Aratusteak

girotzen hasteko. Azken urteotan antolatzen duten jaiak txapelak jantzita ospatuko dute herritarrek, eta torrada lehiaketa –eta gero dastatzeko txistorra eta sagardoarekin batera–; Bapatean zirku taldearen *Trastu biziak* izeneko kalejira; eta Aratusteetako pregoia izango dira.

Martxoaren 4an, egubakoitza, ostera, Leizarra musika eskolako ikasle eta irakasleek *Karnabal jai* kalejira eskainiko dute, musikak eta dantzak bat egingo duten ikuskizuna.

## Herri bazkaririk ez

Aratuste-domekan, martxoak 6, mozorrotutako koadrilak izango dira protagonista, eta txarangak girotuta kalejira egingo dute. Aurten, baina, ez da egongo herri bazkaririk; azken urteotan Iturri gorri pilotalekuan egin izan dute –arrakasta handiz egin ere– eta koadrilek diote hotz handia pasa zutela iaz bertan, nahiz eta berotzeko ahalegina egin, eta kexa asko jaso zituztela.

Aratuste-martitzenean, ostera, umeez egingo dute kalejira



Izaro Sanchez, kartelarekin. | KULTURA SAILA

goiz partean, eta arratsaldean, musika plazan, buruhandiak eta Txin-en hiletan izango dira Aratusteak agurtzeko.

## ESKORIATZA

## Kudeatzaile-erizaina gura dute zaharren egoitzarako

M.A. | ESKORIATZA

Zaharren egoitzan kudeatzaile lanak egingo dituen erizaina hartu gura dute. Haren eginkizunak hauek izango dira: erizain lanak egitea; zentroaren eguneroko jarduna antolatzea; administrazioaren eta patronatuko juntaren aurrean harremanetarako pertsona izatea; kontabilitateari dagozkion dokumentuak antolatzea; urteko kontuak egitea; zentroko zerbitzu guztiak antolatzea eta jarraipena egitea; eta zentroko langileen lana koordinatu eta gainbegiratzera.

Eskatuko dutena da erizaintzan diplomaduna izatea eta euskaraz jakitea (EGA). Eta baloratuko dute antzeko lanetan jardundakoa izatea. Lan kontratu mugagabea izango da, lan jardun osoarekin. Interesatuak zaharren egoitzara (Gaztañadui kalea 22) bideratu behar dituzte curriculumak otsailaren 28rako (10:00-18:00).

## Diru-batze kanpaina

Zaharren egoitzaren ardura duen patronatuak *Salba dezagun zaharren egoitza* diru-batze kanpaina jarri du abian, 345.000 euro inguruko zorrari aurre egiteko. Herritarrei horren gaineko argibideak emateko batzarra egingo du gaur, astelehena, (19:30) zaharren egoitzako kaperan.

## Korrika Batzordeak batzarra egingo du bihar (19:00)

Eskoriatzako Korrika Batzordea dagoeneko eratu da eta lanean dabil Korrika 17ren bueltan herrian egingo diren ekimenak antolatzeko. Lehenengo lana proposamenak jasotzea izango da, eta horretarako batzarra bihar egingo dute, hilak 22, kultura etxean (19:00).

## OHARRAK

### 'EL PROBLEMA' FILMA

Iesbaa elkarteak antolatuta sahararren giza eskubideen urraketen berri ematen duen *El Problema* filma emango dute bihar, Arkupen (19:00).

### EZKER ABERTZALEKOAK ARGIBIDEAK EMATEN

Ezker Abertzaleko kideak hauteskundearen gaineko argibideak ematen egongo dira eguaztenean, Mitarte kalean (18:00-20:00).

### BERTSO AFARIRAKO TXARTELAK SALGAI

Egubakoitzean Hibaik Gain elkartean egingo duten bertso afarirako txartelak erosteko azken eguna eguaztena da. Loramendin eta Gurea tabernan dituzte.

### ZERO ZABOR TALDEKOAK ARGIBIDEAK EMATEN

Zaborraren kudeaketaren gaineko argibideak emango ditu Zero Zaborrek domekan, plazan (19:00).

## Film emanaldia eta dantza ikuskizuna antolatu ditu Jaikik

M.A. | ARETXABALETA

Jaiki elkarteak *Memoria de una hija de Oshun* filma eman eta dantza ekitaldia egingo du martxoaren 4an Arkupen (19:00). Magdalena Milano dantzari eta irakasleak bideratuko du dantza ekitaldia.

Jaikik urteak daramatza munduko dantzak ikasten Mila-

norekin. Kultura aniztasuna bultzatu nahian filma emango dutela diote kideek: "Hego Amerikako herrialde bateko errealitatea islatzen du: esklabotza XX. mendean eta kultura afroaraguiarra: Candombe musika, erlijioa eta Afrikako jatorria dutenen elkarte aldarrikatzaileak".



Hirusta  
Jatetxea

Ilargi plaza 4  
943 79 06 57  
ARETXABALETA



Elgetako udal kiroldegia eta kanpoko kantxa. | L.Z.

**ELGETA**

## Kirol instalazioak hobetzea eta kirol praktika sustatzea eskatu dute herritarrek

Eskola kirola indartzea, oinezkoendako eta bizikletendako ibilbideak egitea eta kiroldegian lanak egitea jasotako proposamenen artean

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

*Elgeta 2020* prozesuan kirola ere hizpide izan zuten parte-hartzaileek. Herritarrek egindako bilera irekietatik, batzar sektorialetatik zein kirol forotik hainbat proposamen irten dira.

Kirol instalazioak zaharkituta gelditu direla eta hobekuntzak egiteko beharra nabarmen geratu da. Egindako eskaeren artean daude kirol zerbitzu guztiak kirolgunean zentralizatzea; gelak erabilera anitzeko irizpidez eraberritzea; kanpoko kantxa argiztatzea, estaltzea zein lurra berritzea; eta Aixolaruntz dagoen aldatzean hesia ipintzea.

**Igerilekua**

Proiektu horren inguruko bidegarritasun azterketa egiteko eskaera egin dute herritarrek. Kirol foroan parte hartu zutenen

iritziz proiektua ez da bideragarria, baina bada igerilekua Asentzión egiteko proposamena bota duen herritarrik ere.

Beste parte-hartzaile batzuk laguntzak eskatu dituzte Bergaroko igerilekura jaitsi ahal izateko, eta besteak beste garraioa errazteko. Erretiratuendako ikastaroa berriz antolatzearen aldekoak ere agertu dira. Kolektibo honekin lotuta erretiratu gazteen azterketa sakona egiteko proposamena ere jaso da; helburua litzateke interesak ezagutzea kirol praktika bultzatzeko.

**Bidegorriak eta ibilbideak**

Oinezkoendako zein bizikletendako ibilbideak egiteko proposamena ere jasota dago *Elgeta 2020* txostenean. Norberak bere neurrian, adin guztietako herritarrek jarduera fisikoa praktikatzeko

aukera emango dutela uste du batek baino gehiagok. Kiroldegitik abiatu daitezkeela proposatu zuten herritarrek; Pagatza industrialderakoa izan daiteke bat, eta horri jarraipena emanez Bizkaia aldera luzatu "aldaparik ez dagoelako". Mendi bizikletendako ibilbideak markatzeko ere eskatu dute.

**Eskola kirola**

Gehienbat kirol foroan haur eta gazteen artean ere kirol praktika sustatu beharra dagoela azpimarratu zuten. Eskola kirola izan daiteke horretarako bidea euren ustez; eskola kirola indartzeko eta erakargarriago egiteko beharra ikusten dute. 12-18 urte bitarteko gazteen artean, berriz, kirol jarduera sustatzea ezinbestekoa dela uste dute. Gainera, autogestioa bultzatuz.

nen ondorioak eta behin betiko sistema azalduko dira.

Debagoieneko Mankomunitateak eta Antzuolako Udalak abian jarri berri dute etxeko konposta bultzatzeko kanpaina. Ahalik eta antzuolar gehien auto-konpostatzen hastea da helburua eta, bide batez, atez ateko bilketa selektiboa erraztu eta azkartzea. Horretarako doako konpostaje ikastaroa antolatu dute. Ikastaroa egiten dutenek %20ko bonifikazioa izango dute hondakinen tasan. Ikastaroan izena emateko azken eguna gaur da, otsailak 21. Izena emateko, deitu 900 701 087 doako telefonora edo mezua bidali: [atezate@debagoiena.com](mailto:atezate@debagoiena.com).

**ANTZUOLA**

## Piolet eta kranpoi ikastaroan izena emateko aukera eguaztenean

Pirinioetako Bisaurinen egingo du Arrolak ikastaroa martxoaren 26an eta 27an

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Arrola mendizale taldeak antolatu du mendian neguan ibiltzen trebatzeko ikastaroa. Martxoaren 26an eta 27an izango da Pirinioetako Bisaurin mendiaren inguruan eta izenematea datorren eguaztenean egin ahal izango da, otsailaren 23an, 19:15etik 20:15era, Olaran etxeko 3. gelan.

Gehienez, 12 lagunek eman ahal izango dute izena eta erreserba ordaindutakoan ziurtatuko da. Lehentasuna izango dute Arrolako bazkideek.

**Atez atekoaren ondorioak**

Bestalde, gaur, astelehena, 18:30ean, Torresoroan, atez atekoaren gainean jasotako ekarpe-

**ARAMAIO**

## Euskadiko Open BTT lasterketa martxoaren 13an jokatu da aurten

Barajuen auzoan egokituko dute zirkuitua, itzuli bakoitzean bost kilometro egin beharko dituzte

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Euskadiko Open BTTko lehen lasterketa Aramaion egingo da aurten. Hau da, Euskadiko Txirrindularitza federazioak urte osoan zehar aintzat hartzen dituen zortzi lasterketatik lehen Aramaion jokatu da.

Urtez urte Euskadiko txirrindulari onenak etorri izan dira, baina aurten kontuan izan behar da, lasterketaren antolakuntzan aritzen den Martin Arriolabengoak jakinarazi duenez, asteburu horretan bertan Balear uharteetan Europa mailako proba bat jokatu da. Horregatik, akaso, ez dira elite mailako onenak egongo. Oraindik, baina, goizegi da onenak faltako direla ziurtatzeko.

**Zazpi kategoria**

Izenematea eta antolakuntzaren gunea Azkoagan jarriko dute. Federazioak izena emateko aukera ematen du aurrez baina txirrindulari gehienak egunean bertan ematen dute izena. Garrantzitsuenak, hots, zirkuitua, Barajuen auzoan egokituko dute. Bost kilometro inguruko luzera izango du; antolatzaileek espero dute eguraldia lagun izatea, hasierako ibilbidea mantendu ahal izateko.

Zazpi maila izango dira: elite, 40 urtetik gorakoak, 30 urtetik gorakoak, 23 urtetik behar-koak, junior, kadete eta emakumezko elite maila. Azken bi urteetan Ismael Esteban izan da jaun eta jabe, elite mailan.



Iazko probaren une bat, Arrixolan. | GOIENA

**LEINTZ GATZAGA**

## Inauterietako afarirako izenematea zabalik dago

Gaur, oster, Korrika Batzordea elkartuko da kultura ekimenak antolatzen hasteko

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Kultura Sailak gertu dauzka martxoaren 5eko ekitaldiak eta horien artean herri afaria dago. Aurten Soran hotelean egingo dute, eta afalostea girotzeko musika izango da. Inauterizapatzeko afarira joan gura dutenek otsailaren 28rako eman behar dute izena Soranen bertan. Kultura Saileko ordezkariak gogorarazi dute, gainera, derri-gorrez mozorrotuta joan beharko dela afari horretara.


**Korrikako batzarra gaur**

Bestalde, gaur, astelehena, Korrika Batzordea elkartuko da kultura etxean (19:00). Dagoeneko hirugarren batzarra da eta orain arte botatako proposamenak eta antola daitezkeen ekimenak zehazten joango dira.

Gatzagako Korrika Batzordea zortzi bat lagunek osatu dute, eta Korrikako arduradunekin batera batzarretan elkartzen dira udal ordezkariak, Sarginak emakume elkartekoak, Gurel guraso elkartekoak eta herriko enpresa eta ostalaritza zerbitzuetako hainbat ordezkari. Gatzagak lau kilometro ditu, Marulandan hasi eta Arabako mugaraino, eta kilometro horiek guztiak erosteko dirua zelan batu pentsatzen jardun dute orain arte. Herrian antola daitezkeen proposamen batzuk ere jaso dituzte, tardean afaria egitea.

Horiek guztiak zehazten hasiko dira gaurko batzarrean, eta laster Korrika Kultural barruan antolatuko diren ekimenen berri emango dutela jakinarazi dute Debagoieneko Korrikako arduradunek.

## Gremioen gida



## Jatetxeen gida



# NEGOZIOA BADAUKAZU, BAINA INORK EZ BADAKI?

Eman ezagutzera zure negozioa Debagoieneko gidetan.

## Osasun zerbitzuen gida



## Profesional liberalen gida



Iragarkia jartzeko,  
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

# KIROLA

OHOREZKO ERREGIONALA

## Aloña zulotik apur bat urrunago dago, eta Mondra apur bat gertuago

- ▶ Garrantzia handiko hiru puntuak etxean gelditu ziren
- ▶ Mondrak joko txukuna egin arren, hutsak ere egin zituen

EMAITZA

ALOÑA-MENDI

# 2-0

MONDRA

MIREN ARREGI | OÑATI

Lehen zatiko 35. minutuan etorri zen Agirreren eskutik, partiduko lehen gola. Aloñak, horrela, partidua menpean hartu zuen eta Mondrak azken asteotako joera kaxkarra jarraituz ez zuen golik egiterik lortu: "Aukerak izaten ditugu baina ez dugu golik sartzen eta hori arazo larria da", zioen Mondrako entrenatzaile Iban Rodriguezek atsekabaturik partidua bukatzean.



Mikel Palacios Aloñaren lehen gola ospatzen; atzean Mondrako jokalaria atsekabaturik. | JOSETXO ARANTZABAL

Lehen zatian oso pareko aritu ziren bi taldeak. 15. minutuan etorri zen partiduko lehen gol aukera, etxeko taldeko Bernalek area ertzean falta arriskutsu bat egin ostean. Mondrak, baina, ez

zuen aukera hura aprobetxatzen jakin. Horrela egin zuen lehen zatiak aurrera, Aloñak gola egin arte. Kasu honetan, gainera, esan behar da, Mondrako atezaina ez zela batere fin ibili: "Golak opa-

ritu ditugu", adierazi zuen Mondrako entrenatzaile Rodriguezek. Atsedenaldira, beraz, 1-0eko emaitzarekin egin zuten. Bigarren zatian, partidua erabakitzeaz gainera, finago ibil zen Aloña.

### FITXA TEKNIKOA

**Aloña-Mendi:** Aginagalde, Bernal (Ruiz 45. min), Igartua, Idigoras, Palacios, Arregi (Moiua 70. min), Zubia, Agirre (Urkia 60. min), Juaristi, Martin (Carpintero 75. min)

**Mondra:** Ruiz de Azua, Loiti, Etxeberria, Merkader, Tena, Garin, Lopez, Pavon (Crespo, 70. min), Muruamendiaraz, Aizpurua (Ormaetxea, 75. min), Andres

**Epailea:** Ordoñez jaunak zuzendu zuen partidua. Agirre eta Lasarte izan ziren laguntzaileak.



Mondra erasoan, Arrasatetik joandako zale gazteen bultzadaz. | J.A.



Iker Lopez jaurtiketa egiten. | J.A.



Idigorasek egin zuen bigarrena. | J.A.

OHOREZKO ERREGIONALA

## Aretxabaletak 0-1 menderatu zuen Berio

Nahiz eta partidua kontrolpean izan, 3 puntuak lortzeko bukaera arte sufritu zuten

**ANDER MONEDERO** | ARETXABALETA  
Donostiatik Aretxabaletara hiru puntuak ekarri zituen domeka arratsaldean UDAk. Juanan Cruzen mutilek 25. minutuan sartutako golari esker mendean hartu zuten Berio futbol taldea.

Partidua lo hasi zuten UDAkoek, baina 15. minututik aurrera esnatu eta hortik aurrera

partidu serioa jokatu zuten. Ibarako taldea seriotasunez jokatzen hasi eta berehala, Aritzek gola sartu zuen, eta horrek bideratu egin zuen Ibarako mutilen garai-pena.

Gola egin eta partidua aldatu egin zen: UDAk defentsan oso zuhur jokatu zuen eta Donostia-ko taldea ideia gabe geratu zen,

batez ere erasoan. Donostiakoek aurrera egiteko zuten modu bakarra joko zuzena egitea zen, baina horrek ez zion Aretxabaletari inolako buruhausterik sortu.

Bigarren zatian gauzak antzera joan ziren bi taldeentzat. Zelaian ondo kokatuta irten zen Aretxabaleta eta Berio, berriz, ezinean. Donostiako jokalariek baloi luze-

ko jokaldiekin jarraitzen zuten berdinketaren bila. Aretxabale-tarrak, berriz, kontraerasoan bigarren gola egiten saiatu ziren baina ez zituzten izandako bi aukerak aprobetxatu eta bukaera arte sufritu zuten hiru puntuak eskuratzeko.

### 12 puntutik 8 lortu

Juanan Cruzek UDAko aulkian Barrutiaren lekua hartu duenetik Aretxabaletak ez du partidurik galdu. Lehenengo bi partiduak Ordiziaren eta Bergararen aurka

berdindu zituen eta hurrengoak, Tolosaren eta Berioren aurka irabazi. Aretxabaletarrek 40 puntu dituzte eta sailkapenaren bosgarren postuan jarraitzen dute, laugarren dagoen Anaitasunatik 5 puntutara. Nahiz eta azkenaldian emaitza onak izan, denboraldi hasierako helburuak urrun jarraitzen du.

Hurrengo jardunaldian ere, etxetik kanpo jokatu du Aretxabaletak, jaitsiera postuetan dagoen Idiazabalen etxean egin-goto dute.





Lokatza Ziklismo Eskolako txirrindulari, entrenatzaile eta zuzendaritzako kideak, zapatuan egindako aurkezpen ekitaldian. | XABIER URTZELAI

# Beste aurrerapauso bat egin asmoz aurkeztu da Lokatza

- ▶ Gazte mailako taldea estatu mailako lasterketan egongo da aurten
- ▶ Hamar lasterketa, zikloturista proba eta mtb irteera antolatuko dute

XABIER URTZELAI | BERGARA

Azken urteotan detaile txikienak ere zaintzen dituen taldea da Lokatza, eta txirrindulariek, zaleek –eta kazetariak– eskertu egiten dute hori. Fundamentuzko denboraldi batek halako aurkezpena behar du, eta zapatuan eguraldiak ere lagundu egin zuen horretan, eguerdian ez zuelako euririk bota. Herritarren aurrean aurkeztu zituzten ziklista guztiak, banan-banan, txalo artean; hementik aurrerako txaloak, ordea, errepideko kilometro bakoitzean irabazi beharko dituzte ziklistek.

Lokatzak, maila eskolarretik hasita, 29 ziklista izango ditu aurten. Infantil mailan bederatzik ordezkaritza izango dituzte, eta Unai Martinez eta Kepa Varela izango dira zuzendariak. Kadeteen ardurara, berriz, Jon Unamunok izango du, eta zazpi ziklista izango ditu bere agindupean. Eta azkenik, klubeko nagusiak izango dira gazte mailakoak (ziklisten zerrenda osoa [goiena.net](http://goiena.net)-en). Aurten ere Iker Sanchez arduratuko da Telleriak, Etxabe anaiek, Lizarralde, Orobengoak, Aristik eta konpainiak duten onena ateratzen. Hain zuzen, iaz egin zuen lan

DATUA

# 27

ZIKLISTA

Lau zuzendari arduratuko dira taldeak izango dituen 27 ziklistekin lan egiteaz.

onagatik Mikel Aristik izango du aurrean ibiltzeko ardura handiena, baina lana talde osoarena izango da; iaz lasterketa askotan

talde onenaren saria irabazi zuten: "Aurten estatu mailako hainbat lasterketan egoteko gonbidapena jaso dugu, eta zergatik ez, Euskal Herri mailan erreferente izatea da beste helburuetako bat", adierazi zuen Iker Sanchezek.

## Zikloturistekin bateratuta

Bestalde, hainbat batzar egin eta gero Bergarako Txirrindulari Elkartekoak Lokatzako kide izatera pasa dira. Hori bai, araudi berriak tarteko oraindik ez dago zehaztuta Bergarako 5+3 zikloturista proba antolatu ahal izango duten, maiatzaren 1ean.



**MIGEL ANGEL LARRAÑAGA**  
PRESIDENTEA


**"Euskal Herriko taldekako erlojupekoa antolatzea erronka da"**

**Konturatu orduko denboraldi berri baten hasieran gaude berriro. zer eskatzen diozue urteari?**

Gutxienez iazko denboraldiaren parekoa izatea. Iaz oso gustura geratu ginen, bai ziklistek egin zuten lasterketekin, eta baita klubak antolatu zituen lasterketa eta probekin ere. Aurten ez dadila gutxiago izan.

**Iaz proba dezente antolatu zituen Lokatzak.**

Bai, guztira hamaika lasterketa eta zikloturisten eta mendiko bizikletako martxa antolatu genituen. Aurten lasterketaren bat gutxiago egingo dugu, baina berritasunak ditugu, tartean Euskal Herriko txapelketan taldekako erlojupeko proba antolatuko dugulako [ekainean]. Gureta-ko erronka handia izango da, zirkulazioa eten behar denez antolatzeko proba zaila delako. Hala, federazioko teknikoei aholkua eskatu nahi diegu, herri inguruan antolatu nahi dugun proba delako.



**MIKEL ARISTI**  
GAZTE MAILAKO ZIKLISTA

"Egia esan iaz gauzak ondo irten zitzaizkidan, eta aurten lan handia egin beharko dut iazko garaipen kopurua errepikatzen. Printzipioz hori da aurtengo helburuetako bat, eta horretarako ari gara lanean".



**JON ARANTZABAL**  
GAZTE MAILAKO ZIKLISTA

"Ziklismoa utzi egin nuen gazteago nintzenez, aspertu egin nintzelako lantegi ingurueta lasterketak egiteaz. Gogoz itzuli naiz, baina badakit kilometroak falta zaizkidalako hanketan; probak amaitzea da asmoa".



**JULEN IRIZAR**  
KADETE MAILAKO ZIKLISTA

"Lasterketetan aurrean ibiltzea da aurten nahi dudana, eta posible bada podium batera igotzea. Ibaetan egingo dugu lehen lasterketa, baina niri etxeko probak gustatzen zaizkit, Bergarako eta Oñatikoa".



**IKER SANCHEZ**  
ENTRENATZAILEA

"Iaz beldur gabe hasi genuen urtea, eta aurten beste horrenbeste egingo dugu. Ikasten jarraitzea da gure helburu nagusia, baina ondo dakigu aurten talde sendoa dugula eta lasterketetan aurrean ibili nahi dugula".

## TRIASINA

# Lokatzak zaildu egin zuen berez erraza den proba

Jon Areitio izan zen onena, Benito Ros kanporatuta geratu ostean

XABIER URTZELAI | ARETXABALETAKO

Antolatzaileek eurek adierazita-koaren arabera, Aretxabaletako trialsin zirkuitoa –Gipuzkoako txapelketarako puntuagarria–, berez, erraza da, beheko zatia teknikoa den arren. Baina, urtero euriak zaildu egiten du proba "Lokatzak dagoeneko gure probaren bereizgarri bilakatu da", adierazi du umorez Javier Zunzunegik. Izan ere, zapatuan botatako euriak lokatzu egin zuen zirkuituko goiko aldea, gehienenez gozameneko.

Elitean Hondarribiako Jon Areitio izan zen onena, zazpi aldiz munduko txapelkun izan den Benito Rosek ez zuelako zirkuitua garaiz egin. Gazte mailan, berriz, Logroñoako Andoni Asenjo gailendu zen, infantiletan Sergio Fernandez eta emakumezkoetan Itziar Murua aretxabaletarra.

## Ikusle asko

Domekako giro onari esker asko izan ziren proba ikustera gerturatu zirenak. Horrekin batera, herriko gaztetxo askok probatu zuten trialsina, antolatzaileek jarritako bizikletei esker.



Zirkuituko beheko partea teknikoa zen, eta goiko zatia lokatzuta egoteak asko zaildu zuen proba. | ARGAZKIAK: JOSETXO ARANTZABAL



## ERRUGBIA

JOSETXO ARANTZABAL

## Arrasateko mutilek lider jarraitzen dute

Arrasateko gazte mailako taldea lider dago, eta horrek daukan indarrak baliaturik partidu bikaina egin zuten zapatuan. Baztanek ez zuen erantzuteko modurik izan, 76-0 emaitza borobilarekin irabazi baitzuten etxekoek. Txapelketaren bigarren fase honetan ere indartsu jarraitzen dute eta tinko eusten diote sailkapenaren gailurrari. Ligako itzuli honetako partidu guztiak irabazi dituzte eta momentuz, gazte mailakoek ez dute punturik oparitzeko asmorik.

## ESKUBALOIA

## Galdu arren bigarren postuan jarraitzen dute

I. GALLEGO | ARRASATE

Edu Orgazen mutilek ezin izan zuten Askartzarekin. Oso partidu berdindu baten ostean, gol bakarrarengatik (32-33) galdu zuten Iturripeko kantxan. Askartza hirugarren sailkatua izan arren ez zuen amorerik eman eta partiduan erakutsitako grin horrek emaitza oparoak eman zizkien.

Gauzak horrela, etxekoek bigarren postuari agur esan ez dioten arren, lehen sailkatuak partidu bateko aldea ateratzen die orain arrasatearrei.

Hurrengo astean Orgazen mutilek azken sailkatua den Urola Lastiren kontra jokatuko dute eta sailkapeneko lehen postuei eutsi ahal izateko nahia ez irabazi beharko dute.

## SASKIBALOIA

## Arerio zuzenen aurka galdu dute Sustrai Aloñak eta MUK

ANDER MONEDERO | ARRASATE

Debagoieneko taldeek ezin izan zuten etxetik kanpo ziztuzten partidak irabazi. Easok 76-59 irabazi zion Sustrai Aloñari eta Urdanetak 75-70 MUKi.

Bi taldeek aurkari zuzenen etxean jokatu zituzten partidak. Ligako bigarren fasean, igoera eta jaitsiera taldeetan dauden arerioen kontrako partidek bakarrik balio dute puntuatzeko eta aste honetan biek kale egin dute.

Sustrai Aloñak ezin izan zuten ezer egin liderraren etxean eta 17 puntu azpitik bukatu zuen partida.

Nahiz eta MU jaitsiera faseko lider izaten jarraitu, porrot honen ostean, asko estutu da behe aldeko sailkapena.

# Andaluziako Itzulian, ehunen gutxigatik ez du irabazi Irizarrek atariko erlojupekoa

"Proba hasi aurretik banekien ez zela niretako moduko ibilbidea; pena galanta hartu dut gero"

**XABIER URTZELAI** | ARRASATE  
Erlojupeko probetan disgustu bat baino gehiago hartu du Markel Irizarrek -baita poztasun galantak ere-, azkena atzo arratsaldean. Izan ere, Andaluziako Itzuliko atariko proban (6,8 kilometrotako erlojupekoa) Oñatikoak indartsu dagoela erakutsi zuen, lehenengo postuan egon zen-eta probaren zati handian. Azken unean, baina, eta ehunen gutxiko aldeagatik Jimmy Engoulvent frantziarrak etapa garaipena eskue-

tatik kendu zion Irizarri: "Lehenengo disgustua erlojupekoa zelakoa zen ikusitakoan hartu dut, ibilbidea ez zelako niretako batere aproposa. Txanda amaitutakoan pentsatu dut gutxienez 20 ziklista geratuko zirela nire aurretik, baina probak aurrera egin ahala ikusi dut ezetz, aurrean jarraitzen nuela, ehunen gutxi batzuegatik bigarren geratu naizen arte. Pena hartu dut, denboraldia etapa garaipen batekin hasteak moralki izugarritzko inda-

rra emango lidakeelako. Hala ere, aurrean gara, eta sentsazio onak ditut; garrantzitsua da hori".

Hala ere, erabateko gorpuzaldi onean egon barik sailkapenean aurrealdean ibiltzea ez da gauza makala: "Aurrerago egon behar dut nik ondo, hori da asmoa, horregatik ez nuen espero gaur aurrealdean ibiltzea baina egia da azken astean oso ondo entrenatzen ibili naizela. Ea itzuli txukuna egiten dugun".

## Espezialisten arteko lehia

Andaluziako Itzuliko lehen proban pare-parean egon ziren indarrak erlojupeko espezialisten artean. Radioshack taldekoak eta Saur Sojasun taldekoak ibili ziren zein baino zein gehiago, eta azken horiek nagusitu ziren. Radioshack taldeak Irizar bigarren izan zen, Leipheimer laugarren eta Ivan Rovny hamargarren. Saur Sojasun taldean, berriz, Engoulvent izan zen garailea, bosgarren izan zen Jerome Coppel eta seigarren sailkatu zen Paul Poux.

Andaluziako Itzuliko bigarren etapak 161 kilometro izango ditu, Almuñecar (Granada) eta Adra (Almería) artean, eta txirriindulariek tartean hiru mendate gainditu beharko dituzte.



GIMNASIA ERRITMIKOA

JOSETXO ARANTZABAL

## Gimnasta asko, ikusle gehiago

Zapatu goizean Eskolarteko B mailako txapelketa jokatu zuten Debagoieneko gimnastek Bergarako Labegarietan. Partaidetza handia izan zen; tartean, Arrasate Dragoi Gimnasia Taldeko eta Bergarako Ariznoa Taldeko neskek parte hartu zuten. Azken talde horri dagokionez, alebinetan, bi talde izan ziren; batak lehen postua lortu zuen, eta, besteak hirugarrena.

## Maialen Axpe arrasatearrak 3,83 metroko saltoa egin eta errekorra lortu du Euskadiko txapelketan

Maialen Axpek Euskadiko errekorra hautsi zuen zapatuan Anoetan jokaturako Euskadiko txapelketan. Zentimetro batean hobetu zuen junior kategoriako aurreko markarik onena, Olatz Alkainek eginakoa. Bestalde, Valentzian jokaturako Espainiako txapelketan, Jonathan Perez seigarren geratu zen, 4,90 metroko saltoa eginda.



Irizar, atzo, erlojupekoaren hasieran. | BOSCO MARTIN (WWW.CYCLINGNEWS.COM)

## FUTBOLA

### ERREGIONAL OHOREZKO MAILA

#### EMAITZAK

Aloña Mendi-Mondra	2-0
Hondarribia-Real Union	0-4
Trintxerpe-Anaitasuna	2-0
Roteta-Aurrera	0-3
Zumaia-Ordizia	6-0
Oiartzun-Hernani	0-2
Bergara-Pasajes	1-4
Tolosa-Idiazabal	2-0
Berio-Aretxabaleta	0-1

#### SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1 Hernani	51	23
2 Pasajes	50	23
3 Real Union	49	23
4 Anaitasuna	45	23
5 Aretxabaleta	40	23
6 Bergara	36	23
7 Oiartzun	36	23
8 Tolosa	35	23
9 Aurrera	34	23
10 Trintxerpe	31	23
11 Berio	27	23
12 Hondarribia	26	23
13 Mondra	25	23
14 Aloña Mendi	23	23
15 Idiazabal	19	23
16 Roteta	18	23
17 Ordizia	17	23
18 Zumaia	15	23

#### HURRENGO JARDUNALDIA

Aloña Mendi-Berio
Mondra-Hondarribia
Real Union-Trintxerpe
Anaitasuna-Roteta
Aurrera-Zumaia
Ordizia-Oiartzun
Hernani-Bergara
Pasajes-Tolosa
Idiazabal-Aretxabaleta

### GAZTEAK, LIGA NAZIONALA

Aretxabaleta-Retuerto	2-1
-----------------------	-----

### GAZTEAK, EUSKAL LIGA

Bergara-San Marcial	1-4
---------------------	-----

### ERREGIONAL PREFERENTEA

Aretxabaleta B-Mutriku	1-2
Mondra B-Lazkao	0-1
Orioko-Antzuola	1-0

### OHOREZKO GAZTEAK - IGOERA

Mondra-Kostkas M. Bihotza	2-5
Aloña Mendi-Añorga	0-3

### LEHEN MAILAKO GAZTEAK - IGOERA

Lazkao-Arizmendi	0-6
------------------	-----

### KADETEAK OHOREZKO MAILA

Aretxabaleta Arizmendi KE-Vasconia	2-6
Anaitasuna-Bergara	3-1

### INFANTILAK OHOREZ. TXAPEL. FASEA

Dunboa Eguzki-Bergara	1-3
Antiguoko-Aretxabaleta Arizmendi	2-0

### ALEBINAK TXAPELDUNEN FASEA

Bergara-Eibar	4-2
---------------	-----

## ESKUBALOIA

### EUSKADIKO TXAPELKETA

Ford Mugarrri-Askartza	32-33
Deusto-Soraluce BKE	21-30

### BIGARREN TERRITORIALA

Usurbil-Aloña Mendi	28-27
---------------------	-------

### EMAKUMEZKOAK

La Salle-Aloña Mendi	21-32
----------------------	-------

### GAZTEAK GIPUZKOAKO TROFEOA

Aloña Mendi-Hondarribia	27-27
Amenabar-Bergara	27-25

## ARETO FUTBOLA

### EUSKAL LIGA

Eskoriatza-Tolosa	4-2
-------------------	-----

### GIPUZKOAKO HIRUGARREN M.

Hirukide Barrantol FK-Aloña Mendi	2-4
-----------------------------------	-----

## ERRUGBIA

### GAZTEAK

Arrasate-Baztan	76-0
-----------------	------

## SASKIBALOIA

### LEHEN MAILA NAZIONALA

Urdaneta-MU	75-70
Easo-Sustrai-Aloña Mendi	76-59

### SENIOR GIZONEZ., 2. MAILA

Sustrai Aloña Mendi-Alberdi	56-54
-----------------------------	-------

### SENIOR EMAKUMEZKOAK

Añorga-Eskoriatza KE	36-45
----------------------	-------

### GAZTE GIZONEZKOAK, PARTA.

BKL-Aloña Mendi	88-79
-----------------	-------

### GAZTE EMAKUMEZKOAK, PAR.

Aloña Mendi-Zast Zarautz	25-18
--------------------------	-------

### KADETE GIZONEZ., PARTA.

Aloña Mendi-Oiartzun	52-45
Soraluce BKE-Triki Take	38-55

### KADETE EMAKUMEZ., PARTAID.

Ama Guadalupekoa-Arizmendi	23-30
----------------------------	-------

# GU RE KI RO LA

GOIENA TELEBISTA  
HARMAILATIK  
ASTELEHENERO,  
20:45, 22:30



goiena™

## ESKUBALOIA

Aitor Burcio | Izarraitz Aloña Mendi eskubaloi taldeko entrenatzailea

# "Jokalariek burua hotz mantentzen ikasi dute; hori da gure ezaugarrietako bat"

- ▶ Aloñako senior mailako eskubaloi taldea liderra da
- ▶ Aitor Burciok zuzentzen du taldea iraila ezker

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Gipuzkoako Bigarren Territorialan jokatzeko du Aloña Mendi eskubaloi saileko senior mailako taldeak. Denboraldi bikaina egiten dihardute, eta, oraingoz, lehia bakarria galdu dute. Aitor Burcio (Oñati, 1985) da entrenatzailea, eta taldearen ezaugarri nagusiak azpimarratu dizkigu.

**Sailkapeneko lehenengo tokian zaudete, partidu bakarria galdua.**

Egia esan, oso ondo gabilta. Iaz maila galdu genuen eta urte hasieran ez genituen helburu zehatzak planteatu. Niretzako lehen urtea zen entrenatzaile modura, eta ez nuen helburu potolorik markatu gura. Gure asmoa zen partiduz partidu joatea, eta horrela egin dugu. Baina oraingoz, behintzat, mailako talde indartsuena gailera erakutsi dugu eta oso pozik gaude. Taldeak lan ona egiten dihardu.

**Taldearen bilakaera ikusita, ze helburu dituzue egun?**

Nahiko genuke, eta oraingoz bide onetik goaz, Lehenengo Territorialera igo. Hau da, iaz galdutako maila berreskuratu. Gipuzkoako ligarik indartsuena da, eta guretzako lekua badagoela uste dut. Eta gehiago esango nuke, jokalariek egun duten jarrerarekin segitzen badute, ez dugu arazorik izango Lehen Territorialari eusteko. Bigarren Territoriala senior taldeendako mailarik baxuena da.

**Taldea asko aldatu da iaztik hona?**

Jokalariai banaka-banaka hartuta ez, iazko berberak dira; baina iaz taldeak partidu batzuetan itxura negargarria eman zuen. Partiduetan asko berotzen ginen. Horretan, behintzat, asko hobetu dugu.

Taldearen ardura hartuko nuen galdetzeraz etorri zirenean,

**"Helburu zehatz barik hasi genuen urtea; orain, baina, igo egin gura dugu"**

**"Harrobiko taldeak dira senior mailako etorkizuna; zaindu egin behar ditugu"**

argi eta garbi esan nien zein zen nire jokabidea: diziplina eta konpromisoa. Hori horrela, abuztuan jokalariekin berba egin nuenean esan nien talde bat ginela eta konpromisoa behar nuela euren aldetik, eta hori emateko gertu ez zeuden jokalarien beharrik ez nuela.

Oraingoz, erakutsi didate konprometituta daudela, eta asko eskertzen diet. Jarrerak horrek taldearen itxura erabat aldatu du. Kontu egin behar dugu senior mailako taldea izanik harrobiko taldearendako ispilua gailera, eta kantuan erakusten dugun jarrerarekin geratzen dira zaleak.

**Zeintzuk dira taldearen ezaugarri nagusiak?**

Jokalariek burua hotz mantentzen ikasi dute, ez dira berotzen. Hori da gure ezaugarri nagusia. Gainera, jokalariek maila ona dute; adibidez, atezain oso onak ditugu. Buru hotzarekin errazagoa da konpromisoei aurre egitea.

**Iaz jokalarik izan zinen eta aurten entrenatzaile. Zer nahiago?**

Eskubaloiko jokalarik izan naiz txikitatik, eta iaz, egun nire agintuetara dauden jokalarien taldekide izan nintzen.

Jokalarik eta entrenatzaile paperen artean aukeratzekotan, zalantza asko izango nituzke. Denboraldi hasieran oso gaizki pasa nuen aukerian. Jokalarik harrak ez zidan bakean uzten, eta askotan gogoa izan zuen kamisetan jantzi eta kantzara irteteko. Dena den, ezberdintasun asko daude entrenatzaile eta jokalarik lan artean. Entrenatzaileak egin behar duena da partiduen ikuspegi orokorra izan eta jokalariei transmititu. Jokalariek entrenatzailearen aginduak betetzen dituzte. Pentsaera aldatu beharra daukagu. Dena den, ohitu egin naiz eta gustura nago.

**Oñatiarra zara, baina Gasteizen egiten duzu lan. Nola antolatzen duzu aste barruko lana?**

Martitzenetan eta egubakoitzetan entrenatzen gara. Taldearen ardura hartu nuenean garbi utzi nien zuzendaritza batzordeko Gasteizen egiten nuela lan, gimnasio baten, eta martitzenetako entrenamenduetara ezingo nintzela heldu. Nire konpromisoa zen egubakoitzetako entrenamenduak eta partiduak zuzentzea. Euren onartu egin zuten. Hori horrela, jokalariai prest agertu ziren martitzenetako entrenamendua-

ren ardura hartzeko. Astelehenean, asterako plangintza bidaltzen diet: egin beharreko ariketak eta asterako ditudan helburuak. Eguaztenetan telefonoz egiten dut berba eurekin entrenamenduen nondik norakoak jakiteko.

Horretan ere eskerrak eman behar dizkiet jokalariei ematen didaten laguntzarengatik.

**Senior mailako bi taldeek –mutilak eta neskek– lan ona egiten diharduzue, baina baita infantil mailako taldeak ere. Oñatiko eskubaloia osasuntsu dagoela esango zenuke?**

Hasi gara apurka-apurka gora begira. Urte oso onak bizi izan genituen, bai elkarrekin eta baita zaleek ere, senior mailako taldea Lehen Nazional mailan egon zenean. Haren atzetik, urte eskasak izan genituen. Senior mailako taldea gainbehera etorri zen. Orain, baina, egoera hobean gaudela esango nuke, Bigarren Territorialean jokatu arren. Harrobiko taldeek ere lan ona egiten dihardute. Infantil mailakoa, esaterako, oso indartsu dabil.

Azken finean, senior mailako taldeak elikatzeko, harrobiko jokalariai behar ditugu, eta lasaitasunez baina irmotasunez egin behar dugu lan eurekin.

**Lehenengo Nazional maila oso urrutik ikusten duzu?**

Oraingoz, bai. Oso zaila da orduko taldearen antzerako bat osatzea. Belaunaldi berean jokalarik oso



Aitor Burcio. | MIREIA BIKUÑA.

onak elkartu ziren, eta, beterranoen laguntzarekin, talde indartsua osatu zuten. Punta-puntako eskubaloiaz gozatzeko aukera eman ziguten.

Dena den, taldea desagertu zenean, harrobiarekin ahaztu egin ginen. Hori izan zen akatsik handiena.

**Orain, baina, saskibaloiak dauka indarra herrian.**

Bai, hala da. Baina saskibaloikoak dauden lekuan egoteko egindako bidea ez da egun batetik bestera egiten. Urte askotako lanaren ondorio da. Guk ere bide beretik jarraitu behar dugu, eta emaitzak etorriko dira.



Senior mailako mutilen taldea. | AITOR BURCIO

# Kontziliazioa karga moduan bizi du gizarte honek, konturatu gabe ezinbestekoa dela

Ezin dugu etxeko haurrak edo nagusiak zaintzea lan ez produktibo moduan kontsideratzen jarraitu

L.Z. | ARRASATE

Kontziliazioa izan zuten hizpide aurreko eguaztenean Bilbon. Lur Gozoa eta Mirra plataformek antolatuta hainbat gogoeta egin zituzten. Sinistuta daude errealitatea aldatzeko lehenengo uler-tu egin behar dela, gertutik ezagutu. "Jendea tailer batera gonbidatzen duzunean eta eskatzen diezunean azaltzeko kontziliazioak euzendako zer suposatzen duen konturatzen zara kontzeptuak dimentsio berria hartzen duela", azaldu du TTI plataformako kide Rosana Agudok. "Kontziliazioa, gizarte honetan, lana eta familia bateragarri egitea da, lan ordu-tegi malgua lortzea, bikotekideek etxeko kargak banatzea... Jendeari galdetzen diozunean, ordea, gehiago da. Osagai emozionalak sartzen dira tartean. Konturatzen zara jendeak baloratu egiten duela familiako kideak (haurrak edo gurasoak) zaintzeko aukera izatea. Karga izatetik ia-ia pribilegio bat izatera pasa da".

## Lan ez produktiboa

Kontziliazioak arazo bat dauka: familia zaintzea gaur egungo gizartean ez dela lan produktiboa kontsideratzen. "Emakumeon ardurapean egon den esparrua da eta baloratua izan dadin eskatu behar da. Etxean haurrak edo nagusiak zaintzen dauden pertsonak ezin ditugu ez produktiboak kontsideratu", dio Agudok. "Egiten duten lana ezinbestekoa da gure gizartean eta, aldis, ez dugu baloratzen. Honek agerian uzten

du gizarte honetan izaten diren paradoxak eta kontraesanak".

## Begiak zabaltzeko beharra

Agudoren esanetan, errealitatean oinarritzen ez diren mezu asko jasotzen ditugu. "Bonbardatu egiten gaituzte gureak ez diren mezuekin. Mezu interesatuak dira, ez dira gureak. Hausnarke-ta hori egiteko denbora hartzea ezinbestekoa da".

Gai honetan erakundeek jokatzen duten paperari buruz galde-tuta, Agudok dio instituzioek ez dituztela herritarrak entzuten. "Gero eta prozesu parte-hartzai-le gehiago egiten dituzte, eta ona da hori, baina instituzioendako, kontziliazioa arautegietan eta legeetan datorren mugatzen da". Erakundeek herritarrak entzuteko ahalegina egin behar dutela uste du Agudok, eta eskaera errealei arreta ipini behar dietela. "Sare sozialak oso ondo daude horretarako, baina ez gaitzen engainatu; oraindik ere jende asko dago euren iritzia Internet bidez emateko baliabide nahikorik ez duena. Egunero ikusten dugu hori emakume elkarteetan, esaterako. Tailer asko egiten ditugu eta egoera dena da".

Hiru urte dira Lur Gozoa, Mirra eta TTI plataformek antzerako tailerrak bultzatzen dituztela. Euskadiko World Kafeak ere eurek antolatzen dituzte. Jarraipena izango dutela adierazi du Agudok. Informazioa euren blogetan ipintzen dute.



Haurra bulego bateko mahaian. | RIDER

# Sexu hezkuntza arriskuekin lotzen dugu, eta ez da osasuntsua horrela hezte

Larraitz Arando sexologoak hainbat argibide eman ditu 'Guraso.com'-en

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Beldurretatik eta arriskutik abiatutako sexu hezkuntza egitera ohitu garelako ohartarazten du Larraitz Arandok bere azken artikuluan, eta bizipen positiboetan oinarritutako sexu hezkuntza aldarrikatzen du. Sexologoak adierazten du guraso askorengan hainbat beldur pizten direla seme-alabak, eta batez ere alabak, nerabezero ingurura helden direnean. "Preserbatiboa ematea izaten da gurasoentzat autodefentsarik onena. Arriskuari aurre egiteko tresna bat ematen dugunaren ustea izaten dugu". Baina seme-alabei preserbatibo bat emateak mezu kontrajarri asko izan ditzakeela uste du Arandok. "Agian nahi ez dugun hori transmititzen ari gara; sexualitatea arriskutsua da, egin koitua. Preserbatiboa isolaturik ematea gaztetxoa praktika bakarrera bideratzea



Umea eskultura baten zakila ukitzen. | FAUSTINO RIDER

izan daiteke, koitora. Justu, arriskuak dituen bakarrenetarik horretara".

## Bizipen positiboak oinarri

Bizipen positiboetan oinarritutako sexu hezkuntza aldarrikatzen du Arandok. "Sexualitatea

arriskuak baino askoz zabalagoa da. Ederra ere bada. Mingarria. Emozionantea. Jolasgarria". Sexualitatearen alde guztiak onartzea proposatzen du Arandok, bizipenak elkar banatzea, intimitatea errespetatzea, beldurrak onartzea...

## Euskarazko ereduan matrikulatzeko arrazoiak

L.Z. | ARRASATE

Euskararekin lotutako gaiak buruz idazten du Irati Pagoagak *Guraso.com* webgunean, eta matrikulazio kanpainari buruz dihardu azken artikuluan.

Seme-alabak matrikulatzeak hamaika galdera pizten dituela dio, gurasoendako erabakigune estua dela, alegia. "Momentu berean erabaki ezberdin asko hartu behar dira", azaltzen du Pagoagak. Azaltzen duenez, ez da soilik ikastetxe bat aukeratzeko, baizik eta ikaskuntza-irakaskuntza metodo bat, seme-alabak heziko dituen profesional taldea, hizkuntza eredu bat... "Euskaraz matrikulatzeko hamaika arrazoi" daudela dio Pagoagak. Baita arrazoi horiek eman ere. Lehenengoa, euskarazko ereduak bakarrik ahalbidetzen duela haurrek euskara eta gaztelania ikastea. Gainera, D ereduak abantaila linguistiko eta kognitiboak eskaintzen dituela dio; kultura eta hizkuntza ezberdineko jarrera irekia; hiru hizkuntzatan hitz egiteko gaitasuna, euskal kultura bere osotasunean ezagutzeko aukera eta lan aukera hobeak.

## Familiatik giza trebetasunak bultzatzeko aholkuak

L.Z. | ARRASATE

Gaiarekin lotuta hitzaldia egingo du egunean, hilak 24, Oñatiko Elkar Hezi ikastetxean Gasteizko ISEP-Clinic kontsultako Izar Mendiak. "Helburua da haurrek beste kideekin arazoak dituztenean gurasoek nola lagun dezaketen hausnartzea", adierazi du Mendiak. "Lan oso zaila da, baina ikusten da gurasoen joera dela seme-alaben gatazkak konpontzea; hau da, haiek funtzio horretan ordezkatzea. Ulertu behar dugu haurrek beste haurrekin dituzten gatazkak gauza normala direla eta aukera ona direla euren kabuz konpontzen ikasteko".

Mendiak aurreratu duenez, arazoa egon aurretik hasi behar dugu lanean. "Lehenengo, utzi haurrari; askotan sorpresak ematen dizkigute eta ikusiko dugu badakitela gu gatazkan sartu barik konponbideak topatzen. Ez bada horrela, lasai hitz egin haurrarenekin. Lagungarria izaten da egoerak antzeztea, ipuinen bidez horrelako egoerak tratatzea... eta eman pistak. Nola egin duzu? Ze modu izan daiteke hobe? Hau egin bazenu zer gertatuko zen?".

## Harrera-familiei buruzko erreportajea 'HABE'-n

L.Z. | ARRASATE

*HABE* aldizkariaren otsaileko zenbakian harrera-familien inguruko erreportajea argitaratu dute. *Adingabeentzako babesa eta egonkortasuna*, dio izenburuak. Harrera-familia eta adopzioa gauza desberdinak dira. Adingabeek aldi baterako egonaldia egiten dute harrera-familiatan eta Foru Aldundiak bi harrera-familia mota koordinatzen dituela jasotzen du artikulua: arruntak eta profesionalizatuak.

Ume bat etxean hartzeko familien egokitasuna ziurtatzeko Aldundiak proba zorrotzak egiten dituela irakurri dugu Iker Barandiaran kazetariak egindako artikuluan. Laguntza behar duten haurren antzemate-lanari buruz ere galdetu dio Gipuzkoako Foru Aldundiko Haur eta Gazte Saileko zuzendari Jose Ignazio Intsaustiri.

Harrera-familia programa 1987an abiarazi zuen Foru Aldundiak eta adingabeei babesa emateko hainbat zerbitzu eta egitasmo lantzen ditu. Gipuzkoan 270 harrera-familia esperientzia dituzte abian.

# KULTURA

**Aitor Borobia** | Aktorea

## "Egiteko zailagoa iruditzen zaidan arren, nahiago dut komedia drama baino"

- ▶ Atzo antzeztu zuen lehen aldiz bere herrian, Bergaran, *Ambición* izeneko obran
- ▶ Lana utzi ostean, egun Getxoko Antzerki Eskolan ari da ikasketak egiten

TXOMIN MADINA | BERGARA

31 urteko bergarar honek duela bi urte bizitza guztiz aldatu zuen, lantegia utzi zuen aktore izateko. Atzo bertan lehen aldiz antzeztu zuen bere herrian, Yonunka konpainiaren *Ambición* izeneko komedian. Emanaldiaren aurretik berarekin egoteko aukera izan genuen.

**Zerrajerako lana utzi zenuen aktore izateko, itxura baten behintzat, apustu arrisksua...**

Beti barruan izan dut. Zazpi urte neramatzan altzairu lantegian bost txandatarra eta nahiko errata nabilen. Dirua neukan apustu hau egiteko, eta egiteko momentua zen. Azkenean momentu kontua da, inoiz ez da berandu gauzak egiteko.

**Eta momentuz, nola joan da apustua?**

Ondo. Ondo nago Getxoko Antzerki Eskolan ikasten: hiru urte dira, eta bigarrena egiten nabil. Gustura nabil, gauza asko ikasten eta neure saltsan.

**Esan duzu Getxoko Antzerki Eskolan zabilzala. Nolako da horrelako eskola bat?**

Antzerki eskoletan, normalean tailerrak izaten dira, jokoak; gero profesional moduan, lana egin behar da asko. Guk askotariko ikasgaiak ditugu: interpretazioa, inprobisazioa, gorputzaren mugimendua, musika, kantua, dantza klasikoa.... Lan egin behar da. **Beharrezkoa ikusten duzu prestakuntza?**

Bai, prestatu egin behar da. Orain momentuan Madrilen-eta dagoen joera musikarena da eta horretarako lan asko egin behar da: asko abestu, asko dantzatu eta interpretazio lan asko egin.

**Ikasitakoak praktikan jartzeko aukera ere baduzu, kasu honetan Yonunka konpainiarekin.**

Bai; konpainia Getxoko Antzerki Eskolatik bertatik irten zen, ikasleak izan ziren. Bilbo aldetik lan asko egin dute eta antzeztan hau egiteko ideia sortu zen. Hiru aktore gara obran: niri eskaini zidaten eta gustura. Aurretik Rapa Nui izeneko beste konpainia batekin ere lan egindako naiz, beste komedia batekin. Orain Rapa Nuiarekin Lorcaren drama bat, *Bodas de sangre* izeneko, egitekotan nabil.

Niretzako beharrezkoa da ikasitakoak taula gainean erakustea: artea ikasi arren, egin egin behar duzu; agertokia da esperientzia hartzeko lekua. Ikasketak jende aurrean jarri behar dira frogan.

**Nahiago duzu komedia drama baino?**

Egiteko zailagoa iruditzen zaidan arren, nahiago dut komedia. Nor-

beraren arabera da: neuri drama errazagoa egiten zait, baina komedia dut gustukoago.

**Orain arte bizi izan duzunetik, zer da antzerki mundutik gehien gustatzen zaizuna? Eta gutxien?**

Zaila da horri erantzutea. Batzuetan estreinaldiaren aurretik estres handia egoten da eta akaso hori txarrena. Baina bestela, niretzako, antzerkian dena dago ondo.

**Domekan lehenengo aldiz antzeztuko duzu zeure herrian. Berezia izango da zuretzako?**

Gustura nago. Berdin dit herrian izan edo ez, baina egia esan behar badut, ilusioa egiten dit herrian antzezteak. Jende askok galdetzen dit zer moduz nabilen eta egiten dudana erakusteko aukera da, baita lagunak ikusteko ere.

**Aktore moduan, zer nolako ibilbidea izatea gustatuko litzaizuke?**

Momentuz asko formatu behar naiz: bide luze baten nago eta ez da presarik izan behar; disfrutatu egin behar da. Momentuz eskola bukatzea da asmoa; gero segur aski Argentinara joango naiz, han ikasten jarraitzea.

**Orain arte antzerkian ibili zara. Zinema edo telebista probatzeko asmorik bai?**

Parte hartu izan dut film laburretan eta gustatu izan zait. Baina niretzako antzerkiak beste xarma bat du, zuzenekoak zinemak ez duen beste zerbait du. Nik gehiago gozatzen dut antzerkiarekin film laburrak grabatzea baino.

**"Niretzako beharrezkoa da ikasitakoak taula gainean erakustea"**

### Anbizioa jorratzen duen antzezlana

19:00ak pasata irten ziren Yonunka antzerki taldeko aktoreak Bergarako Tartufoko agertokira; hain justu, Borobia bera eta Alex Igartua eta Olatz Ganboa bilbotarrak. Hasierako urduritasuna alde batera utzi, eta Shakespearen testuetan oinarritutako antzezlana eskaini zuten, anbizioa ardatz zutelara. Laster, publikoaren barre algarak entzuten hasi ziren; seinale ona, dena behar bezala doala erakusten du horrek. 40 minutuz luzatu ziren barre algarak.



Atzo iluntzean izan zen antzezlana Bergarako Tartufon. | J.A.



Aitor Borobia antzezlana hasi aurretik. | JOSETXO ARANTZABAL



Leioako Big band-a egubakoitzean Amaia Antzokian eskaini zuten kontzertuan. | JOSETXO ARANTZABAL

## FITXA

MUSIKA

**LEIOA ETA ARRASATEKO BIG BAND****Estiloa:** Amerikako jazz eta swing-a.**Non:** Amaia Antzokia.**Eguna:** Egubakoitzea, otsailak 11.**Iraupena:** Ordu bete.

erakutsi zuen. Ondoren, Ana Bejarano abeslari profesionalak, jazz kantari beltzek izan ohi duten ahots goxoarekin, bizkaitarren kontzertua borobiltzea lortu zuen. Bi damek ikuslegoa bereganatzeko daukaten magnetismoa agerian utzi zuten.

Berataratu zirenak elkartruketa oso positiboa zela gaineratu zuten "oso kontzertu polita izanda", "beste herrietan ere musika gustuko dutela antzematen da" tanke honetako hainbat komentario entzun ziren emanaldia amaitu zenean. Band-etako zuzendariek ere ekimenak izandako arrakasta goraiatu zuten.

Behin instrumentuak gorde ondoren, bi band-en arteko erlazioa indartzeko lunch txiki bat eskaini zuten Arrasate Musika-lekoek.

Guztiak hurrengo kontzertuaren zain geratu ziren. Horretarako baina, Amurriora joatea ezinbestekoa izango da, izan ere, hurrengo zita bertan izango baita ekainaren 22an.

## KRONIKA

## Mississippi inguruko doinuak

IMANOL GALLEGO | ARRASATE

Arrasate eta Leioako Big Band-ek egubakoitzean hasiera eman zioten aurten Amurriorekin batera izango dituzten elkartruketa musikalei. Urte honetan zehar, eta band-etako zuzendarien laguntasunari esker, hiru herritan

eskainiko dituzte kontzertu bana.

Arrasatekoek berotu zuten lehen kontzertu hau. Horretarako, 30. hamarkadako amerikar doinu biziak erabili zituzten, besteak beste, John Davenporten *Fever* abesti ezaguna erabili zuten

emanaldi entretenigarri bat eskainiz.

Etxekoen emanaldi laburraren ostean Leioakoak igo ziren taula gainera txalo artean. Bizkaitarrek programa luzeago bat zekarten swing eta jazz erritmoez betea. Doinu horien bitartez jendea

Mississippi ibaiaren zehar barreiatu zuten. *Cry me a river* eta *When I fall in love* kanta ezagunek jaso zituzten txalo gehien ikuslegoaren konplizitatea beregatu zutela argi utziz.

**Doinuez gainera ahotsa**

Bi band-ek ohiko instrumentuez gainera abeslari bana izan zuten euren doinuak aberasteko.

Arrasatekoek Amaia Arriaranen ahotsa izan zuten lagun eta *Fever*-ekin kantariak, ikuslego samurtzeko daukan abilezia

## Manu Muniategiandikoetxearen artelaneak jakinmina piztu dute itxi berri duten Arcon

Madrilgo Espacio Minimo galeriak eskaini ditu bergararraren obrak

IMANOL GALLEGO | ARRASATE

Arco Espainiako arte erakusleihogarrantzitsuen da. Aurtengoa 30. edizioa izan den honetan, Muniategiandikoetxearen obrak erosteko aukera egon da. Bergararrak Madrilgo *Espacio Minimo* galerian

erakutsi ditu lanak. Artistak salmenta toki ontzat dauka Arco, "artelaneak saltzeko toki ona da".

Muniategiandikoetxeak zortzi artelan eraman zituen arren, horietako lau soilik egon dira ikusgai, bi koadro eta bi eskul-

tura. Koadroetako bat borobila da, 2 metro diametrokoa, berria. Paisaia abstraktua. Bestea, klasikoagoa, gorri kolorekoa. Horiez gainera, formatu txikiko bi eskultura ere eraman ditu. Artistak bere obrak zeresan handia eman dutela gaineratu digu: "Baina sektore honetan salmenta finkatu arte ezin da aurreikuspen edo baloraziorik egin", adierazi zigun Muniategiandikoetxeak.

**Salmentak moteldu**

Krisiak zenbait salmenta kolokan jarri dituen arren, artearen munduan ez da horrenbeste nabaritu. "Lehen errazago saltzen zen, orain kosta egiten da, jendeak buelta gehiago ematen dizkio", zioen Muniategiandikoetxeak.

Hau guztiaz gainera, Muniategiandikoetxearen beste obra bat ere ikusteko aukera egon da. 1994. urtean lehen aldiz Arcora joan eta berak saldu zuen lehen obra Coca-Colak erosi zuen eta feriarenean 30. urteurrena dela-eta berriro bueltatu da IFEMARA, kasu honetan salmentetatik kanpo.

Dena den, aurten feriak jasan dituen aldaketek sortu dituzten beldurrak alde batera utzita, oso feria emankorra izan dela diote adituek.

## Eszenografia urri batekin bizitzak dituen hainbat momentu garrantz 21 sketchetan zehar erakutsita

IMANOL GALLEGO | ARRASATE

Aste pare bateko atsedenen ostean, antzerkia Amaia Antzokira bueltatu zen atzo. Ikuslegoak hutsune hori igartzeko zuela atzematen zen, izan ere, antzokiko besaulki dezenteak jabea izan zuten.

Arabako Kunka antzerki konpainiak *Historias Canallas* obra taularatu zuen. Bertan 21 sketch ezberdinen bitartez eguneroko bizitzan gertatzen diren egoerez pentsarazi zieten ikusleei, baita barre eragin ere.

Testuak berezkoa daukan umore garrantzaz gainera, antzez-

lanak hainbat nabardura poetiko ere erakutsi zituen.

**Argiztapenaren garrantzia**

Obrak dituen egoerak islatzeko Kunkakoak oso apustu arriskutsuarekin igo ziren taula gainera. Elementu gutxiko eszenografia ekarri zuten gurera eta neurri handi batean antzezanaren pisua aktore eta argien gain zegoen. Teknikariek lan dezente egin behar izan zuten ikusleek aktoreen lanaren zati-rik galdu ez zezaten. Hortaz, testu egokia, lan ona, teknika lagun; emaitza paregabea.



Altzairuzko eskultura. | M.M



Aluminiozko eskultura. | M.M



Paisaia abstraktua. | M.M



Historias Canallas antzezaneko une bat. | JOSETXO ARANTZABAL

# Sarrerak salgai 'Pésame mucho' komedia saritua ikusteko

Espanian eta Ingalaterran ehunka emanaldi egin ostean, Pez en Raya taldearen ikuskizuna bariku honetan helduko da Elgetako Espaloira

TXOMIN MADINA | ELGETA

Ez ditu nolanhiko erreferentziak bariku honetan Elgetako Espaloian ikusi ahal izango den antzezlanak. Pez en Raya konpainiaren ikuskizuna da, eta dagoeneko 400 emanaldi baino gehiago egin dituzte obra horrekin, bai Espainian eta baita atzerrian ere, Ingalaterran. Azken herrialde honetan sariak ere jaso ditu: Bath eta Winchestergo antzokietan denboraldiko lanik onena izendatu dute.

## Istorio xelebrea

Antzezlanaren istorioak ez du zalantzarako lekurik uzten: *Pésame mucho* komedia bat da, komedia zoroa.

Behi bat da antzezlanaren protagonista nagusia, behi benetan berezia. Izan ere, esne zuria eman beharrean, esne beltza ematen hasten da. Arrazoa? Deabru horzgabe bat egin dela behiaren jabe. Abiapuntua hori izanda, egoera xelebraz eta ustekabez beteta dago antzezlanaren egileen euren esanetan, ikusleak barrez leherrarazteko asmoarekin.



Pez en Raya konpainiako kideak. | GOIENA

Esan bezala, Andaluziako Pez en Raya konpainiaren eskutik helduko da *Pésame mucho* Elgetara. 2002an estreinatutako lana da eta Cristina Medina, Joan Estrader eta David Sant dira antzezlanaren sortzaile eta idazleak. Eurak arduratzen dira baita ere eskenatokira eramateaz: Medina eta Estrader dira aktoareak, eta Sant, aldiz, zuzendaria. Aktoreei dagokienez, Londresen jaso zuten formazioa Philippe Gaulieren eskolan. Konpainiaren esanetan, ikuslearen gozameneari zentratutako antzerkia da euren egiten dutena, alferreko errekurto barik eta katxondeo askorekin.

## Sarrerak eskuragarri

Datorren egubakoitzean izango da Elgetako Espaloian eskainiko duten emanaldia. 22.30ean hasiko da berau, eta sarrerak dagoeneko eskuragarri daude: bazkideendako 10 eurotan; besteendako, 12 euroren truke.

## DATUA

# 400

EMANALDI

Pez en Raya konpainia andaluziarrak *Pésame mucho* antzezlanaren 400 emanaldi baino gehiago eskaini ditu.

## Saharari buruzko diaporama martitzenean Aretxabaletan

IESBAA elkartearen eskutik, *El problema* izeneko diaporama ikusteko aukera egongo da martitzenean Aretxabaletako Arkupen. 19:00etan hasiko da emanaldia Zaria aretoan eta sarrera doan da. Jordi Ferrerren eta Paul Vidalen lan honetan, Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetan gertatzen diren giza eskubideen urraketak erakutsiko dira. Jordi Ferrer egongo da martitzenean emanaldian, baita EHUko irakasle Juan Soroeta ere.

## Maite Franko ipuin kontalaria, egunean Eskoriatzan

Hileroko hitzorduari hutsik egin gabe, egun honetan giza baloreak lantzeko umeendako ipuin kontaketa egongo da beste behin Eskoriatzako udal liburutegian. Maite Franko irundarra izango da oraingo honetan umeei ipuinak kontatzeaz arduratuko dena eta lau urtetik gorako neska-mutikoendako saioa izango da eguneko. 18:00etan hasiko da ipuin kontaketa, eta hiru ordu laurden inguru iraungo ditu.



Taldeko abeslariak publikora iristen jakin zuen. | JOSETXO ARANTZABAL

KRONIKA

# Taipetik Inkernura

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Taiwanetik iritsitako Go Chic taldeak ez zuen huts egin gurean. Neskez osatuta dagoen laukoteak, joan den egubakoitz gauean, kontzertua eskaini zuen Eskoriatzako Inkernu tabernan, eta han bildutakoak pozik geratu ziren eskaini zuten zuzeneko indartsuarekin.

Aurreikusitako orduan hasi zen emanaldia; hain justu ere, 23:00etan. Ordurako taberna beteta zegoen, eta hortik aurrera

iritsi zirenek kanpotik entzun behar izan zuten taldea. Gehienak eskoriatzarrak baziren ere, Debagoieneko beste herrietako gazteak ere izan ziren Inkernun.

## Konplizitatea

Ordubete iraun zuen kontzertuan, musika dantzagarria egin zuten Taipeiko neskek; elektro-dance, elektro-pop eta elektro-punk y bestelako estilo dantzagarriak eskainiz. Abeslariak publikoaren konplizitatea bilatu zuen behin

FITXA	
MUSIKA	
<b>GOCHIC</b>	
<b>Estiloa:</b>	Musiak dantzagarria.
<b>Non:</b>	Inkernu taberna, Eskoriatza.
<b>Eguna:</b>	Egubakoitza, otsailaren 18a.
<b>Iraupena:</b>	Ordubete.

eta berriro; lortu egin zuen, tabernan batutakoek ondo erantzun zuten-eta.

Europatik kontzertu bira egin ari da taldea, kaleratu duen lan berria aurkezteko. Euskal Herrian hainbat emanaldi eskaini ditu egunotan; tartean, Eskoriatzako.

## La mexicana clandestina taldearen eskutik, latinoamerikar doinuak izan ziren Arrasateko gaztetxean

M.B. | ARRASATE

Aspaldiko partez, musika estilo ezberdina entzun ahal izan zen zapatu gauean Arrasateko gaztetxean. Mexikoko doinuak izan ziren nagusi La mexicana clandestina taldeak eskainitako emanaldian.

Kontzertua 22:00etan hasi zen eta ordubete pasatxo iraun zuen. Tarte horretan, doinu mexikarrak eta abesti tradizionalak entzun zituzten han batutakoek. Mexikarrak nagusi izan baziren ere, bestelako hainbat estiloekin nahastu zituzten horiek; esaterako, doinu kubatarrak tartekatatu zituen lauko-

teak. Esandako kontzertua gaztetxeak eta Debagoieneko Askapenak antolatutako Mexikoren inguruko jaialdi alternatiboaren harira egin zen.

## Zapatisten dokumentala

Musika emanaldiaz gain, atzo, domeka, arratsaldean *Zapatistas*. *Cronica de una rebellion* ikus-entzunezkoa eskaini zuten gaztetxean bertan. Bi ordu irauten duen dokumental horrek Mexikoko errealitatea hurbilgotik ezagutarazteko aukera ematen du, mugimendu zapatistaren gaineko hamarkada bateko kronika zabala eginez.



Mexikoko doinuak gustura entzun zituzten gaztetxean. | JOSETXO ARANTZABAL



# Goiena telebista ikusten ez baduzu, berriro sintonizatu

**Hainbat aldaketa egin ditugu Muruko antenan; hori dela eta, baliteke Goiena telebista ikusten zenuten hainbat etxetan orain ez ikustea.**

**Ondorengo herrietan bakarrik dute eragina:**

Leintz Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Aramaio eta Oñatin.

Kasu honetan, zure telebista berriro sintonizatu beharko duzu. Hau da, zure telebistak berriro bilatu beharko du automatikoki (edo bestela zu zeuk eskuz) Goiena telebista.

**Berriz sintonizatu, baldin-eta:**

- Aipatutako herriren batean bizi bazara.
- Telebista LTD bitartez ikusten baduzu.
- Orain arte Goiena telebista ikusi baduzu, baina orain ikusten ez baduzu.

## GURE MUSIKA TALDEAK

MAY-BI

# "Arruntak eta ameslariak garen bi neskak osatzen dugu May-Bi"

- ▶ Lehenengo lanak estilo asko batzen ditu eta publiko zabalari dago zuzendua
- ▶ Bea eta Miren ezagunak egin dira gure artean 'Bi gira' ETBko saioari esker

MAIDER ARREGI | ARRASATE

Bea Asurmendi aramaioarrak eta Miren Oteitza eibartarrak osatzen dute May-Bi proiektua. Indartsu sartu dira musika esparruan bi neska xarmant eta gazte horiek. *Bi gira* saioan ezagutu genituen eta ahots goxo eta sakonak konkistatu egin gintuen pantaila txikian. Lan berriarekin datoz orain.

**Oso abesti eta estilo ezberdinak batzen dituen diskoa da.**

Baladak, ukitu elektronikoa duten doinuak eta sehaskako abesti bat, besteak beste, batzen ditugu lehen lan honetan. Estilo ezberdinetako kantuak sartu ditugu eta uste dugu horrek egiten duela aberats diskoa. Jende askorengana helduko den lana egin nahi genuela garbi geneukan. Positiboa da gure-

tako; horrela, bestelako erregistroak probatzen ditugu.

**Eusko dance delakoa berreskuratu duzue 2011n.**

Jende askok hartu du parte abestiak egiten eta dance doinuak ere landu nahi genituen, jendeak gustu ezberdinak ditu-eta. Oihan Vega, Fran Lasuen eta Silvia San Migelen laguntza izan dugu lehen lan honetan. Esan bezala, efektu elektronikoak sartu ditugu dance ukitu hori izateko, besteak beste. Gitarren presentzia ere badago abestietan.

**"Bi neska arrunt ameslari", diozue zuen letretan.**

Arrasateko kantu eskolan ezagutu genuen elkar. Ondoren, *Bi gira* programan hartu genuen parte eta handik sortu zitzaigun diskoa kaleratzeko aukera. Gure ametsa betidanik diskoa grabatzea izan da, eta hortik dator istorioa, bi neska arrunt ameslari gara, halaxe definitzen dugu gure burua.

**Sexiak zarete!**

*Bi gira* saioan *Lady marmalade* abesti sexia abesteko eskatu ziguten. Oso ondo pasatu genuen! Diskorako holako abesti bat proposatu ziguten, eta, denetarik probatu behar denez, aurrera egin dugu. Baina diskoan badago sexuarekin zerikusirik ez duen abestirik ere.

**Nor bidaltzen duzue pikutara?**

[Barre] Ez da pertsona konkretu bat. Egoera edo jende talde bat izan daiteke. Bizi egin nahi dugula aldarrikatzen dugu abesti horretan.

**Diskoa entzun dutenek zer esan dizuete? Nola hartu dute?**

Denetarik esan digute. Batzuei arraroa egiten zaie *Pikutara* edo *Sexua* moduko abestiak. Baina denetarik probatu behar da; nahiz eta hasiera baten geure burua ez ikusi horrelako abestiak kantatzen, pozik gaude lortutako emaitzarekin. Jende horri denetarik probatu behar dela esango genioke. Gainera, askotariko estiloak jorratzen dituen diskoa jende gehiagorengana helduko dela uste dugu.

**Ze proiektu duzue esku artean?**

Kontzertuak ematea da gure asmoa orain. Hilaren 25ean Elorrión joko dugu. Uda partean, berriz, indartu egin nahi ditugu zuzenekoak eta bira bat egin diskoa ezagutzera emateko. Bigarren lan baterako proposamena eta aukera daukagun arren, orain, disko honetan zentratu nahi dugu, eta disfrutatua.

## ZERTZELADA



MAY-BI

Estiloa: Popa, elektronika, rocka...

Egilea: May-Bi.


Argitaletxea: Babelmusik.

Iraupena: 40,03 minutu.

Dance saiakera eta distira akustikoa

Hona hemen orain arte gutxi jorratu den euskal pop eta dancearen eremuan jauzia egiteko ahalegin berria. Fran Lasuenek eta Oihan Vegak gidatu dute proiektua eta horretarako Bea Asurmendi eta Miren Oteitza abeslari gazteak fitxatu dituzte. Asurmendi eibartarra ez nuen aurretik ezagutzen, baina bai, ordea, talentu handia daukan Aramaioko Bea Asurmendi abeslari eta gitarra-jotzailea. Pop eta elektro-dance ildoak jorratu dituzte, batzuetan Nahia Dancetik hurbil; Madrilgo *mobida*-ren arrastoekin beste batzuetan; eta Doctor Deseoren malenkoniak ziprindituta inoiz. Hala ere, Asurmendi akustikoan aritzen den horietan lortzen dute benetan ahotsek duten distira!

IKER BARANDIARAN



Bea Asurmendi eta Miren Oteitza. | MAY-BI

## 1. ETXEBIZITZAK

## 101. SALDU

**Antzuola.** Bi logelako etxebizitza salgai. Ilogailua eta berokuntzarekin. Berritua. 163.000 euro, negoziagarri. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 645 00 89 97 edo 645 70 80 26

**Abadiño.** Etxea salgai Muntzaratz auzoan. 2 logela, 2 komun, egongela, sukaldia, eskigitekiarekin, balkoia, garajea eta trastelekua. Ia berria. Oso polita. Deitu eta ikusi. 615 00 72 16

**Altsasu.** Altsasuko Kale Txiki kalean pisu bat saltzen da. 660 09 14 74 edo 948 46 76 38

**Aramaio.** Etxea saldu edo errentan ematen da. Hiru logela, egongela, sukaldia eta komun. Oso argitsua. 620 59 86 55 edo 658 72 52 70

**Bergara.** Ibargarain etxebizitza salgai. 88 metro koadro. Leku onean. Hiru logela, egongela, bi komun eta sukaldia. Egoera oso onean. Garajeak aukeran. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 652 76 95 09,

**Elorrio.** Elorrio. 65 m<sup>2</sup>-ko etxe berri bat salgai Buzkantz kalean. 2 logela, komun bat, sukaldia-egongela eta ganbara ederra. Ilogailua dauka eta prest dago bizitzera sartzeko. Kokapen oneko etxe polita eta eguzkitsua. Prezio ona. 94 682 12 34

**Etzari-aranatz.** Etxe handi eta argitsua eskuragarri. Berezitasun interesgarriak dituen etxebizitza. Erabat jantzia, bizitzera sartzeko moduan. Berogailua, biltegia eta trastelekua ere baditu. Herrigunean egonda ere, lasaitasuna eta intimitatea baditu. Zatoz ikuster! 678 38 49 52

**Mañaria.** Bi logela handi, balkoia duen egongela eta sukaldia handia duen pisua. Eguzkitsua. Aluminioko leihoak, elondo egurra. Mendira ematen du. Toki lasaian kokatua. Garaje itxia. Bi solairu ditu; ez dago igogailurik. Sukaldia guztiz hornitua, bitroarekin. Etxea guztiz hornitua geratzen da. 615 76 56 46 (Jabi).

**Oñati.** 60 m<sup>2</sup>ko etxebizitza salgai san Lorentzon. Bi logela, komun bat eta sukaldia egongela. Jantzia eta berria. 192.000 euro negoziagarri. Deitu 20:00ak eta 22:00ak artean, mesedez. 699 78 47 49

**Oñati.** 84 m<sup>2</sup>ko etxe ederra salgai. 3 gela, 2 komun, sukaldia eta egongela handia. Gainera, 32 metroko lorategia dauka, garaje itxia eta ganbara. Leku aproposan dago, denda eta ikastetxea ondoan baitaizka. Ingurune lasaia eta erdigunea 5 minutura dago. 678 71 36 97

**Oñati.** 85 m<sup>2</sup>ko etxebizitza salgai obispo otaduy kaleko 13. Ean. 2. Solairuan. Sukaldia, hiruro logela, komun eta egongela. Dena jantzia eta oso eguzkitsua. Zuzenean bizitzera sartzeko moduan. 169.000 euro. Deitu 659 05 11 57 edo 630 52 17 89 telefono zenbakira.

**Oñati.** Etxebizitza salgai Kalebarrian. 80 metro koadro. 9 urte. Hiru logela, bi komun, sukaldia eta egongela handia. Ilogailua. Altxariz hornitua. Garajea aukeran. 622 42 83 18

**Oñati.** Kalebarrian 71 metro koadroko etxebizitza salgai. Bi logela, sukaldia, egongela eta komun. Guztiz hornitua. Patio erabilgarria, ganbara eta garaje itxia. Prezio ona. Deitu 665 71 77 98 telefonora.

**Zaldibar.** 300 m<sup>2</sup>-ko baserria berriztuta. 28.000 m<sup>2</sup>-ko lur-saila. Oso eguzkitsua. Deitu 625 70 59 97 telefono zenbakira.

## 103. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Etxebizitza ematen da errentan. Bi logela, sukaldia, bainugela, egongela eta trastelekua. 616 92 55 06

**Elorrio.** 45 m<sup>2</sup>-ko pisua alokagai. Logela, komun eta sukaldia-egongela. Egoera onean. (garajearekin batera alokatzen da) prest dago bizitzera sartzeko. 687 74 04 49

**Elorrio.** Hiru urteko pisua alokatzen dut elorriko nize to urkizukalean, plazatik gertu. Hiru logela ditu, egongela, bi komun, sukaldia eta bi balkoi. 87 m<sup>2</sup> erabilgarriak ditu. Deitu 660 45 87 56 telefono zenbakira.

**Oñati.** San Lorentzon etxebizitza bat ematen da errentan. Hiru logela, bi bainugela, egongela eta sukaldia. 650 56 62 06.

## 104. ERRENTAN HARTU

**Altsasu.** Ikasle batek etxe, apartamentu edo logela bat alokatu nahi du altsasun, bi hilabeterako (maiatza eta ekaina). 948 46 72 15 eta 620 32 10 83.

**Azpeitia.** Azpeitian edo inguruan etxe bat alokatu nahi nuke. Kontakua: anampiriz@gmail.com edo 635 75 29 56.

**Bilbo.** Neska langilea naiz ta Bilbon edo inguruan pixu bila nabil, apartamentua, atikoa, estudioa. Oso oso ondo zainduko dut!! eraitz@gmail.com 626 86 67 36

**lurreta.** Lagun bi alokatzeko pisu bila dabilta lurretan edo Durangon. Etxea jantzia. 675 70 88 27

## 105. ETXEA OSATU

**Aretxabaleta.** Pertsona bat behar dugu etxebizitza osatzeko. 695 72 79 55

**Bergara.** Ozaetan, etxea osatu nahi nuke. 606 63 19 91

**Bergara.** Familia batek etxebizitza behar du errentan. 650 62 12 94, 943 08 22 60

**Debagoiena.** Logela hartuko nuke errentan Arrasaten edo inguruan. 685 73 48 59

**Donostia.** Donostian gela bat alokatzen da neska batentzat. 943 65 16 92

**Durango.** Pisua konpartitzeko bi lagun behar dira. Etxe berria eta jantzia. 656 77 16 62

**Hernani.** Leku lasaia eta berdea. Apirillean sartzeko. 300 euro/hileko. 2 gela. Kontratuan biok azaltzea beharrezkoa, bakoitzak 600 euroko fiantzarekin. 4 etxebizitzako eraikina. Ez erretzaila eta maskotarik gabe, hobe. Apartzeko arazorik ez eta herritik 5 minutura oinez. 678 59 56 38

**Iruñea.** Neska bat behar dugu etxe bat osatzeko. Prezioa: 200 euro, gastu guztiak barne. 628 04 38 53.

## 2. GARAJEAK

## 203. ERRENTAN EMAN

**Aretxabaleta.** Garaje bikoitza, itxia, 26 metro koadrokoa, errentan eman edo saltzen da. Ilargi plazan dago eta autoa garbitzeko lekua dauka. 675 70 53 79

**Bergara.** Garaje itxia ematen da errentan Ibargarai kalean. 679 74 00 61.

**Durango.** Plateruen plazan garajea alokagai. 65 euro/hileko. 635 73 57 59 (Josu)

**Durango.** Garajea alokatzen da San Inazio auzunean, produsan. 635 74 36 24. Inaki

## ZURE IRAGARKIAK

## IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Egueneko 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere. GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sar daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:** - Etxebizitza Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Motorra Saldu/Errentan. - Profesionalen moduluak.

Debagoienetik kanpoko iragarkiak, web gune honi esker eman dizkizugu: **iragarkilaburrak.com**

**Elorrio.** Garaje itxia alokatzen dut Elorriko, kotxea bat eta trasteak sartzeko tokiarekin. Nizeto urkizukalean dago. 660 45 87 56.

## 204. ERRENTAN HARTU

**Elorrio.** Furgoneta bat sartzzen dengarajebaten bilanabil Elorrio, alokatzeko. 679 66 63 31.

**Eskoriatza.** Erdialdean, hala bada, garajea hartuko genuke errentan. 943 79 01 07 (Aran-txa), 669 90 73 77 (Fran)

## 3. LOKALAK

## 301. SALDU

## ARRASATE

Taberna salgai alde zaharrean. Txikiteo zonan. 666 40 65 19

## 303. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Lokala ematen da errentan San Andres auzoan. Musika taldeek entsatzeko egokia. 690 95 45 47.

**Abadiño.** Lokal ekipatua, altzariekien alokagai, matiena eta durango bitarteko errepidean. 120 m<sup>2</sup>. 619 79 00 53.

## 4. LANA

## 401. ESKAINTZAK

**Bergara.** Emakume euskalduna behar du umea zaintzeko. 669 70 89 36

## ARETXABALETA

Ile-apaintzaile ofiziala behar da. 635 70 66 02

## 402. ESKAERA

**Arrasate.** Neska euskalduna Arrasaten goizetan haurrak eskolara eramateko prest. 618 62 79 11

**Arrasate.** Neska euskalduna, ekonomian lizentziaduna, eskolak emateko gertu. 679 97 76 46

**Arrasate.** Neska gazte euskalduna lehen hezkuntzako ikasleei ikasketetan laguntza emateko prest. 616 32 73 08

**Arrasate.** Neska gazte euskalduna etxeak garbitzeko eta umeak zaintzeko prest, esperientziaduna. 618 41 24 79

**Arrasate.** Hemengo neska etxeke lanak, umeak zaintzeko edo edozein lanerako prest. Orduka ere bai. 659 55 27 16

**Arrasate.** Orduka lan egingo nuke astegun, asteburu zein jaiegunetan. Presazkoa da. Garbiketarako, ume edo nagusiak zaintzen, atariak. 682 31 97 37.

**Bergara edo Arrasate.** Mutila gertu sukaldia laguntzaile, zerbitzari, garbiketara edo nagusiak zaintzen jarduteko. Esperientziaduna eta legezko papearekin. 634 84 41 94

**Bergara.** Orduka lan egingo nuke. Geriatria titulua daukat. Esperientziaduna. 650 62 12 94 edo 943 08 22 60

**Bergara.** Bergaran, mutil gazte bat edozein lan egiteko gertu. Autoa dut. 654 24 13 27

**Bergara.** Igeltsero lanetan edo mendia garbitzeko lanetan aritzeko gertu. 663 34 11 55

**Bergara.** Umeak zaindu eta etxeke lanak egingo nituzke. 665 75 41 32

**Bergara.** Emakume euskaldun bat behar da ume bat zaintzeko. 669 70 89 36.

**Debagoiena.** Emakume gazte esperientziaduna, pertsona nagusiak zaintzeko gertu; Arrasaten, Aretxabaletan, Eskoriatzan, Oñatin eta Bergaran egingo nuke lan. Deitu 679 59 33 65 telefonora

**Debagoiena.** Geriatria laguntzaile pertsona nagusiak zaintzeko. Gainera, klinika laguntzaile titulua daukat. 646 38 46 81 (Itxaso)

**Debagoiena.** Neska lanerako prest: nagusiak eta umeak zaintzeko zein garbiketara egiteko. Lan egin dezaket etxean bertan biziz, orduka edo asteburutan. Gauz ere bai. Erreferentzia onak. Momentuan lanean hasteko prest. 638 93 11 48

**Debagoiena.** Emakumea gertu ile apaindegian lan egiteko edo garbiketara zein nagusien zainkarako. 619 23 37 30

**Debagoiena.** 27 urteko mutil gaztea nahiz eta lana bila nabil, edozein motakoa, sukaldia eta obretan zein margotzenesperientzia handia daukat, baita hortuetan ere. Pare bat ordu badira ere beharrene bainago. 689 68 56 81/606 74 42 37

**Debagoiena.** Esperientziadun neska umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Deitu 665 70 37 83 telefonora. Rakel

**Debagoiena.** Emakume arduratsua garbiketara lanak eta nagusi edo umea zaintzarako eskaintzen da. Gloria. 630 26 13 28 edo 943 79 13 88

**Debagoiena.** Esperientziadun mutila gertu sukaldari, sukaldia laguntzaile, menuak prestatzen eta abar. 666 21 88 95

**Debagoiena.** Taberna zerbitzari edo sukaldari laguntzaile lanetan lan egingo nuke. Autoa daukat. 680 92 59 14.

**Debagoiena.** Bergara edo Arrasaten. Garbiketara lan egiteko, umeak zaintzeko edo nagusiekien paseatzeko gertu. 15:30etik 21:30era. Deitu 677 81 10 00 telefonora.

**Debagoiena.** Emakumea umeak zaindu zein nagusiak zaintzeko gertu, orduka ere bai. 663 65 78 43

**Debagoiena.** Pertsona arduratsua nagusien zaintzarako edota etxeak garbitzeko. 688 80 32 03 edo 943 53 37 00

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzeko prest egongo nintzateke. Beste lan batzuk ere egiteko prest. Auto propioa daukat. Gilberto. 654 24 13 27

**Debagoiena.** Neska euskalduna prest pertsona nagusiak zaintzeko. Gainera, klinika laguntzaile titulua daukat. 646 38 46 81 (Itxaso)

**Debagoiena.** Neska lanerako prest: nagusiak eta umeak zaintzeko zein garbiketara egiteko. Lan egin dezaket etxean bertan biziz, orduka edo asteburutan. Gauz ere bai. Erreferentzia onak. Momentuan lanean hasteko prest. 638 93 11 48

**Debagoiena.** Emakumea gertu ile apaindegian lan egiteko edo garbiketara zein nagusien zainkarako. 619 23 37 30

**Debagoiena.** 27 urteko mutil gaztea nahiz eta lana bila nabil, edozein motakoa, sukaldia eta obretan zein margotzenesperientzia handia daukat, baita hortuetan ere. Pare bat ordu badira ere beharrene bainago. 689 68 56 81/606 74 42 37

**Debagoiena.** Emakume arduratsua garbiketara lanak eta nagusi edo umea zaintzarako eskaintzen da. Gloria. 630 26 13 28 edo 943 79 13 88

**Debagoiena.** Esperientziadun neska umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Deitu 665 70 37 83 telefonora. Rakel

**Debagoiena.** Esperientziadun neska umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Deitu 665 70 37 83 telefonora. Rakel

**Debagoiena.** Emakume arduratsua garbiketara lanak eta nagusi edo umea zaintzarako eskaintzen da. Gloria. 630 26 13 28 edo 943 79 13 88

**Debagoiena.** Etxeak, lokalak eta lantokiak margotzen dituen 3 urteko esperientziadun mutila naiz. Lan ona, azkarra eta merkea egiten dut, deitu galdezko lasai asko. Paretak garbitu, masa heman eta margotzen ditut. Deitu 648 68 24 30 / 648 68 24 30

**Debagoiena.** Emakume arduratsua gertu ume zein nagusiak zaintzeko. Orduka garbiketara lanak egiteko ere bai. 943 71 53 74 edo 695 73 87 15

**Debagoiena.** Esperientziadun dendari euskalduna, arropa denda zein bestelakoetan lan egiteko prest. 650 13 74 93

**Debagoiena.** 26 urteko neska arrasatearra orduka lan egingo luke, garbiketarako, taberna, baserri, edota pertsonak zaintzen. 606 74 42 37

**Debagoiena.** Edozein ordutan eta edozein animalia zaintzeko edota pasiauan ateratzeko prest, jaiegunetan barne. Arrasateko 21 urteko neska gazte eta arduratsua, albaitari ikastaroak egindakoa. Konfiantzazkoa eta animaliazale amorratua. Deitu 679 24 43 42 / 943 79 78 38 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Mutila gertu garbiketara lanetan jarduteko. Eskarmentuduna. Interesatuok deitu: 689 88 80 23

**Debagoiena.** Neska gertu denetarik lanetarako: dendan, arrandegi zein okindegian, jate-txe, taberna, umeak zaintzen, garbitzen. Interesatuok deitu: 605 54 45 34

**Debagoiena.** Neska gertu zerbitzari edo garbiketara lanetarako. Eskarmentuduna. Autoa daukat. 679 04 42 68

**Debagoiena.** Emakume arduratsua edozein lan egiteko eskaintzen da. Lyda. Interesatuok deitu: 696 63 97 52

**Debagoiena.** Gizon arduratsua, heziketa onekoa eta ikasketak dituen edonolako lanak egiteko eskaintzen da. Pertsona nagusien zaintzan esperientziaduna. Ordugei moldagarria. Victor. 660 59 77 20

**Debagoiena.** 45 urteko emakumea, eskarmentuduna, nagusi zein umeak zaintzeko edo atari eta enpresak garbitzeko gertu. 685 21 24 89 edo 662 57 53 46

**Debagoiena.** Esperientzia duen emakumea gertu etxeke lanak egiteko eta pertsona nagusiak zaintzeko. Deitu 650 17 74 87 telefonora.

**Debagoiena.** Esperientziadun igeltsero prest edozein lanetarako, baita garbiketara lanak zein konponketa txikiak egiteko ere. Esperientzia daukat; elektrizitate, estaldura, iturgintza... Lan esperientzia daukat baserri eta basolanetan. Albaro. Deitu 648 90 16 47 zenbakira.

**Debagoiena.** Gizon arduratsua gertu edozein lan egiteko. Interesatuok deitu: 669 64 76 28

**Debagoiena.** Gizona gertu edozein lan egiteko. Interesatuok deitu: 647 06 09 97

**Durango.** Igeltserotza lanak, almatzen lanak, mendiko lanak, lorategi lanak, etab. Egiteko prest nago. Edozein egunetan hasteko prest. Interesatuok deitu: 638 32 03 45 (Elmer)

**Durango.** Inprenta baten inprimaketa ondorengo lanetarako (tolestu, moztu, kolatu...) lan bila nabil mutil gaztea. 4 urteko esperientzia. 620 08 75 94

**Durango.** Lorezaintza, erakuntza, txofer modura, banaketan, etab. Erako lan bila. Lorazaintza esperientzia. Paperekin. Gidatzeko baimena. Interesatuok deitu: 669 59 43 76

**Durango.** Garbiketara, ume edo nagusien zainkarako lan bila nabil. Lanaldi erdi edo oso. 18:00 21:00. Erreferentzia onak. 681 21 82 30

**Durango.** Pertsona nagusien zainketa interna modura, gauean edo asteburutan lan egiteko prest. Garbiketara lanetarako edo beste edozein lanetarako ere prest. Esperientzia eta erreferentziak. 679 76 99 21

**Durango.** Garbiketarako, ume edo nagusien zainkarako lan bila nabil. Lanaldi erdi edo oso. 18:00 21:00. Erreferentzia onak. 681 21 82 30

**Durango.** Neska gazte bat arrotsaldetan garbiketara lanak egiteko prest dago. Interesatuok deitu: 615 71 62 32.

**Durango.** Etxeko lanak egin eta portalak zein tabernak garbitzeko prest. Durangaldean. Orduka. 94 681 71 74

**Elorrio.** Haur hezkuntza bukatu duen neska euskalduna, astelehenetik ostiralera etxeke lanak egiteko edota umeak zaintzeko prest. Interesatuok deitu: 666 19 75 68.

**Zarautz.** Gizon euskalduna naiz, lan egiteko prest nago, edozein lanetarako. Interesatuok deitu: 658 73 08 08

## 5. IRAKASKUNTZA

## 501. JASO

**Arrasate.** Ingeleseko ahokotasuna lantzeko esperientziadun irakasle baten bila nabil. Astean bizpahiru ordu, arratsalde. Lehenbailehen hasteko. 665 72 79 38.



**Deba Garaia Inmobiliaria**

Telefono Aranzadi 2  
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

## ETXEBIZITZAK SALGAI

## BERGARA

- Arrizuri, 97 m<sup>2</sup>, garajearekin.
- Aranerrea, 80 m<sup>2</sup>, oso ondo. Prezio ona.
- Matxiategi, 72 m<sup>2</sup>, eguzkitsua. Prezio ona.
- Zabalotegi, 54 m<sup>2</sup>, eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 m<sup>2</sup>, oso eguzkitsua.
- Burdinata, 104 m<sup>2</sup>, oso ondo.
- Ibargarai, apartamentua, 40 m<sup>2</sup>, berria, garajea aukeran.
- Justo Garate, 80 m<sup>2</sup>, oso ondo.
- Herrilagunak, 60 m<sup>2</sup>.
- Martoko, 87 m<sup>2</sup>, ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m<sup>2</sup>, ondo.
- Ibargarai, 80 m<sup>2</sup> oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m<sup>2</sup> oso ondo.
- Zabalotegi 80 m<sup>2</sup>, eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m<sup>2</sup>, terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Urteaga 109 m<sup>2</sup>, berritua, oso ondo.
- Simon Arrieta, 57 m<sup>2</sup>, terrazarekin.
- Zurrado, 81 m<sup>2</sup>, oso ondo.
- Zubietza, 125 m<sup>2</sup>, terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m<sup>2</sup>,

**502. EMAN**

**Arabiera.** eskolak emateko gertu nago. Deitu 654 98 69 14 telefono zenbakira.

**Aretxabaletan** eskola partikularrak ematen dira, 2 batxilergo mailara arte. Deitu 653 01 76 67 telefono zenbakira.

**Arrasate.** 5. mailako ingenierritza ikaslea Arrasaten eskola partikularrak emateko prest. Deitu 625 74 91 50 telefono zenbakira.

**Durango.** Haureta lehen hezkuntzako irakaslea, ingelesko first titularekin eta pedagogia terapeutikoko ikasketak burutzen dabilen neska euskaldun bat klase partikularrak emateko prest.

**Bergara.** Goi mailako sarrera proba bat egiteko, matematika eskola partikularrak emateko prest dagoen pertsona euskaldun bat behar du. 685 75 91 72

**Oñati.** Eskola partikularrak emateko prest. Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntza. 667 52 83 29.

**Oñati.** 3. Dbhko eskola partikularrak jasoko nituzke. Interesatuok deitu: 617 35 63 53

**Iruñea.** Ega eta euskarazko klaseak. Egarako prestakuntza, idatzizko eta mintzatzeko trebetasunak. Iruñean. 619 77 68 67 akinloikas@gmail.com

**7. ANIMALIAK**

**701. SALDU**

**Astoa salgai.** Urte biko asto arra, etxean jaio eta hazitakoa. Txipa jarrita. 656 77 29 94

**Asto arra, beltza, salgai.** Hiru urteko asto arra, beltza, salgai. 688 67 84 74

**703. EMAN**

**Katuak eman Gasteizen.** Berri onak ditugu: bikik eta portok babesetxea daukate eta ziur aski laster adoptatuko dituzte; zeuk ere katuxoa har dezakezu, hurrengo izango zara? hemen aurkituko gaitzazu: [www.esperanzafelina.com](http://www.esperanzafelina.com) edo 650 80 76 72 telefonon.

**6. MOTORRA**

**601. SALDU**

**BMW 118 D salgai.** 2008ko uztailekoa. 55.000 kilometro. Urdin iluna. Aluminioko lantak. Oso egoera onean, oso gutxi kontsumitzen du. Ordenagailua, aginteak bolantean dituen bmw ekipo profesionala bluetooth-arekin. Bi guneko klimatizagailua. Bmw garantia ofiziala 2011ko azarora arte. Sapiariko barrak eta lanta joku bat oparitzen ditut. 656 75 95 37. Joseba.

**Csr onasport 125-ekomotora salgai.** Csr onasport edition motorra salgai. Itv-a pasa berria. Beti garajeen gordea. Gorri kolorekoa. Zilindrada aldatzeko saltezen da. 950 euro. Ikustea pena merezi du. 686 89 77 32

**Opel Vivaro salgai.** Opel Vivaro 1.9. Cdti. Egoera onean dagoen furgoneta salgai. Ohea, mahaia, armairuak eta kortinak. 2005. Urtekoa, 115 zaldi, 5 toki eta 120.000 km. Deitu 665 737 605 telefonora.

**Peugeot 206 xs hdi 2.0.** Gehigarri guztiak ditu, ekipamendu guztiak, gris metalizatua, aluminioko haguak ditu.. Leheneskuo da, kolpe gabekoa eta oso ondo zaindua. Deitu 650 27 48 80 telefonora.

**Wolsagen passat bat salgai.** Wolsagen passat bat salgai. 190.000 km. Bi cp. 5.000 euro. Kotxea ikusteko elorriko besaide autoetan. 617 35 88 05

**Yamaha jog scooter bat salgai.** Yamaha jog motorra salgai. 2.000 km. lata pasatuta. Ezer aldatu barik, dena originala. Beti egon da garajeen. stratokaster@gmail.com. 650 17 22 85

**8. DENETARIK**

**801. SALDU**

